



Euskal Herriko gizarte-mugimenduak pandemia garaian

Egoeraren ondorioak, egokitzapenak
eta eszenatoki berriak

Marta Barba Gassó • Miren Guilló Arakistain
Julen Zabalo Bilbao • Marta Luxán Serrano
Edorta Arana Arrieta • Iñaki Barcena Hinojal

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Euskal Herriko gizarte-mugimenduak pandemia garaian

**Egoeraren ondorioak, egokitzapenak
eta eszenatoki berriak**

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Euskal Herriko gizarte-mugimenduak pandemia garaian [Recurso electrónico]: egoeraren ondorioak, egokitzapenak eta eszenatoki berriak / Marta Barba Gassó... [et al.]. – Datos. – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2022]. – 1 recurso en línea : PDF (118 p.)

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-438-7.

1. Movimientos sociales – País Vasco. 2. Pandemia de COVID-19, 2020-. I. Barba Gassó, Marta, coaut.

(0.034)316.42(460.15)

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Metodologia, edo nola heldu erregistratu gabeko subjektu kolektibo bati	
<i>Marta Luxán Serrano eta Marta Barba Gassó</i>	10
2.1. Unibertsoaren eraketa eta subjektu kolektiboari buruzko gogoeta	10
2.2. Galdetegiaren hedapena	12
2.3. Galdera-sortak	13
2.4. Emaizten ordezkarritasuna.	14
2.5. Ikerketa intereseko eremuak	15
3. Mugimenduak ezaugarritzen. Taldeak eta norbanakoak	
<i>Marta Barba Gassó eta Edorta Arana Arrieta</i>	16
3.1. Inkestatutako taldeak eremuka	16
3.2. Inkestatutako taldeak herrialdeka	17
3.3. Inkestatutako taldeen antzinasuna	19
3.4. Inkestatutako taldeen kide-kopurua	20
3.5. Inkestatutako taldeetako kide aktiboen izaera	22
3.6. Inkestatutako taldeen jarduera-esparrua.	26
3.7. Hizkuntzen erabilera inkestatutako taldeen baitan	28
4. Pandemiaren eragina parte-hartzean	
<i>Iñaki Barcena Hinojal eta Miren Guilló Arakistain</i>	30
4.1. Pandemiaren eragina taldeen egituran eta kideen jarreran	31
4.1.1. Taldeen egitura eta tamaina: aldaketak eta joerak	31
4.1.2. Pandemiaren eragina kideen jarreran.	33
4.2. Pandemiaren eragina taldeek antolatzen dituzten ekintzetan eta jardueretan: egokitzapen-gaitasuna nabarmen	36
4.2.1. Pandemiaren eragina taldeen barne- eta kanpo-jardueretan	40

4.3. Taldeen arteko harremanak. Pandemiaren eragina eta harreman berrietarako aukera	43
4.4. Taldearen barne-antolaketarako komunikazioa: birtualtasunaren eraldaketak eta presentzialtasunaren politizazioa.	47
4.5. Pandemiaren eragina taldeen kanpo-komunikazioan	51
4.6. Pandemia garaian euskarak komunikazioan izan duen presentzia	54
4.7. Pandemiarekin batera sortutako finantziario-arazoak eta irtenbideak	56
4.8. Pandemia garaian Administrazioak hartutako neurrien aurreko jarrerak	60
5. Mugimenduak elkarri eraginez	
<i>Julen Zabalo Bilbao eta Iñaki Barcena Hinojal</i>	65
5.1. Feminismoaren eragina gizarte-mugimenduetan	65
5.1.1. Feminismoaren eragina pandemia garaian.	69
5.2. Ekologismoaren eragina gizarte-mugimenduetan	71
5.3. Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasunaren eragina gizarte-mugimenduetan	77
5.4. Mugimenduak elkarri eraginez	81
6. Pandemiaren ostea eta etorkizuna hizpide, eremuka	
<i>Edorta Arana Arrieta eta Julen Zabalo Bilbao.</i>	82
6.1. Talde feministen jardueran sakonduz	82
6.1.1. Zaintzaz arduratzeko ordua	86
6.2. Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasun gaien eragina pandemia garaian ..	87
6.2.1. Arrazakeriaren inguruan. Pandemiaren aurretik zetozen joerak.	87
6.2.2. Arrazakeriaren inguruan. Aldaketak pandemiaren testuinguruan	89
6.2.3. Arrazakeriaren inguruan. Pandemiaren testuinguruan hartu diren neurrien eragina	90
6.2.4. Arrazakeriaren inguruan. Pertsona migratuak eta herritartasun-eskubidea. .	92
6.2.5. Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasun taldeen aliantzak pandemia garaian	93
6.3. Nola irudikatzen dute gizarte-mugimenduek etorkizuna?	94
6.3.1. Feminismoa etorkizun hurbilean.	94
6.3.2. Euskalgintza etorkizun hurbilean	95
6.3.3. Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasuna etorkizun hurbilean	96
6.3.4. Ekologismoa etorkizun hurbilean	97
7. Gizarte-mugimenduen eszenatoki berriak pandemiaren garaian: ikerketaren azken gogoetak	
<i>Miren Guilló Arakistain eta Marta Luxán Serrano.</i>	98
Aipamenak	107
Laburpena	108

1

Sarrera

Badira zenbait urte Euskal Herriko gizarte-mugimenduen analisisan murgilduta gaudela, horien osaketa, horien arteko harremanak eta bestelakoak aztertuz. Horretan genbiltzala iritsi zen pandemia, gure bizitzak, ikergaiak eta ikerketak ezinbestean zeharkatuz. Testuinguru hartan erabaki genuen pandemia gizarte-mugimenduetan izaten ari den eragina aztertzeko inkesta hau egitea. Hala, herri-mugimenduen ezaugarriak aztertzeaz gain, COVID-19ak hainbat arlotan izandako eragina aztertuko genuen: taldeen¹ parte-hartzean, antolakuntzan eta jardueretan; harreman, sare eta aliantzetan; komunikazioan eta taldeen finantziazioan. Emaitza esku artean daukazu². Jarraian, testuinguruari erreparatzeaz gain, ikerketaren ezaugarriez eta helburuaz, COVID-19 pandemiaren inkestaren xedeaz eta berau gauzatzeko prozesuaz arituko gara.

Aurrekoaz aparte, txosten honek orobat erreparatzen die pandemia garaiko neurrien aurrean kolektiboek oro har garatu zituzten diskurtsoei eta praktikei, baina, zehazki, informazio xehea jasotzen du gure ikerketaren xede bihurtu ditugun lau eremuen inguruan, hau da Euskalgintza, Feminismoa, Ekologismoa, eta Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasuna. Aurrerago azalduko ditugu eremuen nondik norakoak

Halaber, taldeen ezaugarriak biltzen ditu, hala nola sortze-data, kide-kopurua, generoaren, adinaren eta jatorriaren arabera banaketa, lan-eremua, hizkuntzen erabilera edota bestelako taldeekiko harremanen kopurua. Horregatik guztiagatik, ikerketa honen garrantzia ez datza soilik pandemiarekin lotutako informazioan, egungo herri-mugimenduen ezaugarriak aztertzeko tresna baliagarria ere izan baita. Amaitzeko, pandemiak norbanakoen aktibismoan izandako eragina ere islatu nahi izan dugu norbanakoaren galdetegiaren bitartez.

¹ Talde, elkarte, kolektibo eta eragile adierak sinonimo gisa erabili ditugu testuan, ñabardurak ñabardura.

² Egitasmo hau ikerketa zabalago baten barruan ulertu behar da. Izan ere, *Nuevas solidaridades, reciprocidades y alianzas: la emergencia de espacios colaborativos de participación política y redefinición de la ciudadanía-SOLIDARY* (MINECO, CSO2017-82903-R kodea; 2018-2021 aldia) 2018an abiatu genuen Euskal Herriko Unibertsitateko lau ikerketa-taldetan (AFIT, NOR, EKOPOL eta PARTE HARTUZ) aritzen garen hogeita bi ikertzailek, Mari Luz Esteban Galarza eta Josu Amezaga Albizuren zuzendaritzapean. Ikerketa *Aztiker soziologia* ikergunearekin batera garatu dugu.

Edozein azterketa sozialek testuinguruaren beharra du. Gure kasuan, beste argitalpen batzuetan zehaztu dugun moduan (Esteban *et al.*, 2020³), aipatutako ikerketaren abiapuntuan azken hamarkadetan mendebaldeko gizarteetako eremu guztietan gertatu diren aldaketak daude, politikatik eta ekonomiatik hasi eta intimitateraino hedatu direnak; eta COVID-19ak sortutako krisiak areagotu eta antzaldatu dituenak. Alde batetik, kohesioan eta gizarte-ordenan eragina izan duten gizarte-harremanen desinstituzionalizatzeko prozesuak gauzatu dira (Touraine, 2005). Bestetik, krisi ekologiko eta zaintza-krisi baten aurrean gaude, zibilizazio-mailako krisia oro har (Herrero, 2016). Era berean, langabezia areagotu da, lan-baldintzak okertu, eta zerbitzu publikoak gero eta prekarizatuago daude. Ondorioa argia da: pobreen eta aberatsen arteko desberdinkeria areagotu da (Galvez, 2013; Gaindegia, 2016).

Horrenbestez, demokrazia instituzionalaren zereginari buruzko nolabaiteko ezkortasuna zabaldu da (Subirats, 2006), eta, aldi berean, erantzun kolektiboak eta demokrazia parte-hartzailearen inguruko proposamen berriak sortu dira (Santos, 2004). Izan ere, politika birpentsatzeko beharrak herritarren partaidetzarako ekimenak areagotzea ekarri du (Martínez-Palacios, 2017). Aldaketa horiek guztiek eragina izan dute ekintzan eta subjektu politikoaren pentsaeran, eta garrantzia hartu dute parte-hartze politikorako modu berriek (Luxán *et al.*, 2014; Esteban, 2015).

Gauzak horrela, proiektuaren helburu nagusia egungo aldaketa testuinguruan herri-mugimendu eta -ekimenen esparruan gertatzen ari diren lankidetzaprozesu eta -espazioen sorrera aztertzea izan da. Ikerketan beste eremu batzuei erreparatzen badiegu ere, Euskalgintzari (EUSK), Feminismoari (FEM), Ekologismoari (EKO), eta Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasunari (AMK)⁴ arreta berezia eskaini diegu, bai proiektu nagusian bai eta inkestan ere. Zergatik lau mugimendu horiek? Hiru joera hauek erakusten dituztelako —interesgarriak gure ustez—:

1. Askotariko menderakuntza- eta bazterketa-faktoreak pairatzen dituzten gizarte-taldeen arteko elkartasun zein elkarrekikotasun materialak eta sinbolikoak.
2. Esparru publikoan parte hartzeko eta politika birformulatzeko sinergiak eta lankidetzaprozesuak, zeintzuetan aliantzak, salaketa, prestakuntza eta sormen artistiko-kulturala bateratzen diren.
3. Gizarte gatazkak ulertzeko zeharkako gerturatzea, hurbileko harremanetan oinarritua, eta komuna denaren aitortzea, identitateen bernegoziatzea eta herritarrak definitzeko modu berriak dakartzana.

Prozesu horien azterketan murgilduta geundela, COVID-19 pandemiaren berri izan genuen lehen aldiz, eta handik gutxira, 2020ko martxoan, gizarte osoarentzako lehen neurriak ezarri ziren Hego eta Ipar Euskal Herrian. Besteak beste, gizarte-mugimenduetan eragin handia eduki zuten kale-zirkulazioaren murrizketa eta «konfinamendua»⁵.

³ Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik. Hemen eskuragarri: <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/listaproductos.asp?IdProducts=USPDF202499#>

⁴ Batzuetan, irakurketa errazte aldera, akronimoak erabiliko ditugu. Batez ere grafikoa eta Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasuna eremuaren kasuan.

⁵ 2020ko martxoaren 14an Espainiar estatuan eta 17an Frantziakoan. Informazio gehiagorako, ikus: <https://www.berria.eus/albisteak/178795/frantziak-ere-konfinamendua-agindu-du.htm>

Hona hemen 2020ko martxoan indarrean sartu ziren neurrietako batzuk: etxe-konfinamendua (larrialdietarako eta lanerako irten zitekeen, aisialdirako ez); mugikortasunaren murrizketa (garraio publikoaren murrizketa barne); premiazkoztat jo ez ziren denden itxiera; adinekoren zentroen, gurtza-zentroen, kirol instalazioen, museoen eta elkarte gastronomikoen itxiera; ostalaritza-jarduera ororen itxiera eta etxekideak ez zirenekin elkartzeko eta besteen etxeetara joateko debekua.

COVID-19 pandemiak eta horri aurre egiteko ezarri ziren neurriek eragin bikoitza izan dute ikerketaren bilakaeran. Alde batetik, neurri berezien ondorioz, eraldaketa sakonak gertatu ziren herri-mugimenduen jardunean, aktibitateetan zein erritmoetan. Bestetik, ikertzaile gisa, lan egiteko moduak egokitu behar izan genituen. Egoeraren berezitasunak, beraz, ikerketa zein ikerketa-prozesuan eragin zuen.

Lehenengoari dagokionez, besteak beste, ezinezkoak bilakatu ziren ordura arte ohikoak izandako aurrez aurreko bilerak, kalean gauzatutako ekimenak, hitzaldiak eta abar. Era berean, egoera berriak bultzatuta, herri eta auzo askotan elkartasun- eta zaintza-sareak⁶ sortu ziren. Horrez gain, komunikazio-bideak egokitzea ezinbestekoa izan zen eta, ondorioz, bilera eta elkarte birtualak biziki areagotu ziren.

Bigarrenari dagokionez, itxialdiak behaketak edota aurrez aurreko elkarrizketak egitea ia erabat galarazteaz gain, elkarrekin egoteko moduak ere behartu zituen, presentzialitatea erabat baztertuz. 2020ko abendutik 2021eko uztaila bitarte izan genituen bilera guztiak birtualak izan ziren, eta horrek lan-erritmoari eta eztabaiden bilakaerari eragin dielakoan gaude, aurrenekoa geldotuz eta ondorengoak zailduz.

Gogo bizia piztu zitzaigun, orobat, gure ikerketaren subjektua diren herri-mugimenduetan egoera berria nolako eragina izaten ari zen aztertzeko. Asmo horrekin, gertatutakoaz hausnartzea ahalbidetuko lukeen inkesta bat diseinatzea eta burutzea erabaki genuen, eta 2020ko abenduan martxan jarri ginen. Aurrerago azalduko dugunez, hilabete batzuk geroago, inkesta bi galdetegitan antolatzea ebatzi genuen. Txosten honetan galdera-sorta horietatik eratorritako informazioa landu dugu.

2020ko amaieran hasi ginen inkesta lantzen eta, horretarako, ikerketa-talde ezberdinetako kideek osatutako batzorde bat sortu genuen. Lantalde horren koordinazioa Julen Zabalo Bilbaoren (Parte Hartuz) eta Marta Barba Gassó ikertzailearen esku egon da. Beraiekin batera, Edorta Arana Arrieta (Nor), Iñaki Barcena Hinojal (Ekopol), Miren Guilló Arakistain eta Marta Luxán Serrano (AFIT) aritu gara honako zeregin hauetan: prozesua definitzen (zenbait kontzepturen definizioa, lagina, unibertsoa); galdetegia(k) sortzen; kontaktuekin laguntzen; jasotako emaitzak aztertzen eta horren erabilera nolakoa izango den eztabaidatzen, eta, azkenik, txosten hau idazten.

Halaber, inkestaren diseinuan eta gauzapenean *Aztiker soziologia ikerguneak* hartu du parte. Bere ardurak hauexek izan dira: proiektuko ikertzaile-batzordearekin ikerketa-egitasmoaren diseinu- eta koordinazio-lana egitea; unibertsoaren zehaztapena eta laginketa; inkestaren edukiaren garapena eta diseinu tekniko eta itzulpena frantsesera eta gaztelaniara; landa-lana gauzatzea eta jarraipena egitea, eta emaitzen lehen ustiaketa.

⁶ *SOLIDARY* proiektuaren baitan, 2021eko otsailean UEUrekin batera antolatutako ikastaroan zaintza sareen gaia landu genuen, informazio gehiagorako ikus: <https://www.argia.eus/albisteak/komunitateak-zaintzatik-ehuntzen>.

Galdetegiaren diseinuari ekin aurretik, gure artean prozesua kokatzeko eta inkestaren emaitzak testuinguruan jartzeko, hainbat eztabaida izan genuen. Taldearen proiektu orokorrean, herri-mugimenduen ulerkera zabala erabili genuen, aurretik egindako lanean bezala, baina orain inkestaren unibertsoa (hots, inkestagai izan zitezkeen talde guztiak) marraztu behar genuen, eta horretarako definizio zehatzagoa behar genuen, *Herri-mugimendu* gisa ulertzen zenak unibertsoaren ezaugarriak eta tamaina baldintzatuko baitzituen. Izan ere, aktibismo eta parte-hartze politikoaren espektroa osatzen duten taldeen artean aniztasun handia dago, eta horiek interpretatzeko askotariko ikuspegiak ere bai.

Beraz, horri buruz hausnartu ostean, inkesta honetarako kontuan hartu ditugu herri-mugimenduen edo gizarte zibilaren baitan kokatzen diren eta eraldaketa soziala bultzatzen duten taldeak, eragileak edo ekimenak. Zehazte-lan horren isla da norbanakoen inkestaren bigarren atalean agertzen den mugimenduen aukera-zerrenda, erabilitako definizioaren argazkitzat jo dezakeguna (1. taula) eta, gure iritziz, kontzeptua lurreratzeko lagungarria suerta daitekeena. Zerrenda zabalagoa bada ere, gehienbat gure intereseko eremuetan (EKO, AMK, EUSK eta FEM) aritzen diren taldeekin jarri ginen harremanetan.

1. taula

Zein mugimendutan/eremutan kokatzen duzu parte hartzen duzun taldea?

Hezkuntza	Justizia soziala / Pobrezia / Prekarizazio soziala
Ekologismoa	Zaintza komunitarioak
Feminismoa	Bakegintza / Memoria
Euskalgintza	Errepresioaren aurkako mugimendua
Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasuna	Erabakitze eskubidea / Burujabetza / Independentismoa
Ekonomia sozial eraldatzailea / Kooperatibismoa	Internazionalismoa
Lurralde-garapena	Okupazioa
Gazte-mugimendua	Etxebizitza-eskubidea
Pentsionistak	Etxegabetzeen kontrako mugimendua
Kontsumo-eredu berriak / Ekologikoa / Arduratsua / 0 km	Turistikazioaren kontrako mugimendua
Komunikazioa	Auzo-elkarteak
Mundu digitala / Software libre	Antiespezismoa
Kultura	Sindikalismoa
Lan-baldintzak / Prekarietatea	LGTB

Iturria: guk egina. Norbanakoen inkestaren 5. galdera.

Gure ikerketaren erdigunean dagoen subjektua, *Herri Mugimendua*, askotariko taldeek osatzen dute, eta horrek aniztasuna dakarkigu antolaketari eta egiturari dagokienez. Baina izaera horrek prozesu honi balio erantsia gehitzen diolakoan gaude, ohikoan inkesten erantzuleak banakako pertsonak baitira⁷. Era berean, izaera horrek eragin zuzena izan zuen definizioa zehaztu eta gero abiatu genuen kontaktazioan.

Hori guztia kontuan hartuta, *Aztikerrek* Euskal Herriko herri-mugimenduen unibertsoa osatzen duten taldeak identifikatzeko prozesua abiatu zuen, *mapaketa* izendatua. Mapaketa-rekin batera, galdetegiaren disenuari ekin genion kolektiboki. Prozesu korapilatsua izan zen eta bilera birtualen bitartez garatu genuen. Galdetegiaren luzerak, batetik, eta iritzi-galderak⁸ txertatzeko nahiak, bestetik, galdetegia bitan banatzea ekarri zuten: taldeei bideratutakoa eta norbanakoei zuzendutakoa, alegia.

Laburbilduz, ikerketaren subjektuaren ezaugarri bereziek erronkaz beteriko prozesu bihurtu dituzte inkestaren diseinu- eta gauzatze-faseak, hala erantzulea kolektiboa izango zelako (gerora norbanakoen inkesta abiatzea erabaki bagenuen ere), nola aurretik ez zegoelako unibertsoaren erroldarik edota datu-baserik: eraiki beharra zegoen. Horregatik guztiagatik, egin ditugun hautu metodologikoei azalpen berezia eman nahi izan diegu bigarren atalean.

Bestalde, inkestaren emaitzei dagokienez, jasotakoa hiru multzo handitan koka dezakegu:

1. Berretsi ditugun gertaerak edo portaerak. Adibidez, aurrez aurreko bilerak espazio publikoetan edota lokaletan egiteko ohitura jaitsi da, eta online bilerak/asanbladak egiteko plataformen erabilera igo da gehien (% 57,8).
2. Espero zitezkeen zenbait gairen inguruko ñabardurak. Adibidez, birtualtasunak eraldaketa ekarri duela pentsatzen da, baina kasu gehienetan ez du presentzialtasuna ordezkatu (% 73).
3. Ustekabeen agertutakoak. Adibidez, aurrez aurreko harremanak asko mugatu direla esaten da, baina herenak dio aurrez aurreko bestelako harreman berriak ere sortu dituela (ik. 61. grafikoa).

Azkenik, eta txostenaren edukiei dagokienez, sarrera honen ostean atal metodologikoa dugu. Bertan, prozesuan hartutako hautu metodologikoak jasotzeaz gain, horien harira jorratutako hausnarketak bildu ditugu. Hurrengo ataletan inkestaren emaitza nagusiak landu ditugu, gaika: hirugarrenean taldeen ezaugarri nagusiak; laugarrenean pandemiaren eragina; bosgarrenean, aztertu ditugun lau mugimenduen arteko eragina landu dugu; eta, seigarrenean, eremu batzuetan sakondu ahal izan dugu. Ondoren, eta amaiera gisa, ondorioak daude. Horretaz gain, alde batetik, testuaren laburpena jaso dugu aipamenean atalaren ostean eta, azkenik, eranskinetan lagungarria suerta daitekeen dokumentazioa jaso dugu, hala nola galdetegi biak.

Izan bedi txostena irakurlearentzat prozesua guretzat bezain aberasgarria!

⁷ Metodologia-atalean gai honi buruzko gogoeta jaso dugu.

⁸ Informazio gehiagorako, ik. Galdera-sorta azpiatala, Metodologiaren baitan.

2

Metodologia, edo nola heldu erregistratu gabeko subjektu kolektibo bati

Marta Luxán Serrano eta Marta Barba Gassó

Sarreran aipatu moduan, inkesta bi fase nagusitan gauzatu genuen: unibertsoaren eraketa (mapaketaren bidez egin genuena) eta galdetegien zabalpena. Atal honetan bi fase horiei erraparatzeaz gain, galdera-sortak, inkestaren ordezkagarritasuna eta gure ikerketa intereseko jarduera-eremuak aztertu ditugu. Era berean, sekzio honetan zehar, prozesuan izandako gogoeta metodologikoen eta hartutako erabakien berri jaso dugu.

2.1. Unibertsoaren eraketa eta subjektu kolektiboari buruzko gogoeta

Dagoeneko aipatu ditugu inkesta erantzun duten taldeen izaera berezia eta horri lotutako erronka metodologikoak. Adierazi dugunez, subjektu kolektiboari buruz ari gara, eta horrek askotariko ondorioak izan ditu prozesuan, baita unibertsoaren eraketan ere.

Has gaitzen subjektu kolektiboa izateak ekarri dituen ondorioekin. Hasteko, galdera-sortak taldeen e-posta kolektiboetara bidali genituen. Posta hori norbaitek ireki, taldera eraman eta kolektiboki noiz eta nola bete erabaki behar izan zuten. Pauso horiek guztiak beharrezkoak izateak datuak jasotzeko epea luzatu zuelakoan gaude. Horrez gain, kolektibo batek ez du zertan izan gai zehatz bati buruzko iritzi komunik, eta horrek baldintzatu du egin daitezkeen galderen berezkotasuna. Gure kasuan horixe izan zen bi galdetegi diseinatzeako arrazoietakoa bat. Halaber, kolektibo horiek agendak oso beteta izaten dituzte, eta inkesta bat erantzuteak ez du, kasu gehienetan, berebiziko lehentasunik. Amaitzeko, ezin ukatu unibertsitatetik sarritan herri-mugimenduen erabilera *estraktibista* egin dela eta horrek erakunde horietatik datozen proposamenekiko mesfidantza sortzen duela zenbait sektoretan.

Bestetik, kontuan hartu behar dugu herri-mugimenduen baitan askotariko antolaketa motak eta taldeak daudela. Horien artean, egitura malgua edo ia egiturarik ez duten taldeak egoten dira, eta oso zaila da haien berri izatea eta haiekin kontaktatzea, ez bada ikertzaileen harreman-sareen bitartez. Horrek ere gure lana zaildu du. Izan ere, guretzat garrantzitsua zen

talde guztiak aintzakotzat hartzea, ordezkagarritasuna handitzeko, eta halako taldeak bereziki interesgarriak izan zitezkeen batzuetan, bultzatzen dituzten ekimenek emergentzia berriak ekar ditzaketelako, beste talde batzuetan aurkitzen ez direnak. Baina, esan bezala, horien-gana heltzea zaila izan zaigu eta ezin dugu ondorioztatu mota horretako taldeekiko kontak-tzioa oso emankorra izan denik.

Argudio horiek guztiek, eta horiekin lotutako hautu metodologikoen, inkesta hau bene-tan baliagarria bihurtu dutela iruditzen zaigu. Metodologikoki prozesu bitxi eta korapilatsua izan da, oztopo asko gainditu behar izan ditu, eta, zentzu horretan, etorkizunean ildo bereko ikerketetarako erreferente lagungarria izango delakoan gaude.

Beste gai gatazkatsu eta konplikatuak unibertsoarena izan da. Unibertsoa eratu behar izan genuela diogu. Zergatik hori? Ofizialki, edo idatziz behintzat, ez zegoelako gure definizioarekin bat egiten zuen taldeen erregistro, katalogo edo gutxienez zerrenda bakar bat ere. Prozesu honetan eraiki behar izan dugu. Eta eraikuntza-ariketa hori burutzeko erabilitako teknikari mapaketa deitu genion.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, gure baldintzei egokitutako unibertsoa zehazteko eta osatzeko bidean abiatu ginen. Aztikerrek hartu zuen lan hori. *Elur bola* laginketa teknikari jarraituz, eta Aztikerrek garatutako Zoom aplikazioa baliatuta⁹, Euskal Herriko talde edo kolekti-boen harreman-sarearen inguruko galdetegi bat zabaldu genuen, gure unibertsoa zein izango zen zehazteko asmoz. *Elur bola* teknikari jarraikiz, talde bakoitzari galdetu genion ea zer beste talderekin zituen harremanak, eta ahal izanez gero, kolektibo horien helbide elektronikoak ere eskatzen genizkion.

2021eko martxoa eta apirila bitartean gauzatu zen lehenengo fase hori, eta aurreko guz-tiari internet eta sare sozialetan egindako kontaktu-bilaketa eta ikerketa-taldeetako kideek ekarritako kontaktu zuzenak ere gehitu behar zaizkio. Prozesuaren bukaeran 700 talde baino gehiagoren informazioa bildu genuen. Zerrenda luze horretatik abiatuta, 396 taldeko uniber-tso bat definitu genuen, informazio guztia eta harremanetarako kanala zehaztuta zuten tal-deek osatua.

Zenbakiak erakusten dutenez, talde asko eta asko gure unibertsoetik kanpo utzi behar izan genituen. Bi arrazoi nagusi aipatuko ditugu gutxitze hori azaltzeko. Batetik, kontuan hartu behar da kasu gehienetan mapaketaren bidez jasotako informazioa taldearen izena baino ez zela izan, eta ez genuela kontaktatzeko helbide elektronikorik eskuratu; ez geneukan, hortaz, bigarren faserako kontaktu baliagarriarik. Bestetik, *Elur bolaren* sistemaren bidez, talde eta el-karteen zerrenda luzea eskuratu genuen, baina askotan taldeek ez zituzten guk ezarritako iriz-pide metodologikoen betetzen, eta ondorioz, baztertu behar izan genituen.

Amaitzeko, aitor dezagun unibertsoa osatzea zalantzaz eta galderez beteriko prozesua izan dela, ez bakarrik hasieran, erronka metodologiko gisa, baizik eta gauzatze osoan. Infor-mazioa lortuta ere, talde batzuk sartzea eta beste zenbait kanpoan uztea erabaki behar izan da, eta egindako ahaleginaren neurria erakusten digu horrek.

⁹ Inkestak kudeatzeko Aztikerrek garatu duen tresna da Zoom, eta ez du zerikusirik azken garaian bilera birtua-lak gauzatzeko horren ezaguna egin den izen bereko aplikazioarekin.

2.2. Galdetegien hedapena

Sarreran aipatu moduan, bigarren fasean bi galdera-sorta zabaldu genituen. Lehenengo kolektiboei zuzendutakoa, herri-mugimenduetako taldeei zuzendua alegia, kolektibo gisa erantzuteko igorri zitzaiena. Bigarren inkesta, aurreko taldeetako kideei zuzendu zitzaien, norbanako gisa bete zezaten. Unibertsoa zenbatekoa zen dagoeneko aipatu dugu, eta laginari buruzko zehaztasunak 2. taulan kontsulta daitezke.

2. taula

Unibertsoa eta lagina

Unibertsoa	396 talde	
Lagina	Talde-inkesta	100 inkesta onargarri jaso dira (errepikatu gabeak). Horietako 95 amaituta zeuden eta 5ek inkestaren % 50 baino gehiago egina zuten
	Norbanakoen inkesta	94 inkesta onargarri (errepikatu gabeak eta osoak) jaso dira

Iturria: guk egina.

Laginketari dagokionez, garrantzitsuak izan dira zenbait aldagai. Alde batetik, nagusiki gure ikerketa interesen arabera definitutako lau eremuetako (Euskalgintza, Feminismoa, Ekologismoa, eta Antiarrazakeria–Migrazioak-Kulturartekotasuna) taldeak kontaktatu genituela, gorago esan dugunez. Bestetik, Euskal Herriko taldeak hartu ditugula, baina hiru esparru administratiboak kontuan hartuta: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Komunitatea, eta Euskal Hiri Elkargoa. Nahiz eta landa-lana abiatzeko momentuan ez zen kuota zehatzik ezarri, prozesuan zehar esparruen arteko oreka bilatu dugu. Zentzu horretan, gogoratu dezagun berriro gure ikerketa gauzatzeko zailtasuna: inkestatutako taldeen izaerak (hots, kolektibotasunak) eta galdetegi zabaltzeko moduak prozesua baldintzatu dute. Era berean, laginaren kontrola etengabe eta malgutasunez gauzatu dugu.

Galdera-sortak 2021eko maiatza eta iraila bitartean hedatu ziren, online. Talde-inkestaren kasuan, taldeen helbide elektronikoetara esteka itxiak bidali ziren. Modu horretan, talde bakoitzerako galdetegi bat sortu, eta horri esker erantzunen jarraipena egin ahal izan zuten Aztikerreko kideek. Norbanakoen inkestaren kasuan, lotura ireki baten bidez zabaldu zen galdetegi. Talde-inkestaren aurkezpen testuan txertatuta, kideek lotura kopiatu eta beraien artean zabaltzea zen helburua.

Fase horretan erantzunen jarraipena eguneratuta mantendu zen, eta inkestatuen zalanzei edo arazo teknikoiei erantzun zitzaien. Aldi berean, lagina osatu ahal izateko, ikerketa-taldeko kideek zenbait kolektiborekin alde aurretik geneukan harremana baliatu genuen. Hots, zenbait talderi galdetegiak betetzeko edota osatzeko kontaktu pribatuen bidez ere eskatu genion.

2.3. Galdera-sortak

Aztertu nahi ziren gaien inguruan zer galdera egoki egin genezakeen pentsatuz, galdera-sorta osatu genuen EHUko lantaldeak eta Aztikerrek¹⁰. Aztikerren esku geratu zen inkestaren diseinu teknikoa gauzatzea, baita hasierako material horiek gaztelaniara eta frantsesera itzultzea ere. Esan dugun moduan, galdera-sorta osatzen ari ginela, egindakoa bi galdetegitan banatzea erabaki genuen: talde-inkesta eta norbanakoen inkesta. Erabaki hura hartzeko arrazoi nagusiak galdera sortaren luzera eta galdera batzuen izaera izan ziren, metodologikoki ez baita zuzena talde-inkesta batean iritzi-galderak gehitzea. Dena dela, eta izandako eztabaidak horren lekuko, ez zen hautu erraza izan. Ordezkarritasunari buruz aritzerakoan, inkesta baikoitzaren lagina eta bi inkesten arteko harremana arakatu ditugu.

Galdetegiaren egiturari dagokionez, talde-inkestak hiru atal nagusi ditu: taldearen ezaugarriak, pandemiaren eragina taldean eta mugimenduan, eta aztertutako lau eremuetako bakoitzean sakontzeko informazioa, baita elkarren arteko eragina aztertzeko ere. Norbanakoen inkesta ere hiru multzotan antolatuta dago: inkestatuaren parte hartzea, pandemiaren eragina norberaren aktibismoan, eta inkestatuaren gaineko oinarritzko informazioa.

Zehaztu dezagun azken kontu bat galderen inguruan, nahasgarria suerta daiteke eta. Esan dugunez, lau gizarte-mugimendu aztertu ditugu bereziki; bi galdetegi bidali dizkiegu inkesta onartu dutenei, taldekoa eta norbanakoa, eta, galderetan, batzuetan modu orokorrean eta besteetan modu espezifikoan jokatu dugu. Zer esan nahi dugu? Datuak lau modutan agertuko direla ikerketan:

1. Galdera orokorrak, inkestatu guztiei zuzenduak, eta erantzunak bateraturik, joera orokorrak marrazteko.
2. Galdera orokorrak, inkestatu guztiei zuzenduak, baina erantzunak eremuka, eremuaren nondik norakoak ondo islatzeko.
3. Galdera espezifikoak, eremu baten interesekoak, baina inkestatu guztiei zuzenduak, eta emaitzak orokorrean edo eremuka aurkezturik.
4. Galdera espezifikoak, eremu baten interesekoak, eta eremu horretako inkestatuei bakarrik zuzenduak.

¹⁰ Galdetegi guztiak (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez) hemen eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10810/56839>

2.4. Emaitzen ordezkagarritasuna

Dagoeneko aipatu dugunez, garatu eta gauzatu dugun inkesta honen balioa COVID-19 pandemiak herrigintzan izan duen eragina aztertzei harago doa, egungo Euskal Herriko mugimendu sozialen ezaugarriei hurbiltzeko tresna ezin hobea baita. Era berean, etorkizunean herri-mugimenduei zuzendutako balizko ikerketetan kontuan hartzeko erreferentzia izango delakoan gaude, bai inkestan jarraitu den metodologiagatik bai emaitzengatik beraiengatik.

Baliagarritzat jotzen ditugu, beraz, egindako prozesua zein jasotako emaitzak. Baina ohar bat egin dezagun azken gai honen inguruan, emaitzen ordezkagarritasunari dagokiona, alegia. Ordezkagarritasuna diogunean, zera adierazi nahi dugu: ea emaitzek lagina ondo ordezkatu duten. Hau da, ea ez dagoen ezaugarriren bat (eremua edo herrialdea, kasu) gainordezkaturik edo azpiordezkaturik emaitzetan. Zein da, beraz, gure ikerketa eta horren emaitzen ordezkagarritasuna?

Talde-inkestaren kasuan, garrantzitsua da gogoan izatea gure lagina ez dela Euskal Herriko herrigintza osoaren isla, oso lotuta baitago ikerketaren erdigunean izan diren lau eremuekin. Ondorioz, eremu horietan (EUSK, FEM, EKO eta AMK) gertatu dena eta gertatzen ari dena irudikatzei ahalmen handiko euskarria da, baina emaitzak gizarte-mugimendu osoari zabaltzea ez litzateke zuzena izango. Bestalde, oro har kualitatiboki oso aberatsa den informazioa jaso dugula berresten dugu, joerak marrazteko ezin hobea dena, baina kuantitatiboki eta zenbaki zehatzekin portaerak orokortzeko arazotsua izan daiteke.

Norbanakoen inkestaren kasuan, zuhurtzia handiagoz jokatu beharko genuke. Alde bateatik, erantzunen kopurua proportzionalki txikiagoa izan delako. Eta, bestetik, erantzun dutenen soslaia oso markatua gertatu delako, jarraian laburturik ikusiko dugunez (informazio osoagoa *Taldeen ezaugarriak* atalean aurkituko duzu). Generoari dagokionez, inkestatuen % 60,2 emakumeak dira; % 34,1 gizonak; eta ez-bitarrak % 3,4. Adinari erreparatuta, inkestatuen % 57,4k 30 eta 50 urte bitarte ditu. Jaiolekuari dagokionez, % 44,3 Gipuzkoan jaiotakoak dira, eta ez dago Ipar Euskal Herriko erantzunik. Amaitzeko, % 81,6k unibertsitate-ikasketak ditu, eta hizkuntzari dagokionez, % 68,2k dio euskara dela bere lehen hizkuntzetako bat, eta % 65,9k gaztelania.

Halako ezaugarriek zuhurtziaz jokatzeko exijitzen digute eta, hortaz, esan dezakegu norbanakoen inkestatik lortutako emaitzak ezin direla orokortu, eta ez direla, zentzu horretan, ordezkagarriak. Baina horrek ez du esan nahi ezin direnik erabili: joerak marrazteko eta, batez ere, talde-inkestatik lortutako emaitzekin gurutzaketak egiteko baliagarriak iruditzen zaizkigu oso. Horren isla, *Zaintzaz arduratzeko ordua* puntutik (6.1. atala) jaso dugun eta zaintzarekin lotuta dagoen adibidea.

Zaintzari dagokionez, talde feministek nabarmendu dute gai horren inguruko eztabaidak garrantzi berezia hartu duela pandemia garaian, axolazko gaia izan dela, alegia. Banakakoen inkestari so eginez gero, zentraltasun hori batez ere herri eta auzoetako zaintza-sareekin eta zaintza-arloko etxeko zein bestelako langileak sostengatzeko ekimenekin lotzen dela ondorioztatu dezakegu. Beraz, galdetegi bietatik lortutako informazioaren gurutzaketak ñabardura interesgarriak marrazteko erabil ditzakegu.

2.5. Ikerketa intereseko eremuak

Sarreran azaldu dugunez, *SOLIDARITY* proiektua diseinatzerakoan gure intereseko lau ikerketa eremu zehaztu genituen (EUSK, FEM, EKO, AMK), gure ustez azaltzen ari ziren fenomeno berriak modu berezian gorpuzten ari zirelako eremu horietan. Hortaz, inkesta honetan, unibertsoa guk geuk definitu dugula eta kontaktazioa ere guk bideratu dugula kontuan izanda, eremu horietako taldeetara bideratu genuen gehienbat.

Unibertsoa eraikitzeko, eremuen araberrako zerrendak sortu genituen, eta arestian aipatutako ikerketa-taldeekideen kontaktuak baliatu genituen zerrendak osatzeko. Saillkapenari dagokionez, talde zein norbanako inkestetan erantzuten zuenak eremua aukeratu behar zuen, modu itxiagoan lehenengoan (3. taula) eta zabalagoan bigarrenengan (ik. gorago 1. taula). Gogorazi behar dugu galdera hauek erantzun aukera bat baino gehiago onartzen zutela; eremuen arteko harremanak aztertzeko atea ireki digu horrek.

3. taula

Eremuen inguruko galdera. Talde galdetegia

Galdera	Zer mugimendutan kokatzen da taldea? (Erantzun aukera anitza)
Erantzunak	Feminismoa
	Euskalgintza
	Ekologismoa
	Antiarrazakeria/Migrazioak/Kulturartekotasuna
	Besteak

Iturria: guk egina. Talde galdetegiaren 8. galdera.

Zehaztapenetan sartuta, bi ohar egin ditzagun. Ekologismoaren eremuari dagokionez, bir-kodifikazio bat egin genuen: berez, ekologismoan kokatutako talde eta kide guztiek ez zuten beren burua horrela definitu, gerora guk egindako birsailkatze baten ondorioa baita kokatze hori. Zehazki, egitasmo defendatzaileez gain, eraikitzailegoak diren egitasmoak ere sailkatu ditugu ekologismoaren baitan, hala nola kontsumo-eredu berriekin edota elikadura-burujabetzarekin lotutakoak. Bigarren oharra AMKko taldeei buruzkoa da. Izan ere, eremu horretan aztertu ditugun taldeen erdiak baino gehiagok feministatzat ere jo du bere burua. Horrek ondorioak ekarriko ditu hainbat gaitan, jakina, elkarren eragina agerian geratuko da eta (ik. 5. atala).

Amaitzeko, taldeei buruzko datu zehatzagoak hurrengo atalean aztertu baditugu ere, sailkatze honetan taldeak honela kokatu ditugu: % 39 Ekologismoan; % 35 Feminismoan; % 22 Euskalgintzan; eta % 20 AMK delakoan. Azkenik, % 37 *Besteak* multzoan kokatu dugu¹¹. Beraz, eremuen zentraltasuna erabatekoa izan dela ondorioztatu dezakegu.

¹¹ Gogoratu erantzun aukera anitzeko galdera denez, emaitzak % 100 baino gehiago izan daitezkeela.

3

Mugimenduak ezaugarritzen. Taldeak eta norbanakoak

Marta Barba Gassó eta Edorta Arana Arrieta

Nolakoak dira inkestan parte hartu duten taldeak? Haien izaeran, osaeran eta jardunean sakontzea da atal honen helburua: noiz sortuak diren, zenbat jende biltzen duten, non —zein espazio geografikotan— aritzen diren, edo zer hizkuntza erabiltzen dituzten. Eta taldeei buruzko informazioa biribiltzeko, taldeetako kideen ezaugarriak ere ezagutu nahi ditugu: besteak beste, haien generoa, adina edo jatorria. Informazio hori guztia xehatuko dugu atal honetan.


3.1. Inkestatutako taldeak eremuka

Metodologiari eskainitako atalean zehaztu dugunez, Euskal Herriko gizarte-mugimenduak aritzen diren eremuetatik lau hartu genituen azterlan honetarako: Euskaingintza, Feminismoa, Ekologismoa, eta Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasuna. Hala ere, eta geroago ere ikusiko dugun bezala, elkarrekintza handia dago talde horien artean eta, horrela, beste eremu batzuk ere agertu zaizkigu. Horrez gain, oso ohikoa izan da taldeek eta kideek haien burua eremu bakarrean baino gehiagoan kokatzea.

Izan ere, lehenengo galdera izan da ea zein eremutan kokatzen zuten taldea. 1. grafikoan ikusten denez, guk aukeratutako eremuak dira nagusi, jakina, Ekologismoa eta Feminismoa batez ere, baina horiez gain, *Besteak* delako kategorian, beste eremu batzuk ere agertu zaizkigu, hala nola Okupazioa, Internazionalismoa, Pentsionistak, eta abar. Konbinazio guztiak bildurik, oro har esan dezakegu inkestatu ditugun taldeen erdia baino gehiago (% 58) eremu bakarrean ari dela, baina beste kopuru handi batek (% 42) bi edo hirutan jarduten duela. Taldeen ezaugarri garrantzitsu bat, hurrengo puntuetan ere agertuko dena, honezkero ondorioztatuz dezakegu gure inkestatik: talde asko eremu batean baino gehiagotan ari da aldi berean, eta horrek elkarren arteko eragina ahalbidetzen du.

Inkesta erantzun duten taldeen % 58k eremu bakarrean jarduten du (Euskaingintzan, Feminismoan, Ekologismoan, edo AMKn), baina, aldi berean, bizpahiru eremutan dabilta talde asko eta asko. Horrek erakusten du noraino dagoen zabaldua eragile sozial horien arteko erlazioa eta elkarlanerako ahalmena.

1. grafikoa
Taldeak eremuka




Iturria: guk egina. Galdera: zer mugimendutan kokatzen da taldea? Erantzun aukera anitza¹².

3.2. Inkestatutako taldeak herrialdeka

Euskal Herria hartu genuen marko gisa inkestarako, eta saiatu gara herrialde guztiak egoki ordezkatzeko. Hala, inkesta erantzun duten taldeetatik, ia % 30 Gipuzkoan kokatzen da; % 25 Bizkaian, eta ia % 10na Araban, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian. Horrez gain, % 15,2k Euskal Herrian kokatzen du bere burua, eta gainerako % 1,1ek Euskal Autonomia Erkidegoan (2. grafikoa).

2. grafikoa
Taldeak herrialdeka



Iturria: guk egina. Galdera: nongoa da elkarteoa?

¹² Grafikoen oinetan, iturria eta galdera zeintzuk izan diren adierazteaz gain, beste hainbat datu ere jaso dugu zenbaitetan. Lehenik, galdera erantzun bakarrekota izan denean ez dugu ezer adierazi, baina erantzun aukera anitza edo aukera-kopuru zehatz bat ezarri denean, hala agertuko dugu. Bigarrenik, datuak ehunekotan agertzen dira gehienetan eta, hala denean, ez dugu adierazten; datuak maiztasunetan (kopuru absolutuetan, alegia) agertzen direnean edo indize bat direnean, aldiz, jakinaraziko dugu. Azkenik, gehienetan datuak talde-inkestatik atera ditugu eta, horrelakoetan, ez dugu adieraziko; norbanakoen inkestatik sortutako datuekin, aldiz, grafikoaren oinean ere jakinaraziko dugu.

Ikerketan parte hartu duten taldeen kokapen geografikoaz modu orokorrean aritzeaz gain, herrialde bakoitzeko taldeen zenbait ezaugarri ere aipatuko ditugu. Beraz, laburrean aipatuko ditugu horietako garrantzitsuenak, herrialdeka.

Arabari dagokionez, erantzun diguten taldeetatik Ekologismoan ari dira gehienak, eta gero, paretsu, Feminismoan eta AMKn. Gehienek Araba dute jarduera-esparrutzat, edo EAE ere bai. 2010etik hona sortu dira talde horietako asko, baina ez dira gutxi 1990-1999 hamarkadatik datozenak. Kideek, beraien harremanetarako, gaztelania eta euskara darabiltzate modu orekatuan. Oro har, altuxeagoa da gizonezkoen proportzioa emakumezkoena baino.

Bizkaiko taldeek Ekologismoan eta Feminismoan jarduten dute gehien, neurri handi batean (lautik hiru). Erdia baino gehiago (% 59) 2010etik aurrera sortutakoak dira. Kideei dagokionez, adin tarte nagusia 30-64 urte bitartekoa da; gaztelania eta euskara modu antzerakoan erabiltzen dituzte beraien jardunean; eta emakumezkoen kopurua altuagoa da gizonezkoena baino.

Gipuzkoako taldeei begira jarrita, gehienek Ekologismoa dute jarduera-esparrutzat, eta Feminismoa ondoren. Azken hamarkadan sortutakoak dira asko eta asko (% 65,4). Kideen ezaugarriei erreparatuz, gehiago dira emakumezkoak; partaideen erdia baino zerbait gehiago 50 urtetik beherakoa da; eta hizkuntzen erabilerari dagokionez, euskarak garrantzi handia hartzen du, % 40,5ek euskara bakarrik eta nagusiki erabiltzen baitu bere egunerokoa.

Aztertu ditugun Nafarroako taldeak Euskalgintzaren eta Feminismoaren inguruan aritzen dira neurri handi batean, hirutik bi. Sorrera-datari dagokionez, multzorik handiena mende honetakoa da, baina badira antzintasun handiko taldeak ere. Emakumezkoen eta gizonezkoen presentzia orekatua da.


Azkenik, Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeak batera azterturik, kontuan hartzekoa da gure inkestari erantzun dioten taldeen artean Feminismoa dagoela askoren muinean. Sorrera-urteari dagokionez, erdiak aurreko mendean eta erdiak oraingoan sortutakoak dira. Eta gizon-emakumeen proportzio orekatua dute.

Duten pisu demografikoari jarraikiz, gure inkestan Euskal Autonomia Erkidegoetik jaso dugu erantzun gehien, Bizkaitik eta Gipuzkoatik batez ere. Edonola ere, saiatu gara Euskal Herriko lurralde guztiak ordezkaturik egon zitezen.

3.3. Inkestatutako taldeen antzinasuna

Jakin dezagun gehiago gure inkesta erantzun duten taldeei buruz: noiz sortu ziren eta, beraz, noiztik ari dira lanean? Oro har, nahiko berriak direla esan genezake: hamarretik zazpi (% 72,5) mende honetan sortutakoak dira. Baina hamarna urteka hartuta (30 urte 1960-1989 epearen kasuan) ikusiko dugu ez dutela beheranzko joera jarraitzen (hau da, zenbat eta zaharrago, gutxiago). Aitzitik, talde gehiago aurkituko dugu 1990-1999 epean sortuak, hurrengo hamarkadan sortuak (2000-2009) baino (3. grafikoa). Harremanetan egon daiteke mende hasierako aldaketa eta krisi garaiekin? Agian talde gutxiago sortu ziren urte horietan, edo sortu eta desagertu ziren? Aurrerago ikusiko dugu (ik. 21. grafikoa) urte horietan sortutakoek izan dutela kide-galerarik handiena pandemiarekin.


3. grafikoa
Taldeen sorrera urtea



Iturria: guk egina. *Galdera:* inkesta, talde zehatz bateko kidea izateagatik erantzuten ari zara/zarete. Zein da talde horren sortze data (urtea)?

Eremuka aztertuta, ikusten dugu denek jarraitzen diotela joera orokorrari, baina bi multzo bereiz daitezke. Alde batetik, AMKn eta, batez ere, Euskalgintzan, proportzio desberdinak agertzen dira: antzinasun handiagoko taldeak dira (Euskalgintzako taldeen % 45 pasa den mendean sortu zen), eta gutxiago dira azken hamar urteetan sortutakoak. Ekologismoan eta Feminismoan, aldiz, ia bi heren azken hamar urteotan sortu dira (4. grafikoa).

4. grafikoa
Taldeen sorrera urtea, eremuka



Iturria: guk egina. Galdera: inkesta, talde zehatz bateko kidea izateagatik erantzuten ari zara/zarete. Zein da talde horren sortze data (urtea)?


Aztergai ditugun taldeei dagokienez, hamarretik zazpi mende berriarekin sortu dira. XX. mendetik datozenen artean apur bat gehiago dira Euskalgintza eta Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasuna lantzen dutenak. Aldiz, XXI. mendean sortutakoen artean, gehixeago nabaritzen da Ekologismoaren eta Feminismoaren indarra.

3.4. Inkestatutako taldeen kide-kopurua

Taldeen ezaugarrietatik at, jakin dezagun zerbait orain taldeetan aritzen diren kideen gainean: zenbat jende biltzen den, nolakoak diren, edo zer interes-maila erakusten duten. Inplikazioari dagokionez, badakigu pertsona guztiek ez dutela intentsitate berdinez jokatzeko, arrazoi asko direla eta. Beraz, geruza batean baino gehiagotan egituratzen da talde eta kolektiboetako parte-hartzea: lehenengo geruza batean koka daitezke aktiboagoak diren kideak eta sarritan ekitaldien antolaketan inplikazio zuzenagoa daukatenak; beste geruza batean, ordea, partaidetza lausoagoa duten kideak aurkitzen ditugu eta geruza zabalagoa osatzen dute. Horietako batzuek, esaterako, jarduera zehaztutan parte hartzen dute eta ekintzetarako elkartuko dira, baina ez, agian, kide aktiboagoen maiztasunarekin eta sakontasunarekin (geruza horien kontzeptualizazioaz gehiago jakiteko, ik. Esteban, 2020). Batzuk edo besteak izanda ere, nork parte hartzen du talde hauetan?

Hasteko, kide aktibo eta saretutakoaren arteko desberdintasunak ikusiko ditugu. Horiek, gainera, aukera emango digute aurrerago aktiboagoak eta inplikazio-maila txikiagoa daukaten partaideen gaineko azalpen zabalagoa egiteko.


5. grafikoa
Taldeetako kide aktiboen kopurua



Iturria: guk egina. Galdera: une honetan, taldeak zenbat kide aktibo dauzka?


Taldeetako kide aktiboen kopurua (5. grafikoa) 1-19 tartekoa da gehienbat (taldeen % 60ren kasua da), ikusten dugunez. 20-29 tartetik aurrera asko jaisten da, ordea. Aldiz, saretutako partaideen kopuruak ez du bilakaera argirik. Era guztietako kopuruak daude (6. grafikoa).

6. grafikoa
Taldeetako saretutako kideen kopurua



Iturria: guk egina. Galdera: eta guztira zenbat kide saretuta?

7. grafikoa
Kide aktiboen kopurua eremuka



Iturria: guk egina. *Galdera:* une honetan taldeak zenbat kide aktibo dauzka?

Eremuka aztertuta (7. grafikoa), kasu guztietan 1-20 tarteko kopurua da ohikoena kide aktiboen artean: Feminismoan eta Ekologismoan 1-9 tartekoak gehiago; eta Euskalgintzan eta AMKn 10-19 tartekoak gehiago (pandemiak horretan izan duen eraginean sakontzeko, ik. 4.1. atala).


Aztertzen ari garen taldeetan ohikoa da geruza bat baino gehiago agertzea taldeen osieran: batetik, partaide-kopuru txikiko kide oso aktiboena, inplikazio handikoa; eta, bestetik, engaiamendu lausoagoko geruza zabalagoa, kide asko biltzera hel daitekeena. Gure lau eremuetan errepikatzen da eskema: talde txikian hamar eta, asko jota, hogeitaz egon daitezke. Aldiz, saretutako kideen kopurua handiagoa izan daiteke.

3.5. Inkestatutako taldeetako kide aktiboen izaera

Taldeetan hainbat kidetasun-maila egon daitezkeela jakinda, aktibo izendatu ditugunekin jarraituko dugu, beraiek markatzen baitute taldearen norabidea. Azter dezagun, beraz, kide horien izaera.


Hasteko, taldeetako ordezkarietara itaundu diegu ea zenbatekoa den kide aktiboen artean emakumezkoen, gizonetzkoen edota genero ez-bitarreko pertsonen proportzioa. Oro har, emakumezkoen presentzia handia da (8. grafikoa), eta gainera, emakumeek bakarrik osatutako taldeak daudela jaso dugu (% 17). Ez dago halako kasurik, ordea, gizonetzkoen artean (9. grafikoa). Horrez gain, emakumezkoekin konparatuta, gutxiago direla ikusten da (*Bat ere ez* kategoriatan altua da gizonetzkoen kasuan, baina kontuan hartu behar da, bestalde, talde feministen kopurua altua dela gure inkestan).

8. grafikoa
Taldekideen genero banaketa, emakumezkoen kopurua



Iturria: guk egina. Galdera: egungo kide aktiboen artean zenbat emakume zaudete?

9. grafikoa
Taldekideen genero banaketa, gizonzkoen kopurua




Iturria: guk egina. Galdera: egungo kide aktiboen artean zenbat gizon zaudete?

Aurrekoaren harira, orduan, garrantzitsua izango da eremuka nola dauden ordezkatura begiratzea. 10. grafikoan ikus dezakegu emakumezkoek zelako presentzia duten azterketa honetako lau eremuetan. Agerikoa da emakume asko dagoela, Feminismoan bereziki (*Denak* edo *Talde gehiena* kategoriak nagusitzen dira), baina ez bakarrik. Apur bat gutxiago izan arren, AMKn talde gehienak emakumezkoek osatzen dituztela ikusten da neurri handi batean. Eta beste pixka bat gutxiago izan arren berriro, Euskalgintzan *Talde gehiena* eta *Talde erdia* kategoriak nagusitzen dira, eta antzera Ekologismoan (zerbait gutxiago).

10. grafikoa

Taldekideen genero banaketa, emakumezkoen kopurua, eremuka




Iturria: guk egina. Galdera: egungo kide aktiboen artean zenbat emakume zaudete?

Talde horien ezaugarriekin jarraituz, zein da kide aktibo horien adina? 11. grafikoan ikusten denez, 30-49 urte arteko multzoa nabarmentzen da. Kontuan har bedi bereziki landu ditugun lau eremuen artean ez direla sartu espresuki adin jakin bati lotutako mugimenduak (adibidez Gazte mugimendua eta Pentsiodunena), eta horrek gazte zein adinekoen kopurua mugatua izatea ekarri du.


Azken elementu bat ere aztertuko dugu taldeetako kide aktiboen soslai osatzeko asmoz: non jaio ziren (12. grafikoa). Datu zehatzetan sartu gabe, taldeen hiru laurdenek diote kide aktibo *guztiak* edo *gehienak* Euskal Herrian sortuak direla. Beste laurdenari dagokionez, kanpoan sortutakoen proportzioa handitu egiten da, eta neurri txiki batean (taldeen % 3) gehiago dira Euskal Herrian jaiotakoak baino.

11. grafikoa
Taldeetako kide aktiboaren adin tartea



Iturria: guk egina. Galdera: adin-banaketari dagokionez, zein adin-tartetako kideak zaudete?

12. grafikoa
Taldeetako kide aktiboaren jatorria




Iturria: guk egina. Galdera: zein da zuen elkarte edo ekimenean parte hartzen duzuen pertsonen jaiotzeko jatorrien arteko aniztasuna?

Aztergai ditugun taldeetan, partaide aktiboagoen geruzan altua da emakumezkoen presentzia. Adinean bereziki 30-49 urtekoen multzoa azpimarragarria da. Eta sorlekuari dagokionez, gehienak Euskal Herrian jaiotakoak dira, oro har.

3.6. Inkestatutako taldeen jarduera-esparrua

Gizarte-mugimenduek problematika orokorrak lantzen dituzte, adiera desberdinak hartuta, mundu osoan agertzen direnak: naturaren degradazioa, emakumeen egoera, edo aniztasunaren ukapena, kasu. Haatik, gaia berdina izanik ere (feminismoa, ekologismoa, antiarrakeria, aniztasuna), eremu horretan ari diren taldeek eskuhartze maila desberdinak aukeratu edo hobetsi ditzakete haien lanari ekiteko, eta haien eragin-esparrua ere desberdina izan daiteke: auzoa, herria, Euskal Herria edo beste eskala bateko espazioa. Beraz, zer esparrutan aritzen dira gure inkestan parte hartu duten taldeak?

Oro har, gertuko esparruan aritzen direla esan dezakegu (13. grafikoa), ia erdiak herrian edo gehienez herrialdean jarduten du eta: % 30ek auzoa eta herria/hiria dauka erreferentzialurraldetzat, eta % 16k Euskal Herriko herrialde bakarra (Ipar Euskal Herria barruti bakartzat hartuta). Gainerako erdia beste maila batzuetan ari da: Euskal Herria, Espainia, Frantzia, mundua. Horien artean, % 18k Euskal Herria hartzen du erreferentzia modura (eta % 10ek Euskal Autonomia Erkidegoa).




Iturria: guk egin. Galdera: zer esparru geografikotan kokatzen da taldearen jarduna? Erantzun aukera anitza.

Badago desberdintasunik eremura aztertuta? 14-17. grafikoetan aukera guztiak ikus ditzakegu eremura. Euskalgintzan, nabarmentzekoa da taldeek ez dutela *Herria* jartzen jarduera-esparru nagusi gisa (ohikoena, oro har), baizik eta *Euskal Herria*. Izan ere, jakina da euskararen alde Euskal Herri osoko erakundeak daudela, gero herrietan ordezkartza dutenak. Antzeko proportzioa erakusten digu AMKk, baina *Herria* da esparru nagusia, eta ondoren ez *Euskal Herria*, baizik eta *EAE* agertzen da bigarren esparru gisa. Feminismoan *Herria* esparrua asko nabarmentzen da besteen gainera (urrunago *EAE* eta *Euskal Herria*). Eta Ekologismoan, azkenik, esparruen aukera guztiak agertzen zaizkigu, baina *Herria* eta *Euskal Herria* maiztasun handiagoarekin.


14. grafikoa

Taldeen jarduera esparrua, Euskalgintzan




15. grafikoa

Taldeen jarduera-esparrua, Feminismoaren eremuan




16. grafikoa

Taldeen jarduera esparrua, Ekologismoaren eremuan



17. grafikoa

Taldeen jarduera esparrua, Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasunaren eremuan



Iturria: guk egina. Galdera: zer esparru geografikotan kokatzen da taldearen jarduna? Erantzun aukera anitza.


Aztertu ditugun taldeak hurbileko esparruan aritzen dira: ia erdiak herria edo, gehienez, herrialdea dauka jardun-lurraldetzat. Gertutasun hori markatuxeagoa da Feminismoan; eta Euskalgintzan, aldiz, Euskal Herria da definituen ageri dena.

3.7. Hizkuntzen erabilera inkestatutako taldeen baitan

Taldeetan zer hizkuntza erabiltzen den gai garrantzitsua da gure azterketan. Alde bate-tik, bi estatutan ari dira, eta hizkuntza-gatazka dago euskararen, gaztelaniaren eta frantsesa-ren artean; bestetik, ikertutako talde askotan ari diren jatorri anitzetako pertsonak bestelako hizkuntzak darabiltzate.

Oro har, datu guztiak bildurik, taldeen bi herenek (% 64k) beti edo askotan erabiltzen du euskara, % 43k gaztelania eta % 7k frantsesa¹³. Zer gertatzen da hizkuntzak konbinatzen badi-tugu? Aztertu ditugun eremuetako bat Euskalgintza dela kontuan harturik, euskaraz bakarrik ari diren taldeen kopurua nabarmendu behar da, % 13. Aitzitik, ez dago gaztelaniaz edo fran-tsesez bakarrik ari den talderik. Hortik aurrera, hizkuntzen erabilera maila desberdinak aur-kitzen ditugu: % 23 euskaraz nagusiki, eta gaztelania edo frantsesa ondoren; edo, bestalde, % 22 gaztelaniaz edo frantsesez nagusiki, eta euskaraz ondoren (18. grafikoa).

18. grafikoa
Hizkuntzen erabilera, eremuka



Iturria: guk egina. Galdera: taldearen eguneroko jardura aurrera eramatean, zer hizkuntza erabiltzen dira? Galderaren azpiaukeren emaitzen batuketatik ateratako datuak.

¹³ Hizkuntza bakoitzaren erabilera neurtu nahi izan dugu; hortaz, datuak ez dira baztertzailak, talde batean eta pertsona batek hizkuntza bat baino gehiago erabil dezake eta. Hori dela eta, datuek guztira ez dute % 100 eman behar, gehiago baizik.

18. grafikoan, halaber, hizkuntzak eremuka nola erabiltzen diren ikus daiteke. Aurretik ere pentsatzekoa den moduan, desberdintasun handiak daude eremuen artean, horietako bat Euskalgintza izaki. Eremu horretako talde gehienak euskaraz bakarrik ari dira, baina beste konbinazio asko ere egon daitezke, batez ere euskara eta gaztelania batzen dituenak. Gainerako hiru eremuotan era guztietako konbinazioak dira nagusi. Oro har, Ekologismoan eta Feminismoan antzera erabiltzen dira euskara eta gaztelania, baina AMKn aritzen diren kolektiboen artean gaztelaniaren nagusitasuna nabarmena da (beste hizkuntza batzuk txertatzen dira eremu horretan, eta gaztelaniaz gain arabiera, wolofa eta hassaniera agertzen dira).

Aztertu ditugun taldeen egunerokoan antzematen da hizkuntzen erabilera anitza daukatela. Bakarrean aritzea ez da ohikoena. Euskarari dagokionez, taldeen bi herenek diote euskara presente dutela beti edo askotan. Euskararen erabilera handiagoa da, jakina, Euskalgintzan, baina baita Feminismoan ere.

4

Pandemiaren eragina parte-hartzean

Iñaki Barcena Hinojal eta Miren Guilló Arakistain

Pandemiak gizarte osoan eragin du, maila pertsonalean zein kolektiboan. Arreta berezia eskaini zaie osasun-arloan izan dituen era guztietako ondorio latzei, baina gure bizitzaren beste maila askotan ere eragin du: esaterako, harreman pertsonaletan eta harreman sarean, mugitzeko aukeretan, eguneroko ohituretan, eta lantokian eta ikasketetan. Egun batetik bestera, ez zegoen modurik aurretik egiten genuena modu berean egiteko, edo zuzenean, ezin zen egin. Ataka larria harremanak lantzea eta parte-hartze presentziala hobesten duten gizarte-mugimenduentzat. Nola erantzun dute: betiko moduak hobetsi, ala berriak bilatu dituzte? Geldirik egon dira ala inoiz baino aktiboago?

Gure ikerketa pandemia garaian garatu izanak galdera horien gaineko lehen eskuko informazioa eskuratzea ahalbidetu digu. Hori dela eta, ikerketan parte hartu duten taldeen eta pertsonen ezaugarrietan sakondu ostean, ondorengo ataletan pandemiaren eragina izango dugu hizpide. Oro har, pandemiak zer mailatan eta zenbateraino eragin duen aztertu nahi genuen, zer eragin izan duen taldeen dinamiketan, alegia. Batzuetan galdera zuzenak egin ditugu, eta beste askotan alderaketak egitera jo dugu: zer edo nola egiten ziren gauzak lehenago, eta nola pandemiarekin.

Hortaz, kasu egin diegu, besteak beste, parte-hartzeari eta taldeen egiturari, ekimenei eta jarduerari, diskurtsoei, harremanei, finantzazioari eta komunikazio-bideei. Beste era batez eta orokorrean esanda, zein izan da gizarte-mugimenduen egunerokotasuna pandemia garaian?

4.1. Pandemiaren eragina taldeen egituran eta kideen jarreran

Pandemiak eragina izan du herrigintzaren hainbat arlotan, esan gabe doa. Kasu batzuetan taldeari eragin dio, modu formalean: taldearen tamaina aldatu da, esate baterako; eta beste batzuetan, ekintzaileei berei eragin die. Biak aztertuko ditugu atal honetan: lehenengo kasuan, taldeko inkesta erabilita, eta bigarreanean, berriz, norbanakoen inkesta baliatuta.

4.1.1. Taldeen egitura eta tamaina: aldaketak eta joerak

Lehenik eta behin, azter dezagun nola aldatu edo birmoldatu diren taldeen ezaugarriak eta dinamikak. Tamainari dagokionez, 2020ko martxotik aurrera taldeko kide aktiboen kopurua aldatu ote den galdetuta, taldeen erdiari eragin diela ikusten da (19. grafikoa). Zehazki, aldatu denean, taldea txikitu egin da kasuen laurdenean baino gehiagotan (% 27,5), baina beste zenbait kasutan (% 20), aldiz, handitu egin da. Alegia, bi norabideetan eragin du pandemiak eta, hortaz, askotariko mugimenduak gertatu dira.


Taldeak txikitzea aurreikusteko modukoa zen, besteak beste, pandemiaren osteko egoerak (lan-baldintzek, prekarietateak, egoera emozional konplexuek zein bestelako faktoreek) norbanakoen militantzian eragingo zuela aurreikusita. Taldeak handitzea, ordea, ez zen hain espero izatekoa, eta nabarmentzeko modukoa iruditu zaigu: aintzat har daiteke, maila batean, testuinguru pandemikoa bera aktibazio politikorako arrazoi ere bilakatu dela, eta horri loturik, zenbait talde berri ere sortu dela testuinguru sozial berrian¹⁴. Azkenik, nabarmentzekoa da % 50 baino gehiagorentzat gauzak antzera mantendu izana.

Eremuka begiratuta, joera orokorra mantentzen da: antzera daudela esaten dute gehienek. Baina joera hori oso markatua da Ekologismoan eta Euskalgintzako taldeetan, eta ez hainbeste AMKn eta Feminismoan. Azken horretan gehiago dira kideen kopurua aldatu dela dioten taldeak antzera daudela diotenak baino. Amaitzeko, aldaketak gertatu direnean, AMKn gehiago dira kideak irabazi dituzten taldeak galdu dituztenak baino; eta gainerakoe-tan, alderantziz: gehiago dira kideak galdu dituzten taldeak irabazi dituztenak baino (20. grafikoa). Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasun taldeetara besteetara baino kide berri gehiago bildu izana nabarmentzekoa iruditzen zaigu. Pandemia garaian zaugarrien geratzen ziren sektoreekiko elkartasun-keinua izan liteke? Azken urteotan eremu horretan gertatzen ari diren dinamiken isla eta jarraipena?

¹⁴ Hala, galdetegiaren erantzun irekietan horren gainera nabardurak jaso dira. Esaterako, badago pandemia-garaian sortu dela helarazi duen talderik: elkartasunari lotuak edota erakundeen jazarpena salatzeari lotuak, besteak beste. Era berean, elkarlanerako proiektu eta plataforma zehatzak ere sortu dira garai honetan. Datuei erreparatuz, erantzun duten taldeen artean, lau sortu dira pandemia-garaian eta hainbat arlo jorratzen dituzte, bereziki feminismoa.


19. grafikoa

Aldaketak taldeetan pandemia garaian. Tamaina eta kide-kopurua



20. grafikoa

Aldaketak taldeetan pandemia garaian. Tamaina eta kide-kopurua, eremuka




Iturria: guk egina. Galdera: taldeko kide aktiboen kopurua aldatu da 2020ko martxotik aurrera?

Taldeen tamainan izan diren aldaketekin jarraituta, begira dezagun ea taldeen antzintasunak horretan eragin duen (21. grafikoa). Talde zaharretan ez da aldaketa esanguratsurik agertzen, besteak beste, seguruenez, oso kontsolidatutako taldeak direlako. Mende honetan sortutakoaren artean, berriz, mugimendu gehiago igartzen da: antzera geratu direnak bezainbeste edo gehiago dira aldaketak izan dituztenak. Aldaketen barruan, azken hamarkadan sortutakoek, kide-kopurua handitu edo txikitu, bietatik eduki dute. 2000-2010 hamarkadan sortutako taldeek, aldiz, kideak galdu dituzte. Berriz ere, hamarkada horretan sortu ziren taldeek ahuldade handiagoa erakusten dute.

21. grafikoa

Aldaketak taldeetan pandemia garaian. Tamaina eta kide-kopurua, antzinasunaren arabera (%)



Iturria: guk egina. *Galdera:* taldeko kide aktiboen kopurua aldatu da 2020ko martxotik aurrera?


4.1.2. Pandemiaren eragina kideen jarreran

Gertatu diren aldaketak hobeto ulertzeko, lagungarri suerta dakiguke pandemiak norbanakoen militantzian izan duen eraginaz ekintzaileei berei hitz egiten uztea. Norbanakoen inkestako datuei erreparatuko diegu, beraz.

Gehien kasuan pandemiaren testuinguruak eragina izan du. Hala adierazten du inkesta erantzun duten kideen bi herenek, baina norabide desberdinean izan da: askorentzat aktibismoa gutxitzeko, baina baita areagotzeko ere. Geratzen zaigun gainerako herenean ekintzaileek diote pandemiak ez duela eraginik izan beren aktibismoan (22. grafikoa).

22. grafikoa

Pandemiaren neurrien eragina norbanakoen parte-hartze politikoan




Iturria: guk egina. *Galdera:* zure parte-hartze orokorra eta pandemiaren aurrean hartutako neurriei dagokienez... Norbanakoen inkesta.

Mugimendu edo eremu bakoitzari begiratuta, aldaketak lausoak dira, baina AMKn nolabaiteko gorakada ikus dezakegu; hau da, pandemiak parte-hartze maila areagotzera eraman du. Euskalgintzako kideen kasuan, aldiz, gehiago dira pandemiak beren parte-hartzea gutxitzera eraman dituela diotenak; eta Ekologismoaren kasuan, proportzionalki, gehiago dira parte-hartzean eraginik ez duela izan erantzun dutenak (23. grafikoa).

AMKn gertatu den nolabaiteko gorakada azaltzeko arrazoi bat baino gehiago egon daiteke, baina horietako bat lotuta dago, gure ustez, azken urteetako testuinguruan mugimendu sozialetan arrazismoaren gaineko kezka areagotu izanarekin, galdetegiko beste zenbait ataletan nabarmendu den moduan. Pandemiak kezka horiek areagotu ditu, testuingurua latzagoa bihurtu baita kolektiborik zaugarrietasan, besteak beste, pertsona migratuen kasuan, eta horrek bestelako aktibazioak piztu dituela ere pentsa genezake. Hala ere, aktibismoak gora egin arren, beste atal batean ikusiko dugun bezala (ik. 6.2), ikerketan parte hartu duten ekin-tzaileek ez dute uste azken bi urteetan gizartean arrazismoaren gaineko kontzientzia kritikoa areagotu denik, ezta horren aurreko elkartasuna ere. Mugimendu sozialen baitan, ordea, bai, oso maila apalean bada ere.

23. grafikoa

Pandemiaren neurrien eragina norbanakoen parte-hartze politikoan, eremuka (%)








Iturria: guk egina. Galdera: zure parte-hartze orokorra eta pandemiaren aurrean hartutako neurriei dagokienez... Norbanakoen inkesta.

Pandemiak norbanakoen parte-hartzean izan duen eraginean sakontzeko, zehazki, pandemia-egoerak taldean duten parte-hartzeari nola eragin dion galdetu genien, aipatu alderdi horiei erreparaturik.

24-31. grafikoak

Pandemiak kideen parte-hartzean izan duen eragina hainbat arlotan



Iturria: guk egina. *Galdera:* nola eragin dio pandemia egoerak taldean duzun eguneroko parte-hartzeari? Zure parte-hartzearen alderdi desberdinetan pandemiak izan duen eragina baloratu. Norbanakoen inkesta.

Datuak orokorrean hartuta, balorazio desberdinak egiten dira pandemiaren eraginaz. Lau multzo bereiz ditzakegu:


1. Gai batzuetan ez da aldaketa handirik sumatu. Taldeak aurretik lantzen zuen diskurtsoan islatzen da hoberen: ia hirutik bik adierazi du pandemiak ez diola arlo horri eragin. Pentsa dezakegu horren arrazoietakoa bat dela arlo ideologikoan aldaketak gertatzea prozesu luzeen ondorio izaten dela.
2. Beste gai batzuetan ere ez da aldaketa handirik sumatu, eta eragitekotan, modu positiboan eragin du. Taldearekiko lotura emozionala dugu adibide egokia: % 42k uste du pandemiak ez diola aldaketarik ekarri, eta % 35ek *positiboki* edo *oso positiboki* eragin diola. Kasu honetan, pandemia garaian harremanen eta lotura emozionalen garrantzia nabarmendu da, eta normaltzat hartu behar da orain alderdi hau nabarmentzea.
3. Gai batzuetan, aldiz, ez da aldaketarik sumatu, baina eragitekotan, gehienetan, modu negatiboan eragin du. Hala gertatzen da parte hartzeko motibazioan eta taldean edukitako rolean. Parte hartzeko motibazioan, adibidez, % 41,5ek uste du pandemiak ez diola aldaketarik ekarri, eta % 35ek *negatiboki* edo *oso negatiboki* eragin diola. Kasu honetan ere, baliteke pandemia garaian oro har sumatutako nekearen eta ezintasunaren ondorio izatea.
4. Bestelako gai batzuetan pandemiak eragin negatiboa izan du. Gainerako kasuetan, kide gehienek uste dute negatiboki eragin diela (eskainitako denbora, inplikatzeko aukera, parte hartzeko energia, erlazionatzeko edo komunikatzeko modua). Adibide gisa, eta muturreko kasu bati erreparatuz, komunikatzeko moduak: 10 kideetik 8k uste du pandemiak eragin *negatiboa* edo *oso negatiboa* ekarri duela gai horri dagokionez.

Pandemiak taldeen tamainan eta taldekideen parte hartzeko moduetan eragin du. Tamainari dagokionez, bi norabidetan: taldeen erdiak aldatu ez badira ere, laurden baten kasuan txikitu egin dira eta bosten baten kasuan, aldiz, handitu. Azken hori nabarmentzekoa iruditu zaigu. Taldekideen parte hartzeko erari dagokionez, berriz, norbanakoen inkestatik ateratako datuen arabera, ia heren batek adierazi du ez duela eraginik sentitu, eta bi herenek baietz. Zenbaiten kasuan aktibismoa gutxitu egin da oro har, eta beste batzuen kasuan, ostera, areagotu. Era berean, ikusi dugu parte hartzeko modua bera moldatu dela, gehienek arabera modu negatiboan. Hala ere, deigarria da aldaketarik ez nabaritzea taldearen diskurtsoan eta, bestalde, aldaketa positiborik sumatzekotan atxikimendu emozionalen izatea.

4.2. Pandemiaren eragina taldeek antolatzen dituzten ekintzetan eta jardueretan: egokitzapen-gaitasuna, nabarmen

Asko dira talde bakoitzak antolatzen dituen jarduerak eta egitasmoak, eta horietan guztietan eragin dute pandemiak eta testuinguru horretan hartu diren neurriek: gauza batzuk ez dira edo ezin izan dira antolatu, beste batzuk egoerara moldaturik garatu dira, eta, tarteka, egoeraren ondorioz, bestelako jarduera berriak sortzeko parada ere agertu da. Hori aztertu aurretik, bada, ikus ditzagun ikerketan parte hartu duten taldeek pandemiaren aurretik zituzten ohiturak jardueren antolaketari dagokionez.

Erantzunak ikusita, esan daiteke pandemiaren aurretik taldeek nahiko ekintza edo jarduera antolatzen zituztela urtean: Euskalgintzari lotutako taldeek apur bat gehiago, eta antzera gainerakoek. Ekintza-kopuruari dagokionez (32. grafikoa), taldeen ia erdiak (% 45,5ek) batez beste ekintza bat edo gehiago antolatzen zuen hilabetero (11-15 eta 16 edo gehiago zioten multzoa). Batez besteko horretatik behera, laurden batek baino gehiagok (% 27,5ek) urtean 7-10 ekintza egiten zituen, eta gainerako laurdenak 0-6 bitartean.



Iturria: guk egina. Galdera: batez beste, urte arrunt batean, urtean zenbat ekintza/jarduera antolatzen duzue?


Ekintza-kopuruaz ari garela, egin dezagun ñabardura bat: urtean egindako ekintza-kopuruak, zenbaki bihurtuta, ezer gutxi adieraz baitezake. Izan ere, aintzat hartu beharko lirarteke beste zenbait faktore, besteak beste, ekintzen nolakotasuna, intentsitatea eta iraupena, eremu bakoitzeko profesionalizazioa edota talde bakoitzak elkarlanean parte hartzen dituen plataformak. Ekintza guztiek ez daukate, gainera, garrantzi-maila berdina: batzuk esanguratsuagoak dira. Hori dela eta, pandemia testuinguruak nola eragin duen hobeto jakiteko, galdera ireki baten bitartez¹⁵ jakin nahi izan dugu haien artean zein zen urteko jarduerarik garrantzitsuenak, eta jarduera horrek eduki lezakeen pisu sinboliko garrantzitsua kontuan hartuta, nola kudeatu duten jarduera hori pandemia garaian.

Galdera horren bueltan jaso ditugun erantzun ia denek askotariko ekintzei egin diete erreferentzia. Erantzunak aztertuz, eta jarduera horien ezaugarrien eta izaeraren harira, esan genezake, askorentzat, jardunaldiak eta topaketak izan ohi direla urteko ekintzarik garrantzitsuenak. Beste askorentzat, aldiz, urteroko agendan agertzen diren data zehatzak eta aldarrikapen-egunak (martxoak 8, ekainak 28, presoan aldeko urteroko manifestazioa, jaietako egun zehatz bat edo beste). Aipatu beharrekoak dira, azkenik, urteroko biltzar nagusiak, eta ostean, kanpainak, azokak, ekintza zuzenak, festei lotutako egitasmoak eta beste.


¹⁵ Zehazki, hauxe izan zen galdera: «Zein esango zenuke dela urtean antolatzen duzuen jarduerarik inportanteena?»

Behin taldeen jarduera-antolaketaren maiztasunak eta ekintza nagusiak ezagututa, pandemiak horiengan izan duen eraginari ekingo diogu. Oro har, pandemia hasi zenetik, eta aurreikus zitekeen bezala, talde gehienek (bi herenek) ekintza gutxiago antolatu dute, edo zenbait kasu larriagotan, bat ere ez. Antzeko ekintza-kopurua mantendu dutela diotenez gain, deigarria da lehenago baino ekintza gehiago antolatu dituztela diotenen kopurua, % 11; agian, egoera berriak ekintzak ugaltzeko beharrezana sortu dielako (33. grafikoa).

33. grafikoa
Pandemiaren eragina ekintza/jarduera-kopuruan





34. grafikoa
Pandemiaren eragina ekintza/jarduera-kopuruan, eremuka



Iturria: guk egina. Galdera: eta pandemia hasi zenetik, esango zenuke antolatu dituzuela ekintza/jarduera...

Aurrekoari jarraikiz, mugimendu guztietan nabarmentzen da ekintzak gutxiagotu direla, baina ikusgarriagoa egiten da Ekologismoaren eremuan, zeinean hiru laurdenek jaitsera aitortzen baitu (34. grafikoa). Deigarria da datua, eta gogora dezagun, bestalde, pandemiak ez duela gehiegi eragin Ekologismoko taldeen tamainan (ik. 20. grafikoa). Zer gertatzen da? Eremu horretan antolatu ohi diren ekimenen izaeran pentsatu beharko litzateke, besteak beste, badirelako aire librean eta taldean antolatu ohi diren ekimen asko ere, eta hori izan daiteke arrazoietakoa bat eremu honetan era nabarmenago batez ekimen-kopurua jaisteko.

Bestalde, 35. grafikoan ikusiko dugunez, ekintza-kopuruaren jaitsierak ez die eragin proportzio berean taldeen urteko jarduerarik garrantzitsuenei; kasurik gehienetan (% 79) mantendu egin dira. Hori bai, hori lortzeko, zerbait moldatu behar izan dute gehienek ere (talde guztien % 59k). Azkenik, % 21ek ez du edo ezin izan du beretzat garrantzitsuena den jarduera hori burutu pandemiaren eraginez. Oro har, alde nabarmena dago ekintzen jaitsiera kopuru orokorrekiko, eta horrek erakusten digu taldeek nolako garrantzia ematen dieten ekintza jakin horiei, zailtasunak zailtasun eta egoera zailtan ere, jarduera horiek mantentzeko indarra atera dute eta.



Iturria: guk egin. Galdera: aurten antolatu duzue (urteko ekintzarik garrantzitsuena)?


Nola gertatu da hori aztertu dugun mugimendu bakoitzean? Datu-bilketa orokorrean bezala, eremu guztietan jarraitu dute urteko ekintza antolatzen, baina moldaturik. Zailtasunik handienak Ekologismoan eta Euskalgintzan gertatu omen dira, eta kontrako aldean, AMK-n talde guztiek jarraitu dute ekintzak antolatzen (36. grafikoa).

4.2.1. Pandemiaren eragina taldeen barne- eta kanpo-jardueretan

Pandemiak, bestalde, taldeen barne- eta kanpo-jardueretan eragina izan duela sumaturik, horretan ere sakondu nahi izan dugu. Barne- eta kanpo-jardueretan izandako eragina hobeto aztertzeko, bederatzi gairen inguruan galdetu genien taldeei: plataformetan parte hartzea; sentsibilizazio-kanpainak; asanbladak; koordinazio-bilerak beste taldeekin; barne-jarduerak; taldearen kohesioa lantzeko jarduerak; deialdiak eta mobilizazioak kalean edo espazio publikoan (elkarretaratzeak, manifestazioak, kazeroladak...); formakuntza-jarduerak; taldearen ekimenak kalean edo espazio publikoan (afariak, bazkariak, antzerkia...) (37-45. grafikoak).


37-45. grafikoak

Pandemiaren eragina taldeen barne- eta kanpo-mailako hainbat jardueratan, jardueren izaeraren eta formatuaren arabera




Iturria: guk egina. *Galdera:* maiztasun aldetik, nola eragin du pandemiak taldearen jardueretan?


41. grafikoa
Barne-jarduerak




42. grafikoa
Taldearen kohesioa lantzeko jarduerak




43. grafikoa
Deialdiak eta mobilizazioak kalean edo espazio publikoan (elkarretaratzeak, manifestazioak, kazeroladak...)



44. grafikoa
Formakuntza-jarduerak



45. grafikoa
Taldearen ekimenak kalean edo espazio publikoan (afariak, bazkariak, antzerkia...)



Iturria: guk egina. Galdera: maiztasun aldetik, nola eragin du pandemiak taldearen jardueretan?

Laburbilduz, zera esan daiteke:

- Kasurik gehienetan (8 galderatan) jarduerak maiztasun gutxiagorekin egin dira, edo bertan behera geratu dira zuzenean. Horietako kasu batean (*Taldearen ekimenak kalean edo espazio publikoan: afariak, bazkariak, antzerkia...*) gehienek diote jarduera bertan behera geratu zela. Oro har, kalean egin beharreko jardueretan maiztasun-jai-tsiera argia nabaritzen da.
- Gehienetan, taldeen heren edo laurden batek jarduerak maiztasun berdinarekin egiten jarraitu duela diote (asanbladak, adibidez). Baina, kasu batean (*Plataformetan parte hartzea*), erdi eta erdi dira maiztasun gutxiago adierazi dutenak eta berdin edo maiztasun handiagoa adierazi dutenak.
- Kasu guztietan ehuneko baxu batek (% 5-10 inguru) jarduerak maiztasun handiagoz egiteko modua egin du (% 15era ere heltzen da *Plataformetan parte hartzea* galderan).

Gai hauek gehiago zehazte aldera, esan dezagun hainbat talderen erantzun irekietan gure ustez esanguratsuak diren eta joerak identifikatzen lagun dezaketen zenbait ñabardura agertu direla. Esaterako, zenbaitek zehaztu du bilerak telematikoki egin ahal izateak horiek bideragarriago egin dituela bestelako zenbait jarduera baino. Era berean, beste talde batzuek zehaztu dute bilerak telematikoki egin badituzte ere, asko «kalitate gutxikoak» izan direla, berrin «motibazioak» baldintzatuta egon direlako. Hala, beste talde baten esanetan, jarduerak telematikoki burutu direnean, «eraginkortasuna» helburu gisa lehenestearen ondorioz, «mobilizazioak behar duen parte-hartze fisikoa alboratzeko» arriskua egon da. Amaitzeko, beste talde baten aburuz, etxeko konfinamendu orokorraren garaia amaitzean, kultur jarduerak arrakasta handia izan dute, hain zuzen, ekimen kultural kolektiboetan «parte hartzeko gogo handia» egon delako.

Taldeek antolatzen zituzten ekintza eta jardueretan (batez beste, hilabetero bat baino gehiago) modu desberdinean eragin du pandemiak. Aurreikus litekeen bezala, talde gehienek (bi herenek) ekintza gutxiago antolatu dute, edo are, bat bera ere ez dute antolatu (jai-tsiera oso nabarmena da Ekologismoa taldeetan). Bostetik batek eutsi ahal izan dio aurreko ekintza-kopuruari, eta % 11k, aldiz, ekintza gehiago antolatu dituela dio.

Ekintzak gutxiago egin badira ere, nabarmentzekoa da taldeek ahalegina egin dutela urteko jarduerarik garrantzitsuenari eusteko, eta kasurik gehienetan (% 79) mantendu egin dute, askotan (hiru laurdenetan) egoera berrira moldaturik izan bada ere. Antolatzeko zailtasunik handienak Ekologismoan eta Euskalgintzan gertatu dira.


Jarduerak maiztasun gutxiagoz egin dira ia beti, bereziki kalean egiten zirenak eta, bestalde, jardueraren bat areagotu denean, plataforma birtualen erabilera areagotzeko joera sumatu da.

4.3. Taldeen arteko harremanak. Pandemiaren eragina eta harreman berrietarako aukera

Ikerketan parte hartu duten talde gehienek harreman handia dute beste talde batzuekin: bai beren esparru geografikoan ari diren beste mugimendu batzuetako taldeekin (% 80,5), baita beren mugimenduan ari diren beste talde batzuekin ere (% 76,5). Ondorioz, datuak kontrako aldetik interpretatuta, gutxi dira harremanak beren esparru geografikoko taldeekin edo beren mugimenduko taldeekin bakarrik dituztenak. Horrez gain, erantzun duten taldeen herenak (% 36k) harremana du, orobat, mugimenduaren barruan goiko koordinazioa edo koordinazio orokorra duen talde batekin, sare edo egitura zabalagoen parte delako sarri (46. grafikoa).

46. grafikoa


Taldeek harremanak esparru geografikoko edo mugimendu bereko beste taldeekin



Iturria: guk egina. Galdera: eta, beste taldeekin dituzuen harreman horiek, zer eremutan gertatzen dira? Erantzun aukera anitza.

Harremanak zenbat talderekin zituzten jakin nahi genuen halaber. Talde gehienek, ia erdiak (% 47,5), bat-bederatzi bitarte talderekin du harremana. Beste laurden batek (% 27,5) hamar eta hemeretzi bitarte talderekin; eta azken laurdenak, berriz, 20tik gora talderekin dauzka harremanak (47. grafikoa). Dena den, kontuan har dezagun intentsitate-maila desberdinak izan ditzaketen harremanez eta askotariko elkarlanean ari garela.


47. grafikoa
Taldeen harremanak beste taldeekin. Harreman-kopurua




Iturria: guk egina. Galdera: urtean zenbat talderekin duzue harremana? Erantzun irekia, numerikoa.

Azkenik, hau dena eremuka aztertuta, ikusten dugu, oro har, Feminismoan, Ekologismoan eta AMKn 1-9 talderekin harremanetan egotea dela ohikoena, baina Euskalgintzan handitu egiten dela aukera hori, eta 1-29 talderekin izaten dela hartu-emana (48-51. grafikoak).

48. grafikoa
Taldeen harremanak beste taldeekin. Harreman-kopurua, Euskalgintzan




49. grafikoa
Taldeen harremanak beste taldeekin. Harreman-kopurua, Feminismoan




50. grafikoa

Taldeen harremanak beste taldeekin. Harreman-kopurua, Ekologismoan



51. grafikoa

Taldeen harremanak beste taldeekin. Harreman-kopurua, Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasunean




Iturria: guk egina. Galdera: urtean zenbat talderekin duzue harremana? Erantzun irekia, numerikoa.

Gauzak horrela, nola aldatu ditu pandemiak harreman horiek guztiak? Pandemiaren aurretik sortutako harremanei dagokienez ez da alde nabarmenik atzematen eremu geografiko bereko beste talde batzuekiko tratuan edo taldearen eremu politikoko beste talde batzuekiko tratuan (52. eta 53. grafikoak). Taldeen erdiek «intentsitate baxuagoarekin» mantendu dituzte, baina beste heren batek berdin mantendu dituela dio.


52. grafikoa

Taldeen harremanak pandemia garaian esparru geografiko bereko beste talde batzuekin



53. grafikoa


Taldeen harremanak pandemia garaian eremu politikoko beste talde batzuekin



Iturria: guk egina. Galdera: taldearen eremu politikoko beste talde batzuekin sortutako harremanak...

Arestian ikusi dugu nola pandemia garaian ekintza edo jarduera gutxiago burutu diren, baina, kasu honetan, harremanak zabaltzeko edo sendotzeko balio izan du pandemiak. Izan ere, taldeen erdiak baino gehiagok kanpoko harreman berriak sortu ditu pandemiak iraun duen bitartean (% 58,5) eta, horien artean, gehienek bi mailatan garatu dituzte; hau da, eremu geografiko bereko beste taldeekin zein beren jarduera-eremuko taldeekin. Gutxiago dira, beraz, garai honetan harreman berririk sortu ez dutenak (hamarretik lau) (54. grafikoa).

54. grafikoa
Taldeen kanpoko harreman berriak pandemia garaian



Iturria: guk egin. *Galdera:* pandemia garaian kanpoko harreman berriak sortu dituzue?

Aztertu ditugun taldeek harreman handia zuten inguruko edo eremu bereko beste taldeekin, eta pandemiak ez du eragin nabarmenik izan horretan, kasu gehienetan intentsitatea jaitsi bada ere. Aipatzekoa da, bestalde, taldeen erdiak baino gehiagok harreman berriak sortu izana.

4.4. Taldearen barne-antolaketarako komunikazioa: birtualtasunaren eraldaketak eta presentzialtasunaren politizazioa


Taldeen baitan, beren artean komunikatzeko moduetan askotariko aldaketak gertatu dira pandemiaren eraginez. Horretaz guztiaz zehaztapenak eman zitzaten, sei gai hauen gaineko galdera-sorta bat aurkeztu genien taldeei: aurrez aurreko asanbladak, pertsona-kopuru mugatuarekin; aurrez aurreko bilerak espazio publikoan; aurrez aurreko bilerak edo jarduerak beste talde edo erakunde batzuen lokaletan; mugikorretako mezularitza-aplikazioak; bilerak edo asanbladak online egiteko plataformak, eta etxeetan biltzea (55-60. grafikoak).

55-60. grafikoak

Taldearen barne-antolaketari begira erabilitako hainbat estrategia


55. grafikoa

Aurrez aurreko asanbladak, pertsona-kopuru mugatuarekin




56. grafikoa

Aurrez aurreko bilerak espazio publikoan




57. grafikoa

Aurrez aurreko bilerak/jarduerak beste talde/erakunde batzuen lokaletan




58. grafikoa

Mugikorretako mezularitza-aplikazioak




59. grafikoa

Bilerak edo asanbladak online egiteko plataformak



60. grafikoa

Etxeetan biltzea



Iturria: guk egina. Galdera: pandemian bizitza kolektiboari egindako murrizketak edo jarritako mugak kon-tuan hartuta, eta taldearen barne-antolaketari aurre egiteko, zer-nolako estrategiak erabili dira?

Inkestaren emaitzek adierazten dutena laburrean esanda:


- Gutxitan eutsi zaio lehengo jardunbideari. Asanbladak jende-kopuru mugatuarekin egin dira, eta bereziki mugikorretako mezularitza-aplikazioen bidez egin ahal izan dira.
- Ekimen askoren maiztasuna murriztu da, edo bertan behera geratu. Bilerarik egitekoan, espazio publikoan edo beste talde zein erakundeen lokaletan egin dira.
- Teknologia berriak gehiago erabiltzeko aukera zabaldu da: online plataformetan eta mugikorretako mezularitza-aplikazioetan hala gertatu da (azken horri dagokionez, % 48k dio lehen baino gehiago erabiltzen dituela). Eta % 45ek dio lehen aldiz erabili dituela helburu honekin.
- Batzuetan lehenengoz erabili dira formula berriak: % 45ek lehenengoz erabili ditu bilerak online egiteko plataformak.

Gutxiago egin dena baino, interesgarriagoa iruditzen zaigu gehiago erabili dena aztertzea. Esan dugunez, bilerak online egiteko plataformen edo mugikorretako mezularitza-aplikazioen kasua da. Erantzun irekietan, talderen batek zehaztu du koordinazio-kontuetarako ez dituztela mugikorretako mezularitza-aplikazioak baliatzen, horretarako posta baliatzen dutela, hautu gisa. Galdetegian ez dugu horretan sakondu, baina argi dago gizarte-mugimenduetan eztabaida sortzen duela gaiak, eta etorkizunean aztertu beharko da egungo testuinguruak sortu dituen aldaketei buruzko eztabaida horiek nola ari diren gertatzen.

Bestalde, aurrez aurreko harremanei dagokienez, oso mugatuta geratu dira, logikoa denez. Alabaina, presentzialtasunari garrantzia handia eman zaio, eta horretarako hainbat egokitzapen egin behar izan da. Era horretan, % 13,5ek bakarrik dio ez duela alternatibarik bilatu. Gehienek birtualtasuna lehenetsi dute harremanei eutsi ahal izateko (% 42,5); heren batek bestelako aurrez aurreko harremanak sortu ditu; eta lehen bezala gune presentzialak mantendu dituztela dio % 27k (61. grafikoa).

61. grafikoa


Taldeen aurrez aurreko harremanak pandemia garaian. Mugak eta aukera berriak



Iturria: guk egin. Galdera: aurrez aurreko harremanei dagokienez... Erantzun aukera anitza.

Oro har, birtualtasunak aldaketak ekarri ditu barne- zein kanpo-antolaketan. Horren aurrean taldeek zer pertzepzio zuten arakatu nahi izan dugu. Zehazki, birtualtasunak taldearen barne-komunikazioan eta harremanetan izan duen eraginari buruz galdetu diegu (erantzun-aukera bat baino gehiago onartzen zenez, erantzunen batura ez da 100) (62. grafikoa).

62. grafikoa
Taldeen aurrez aurreko harremanak pandemia garaian. Birtualtasunaren eragina



Iturria: guk egina. Galdera: talde barneko harremanetan, eta birtualtasunari dagokionez... Erantzun aukera anitza.

Emaitzei erreparatuta, argi ikusten da birtualtasunak eraldaketa ekarri duela: % 16,5ek bakarrik adierazi du ez duela kontuan hartu. Gainerako erantzunei dagokienez, badago proportzio esanguratsu bat (% 27) presentzialtasuna ordezkatu duela dioena, ustez zentzu negatiboan ulertuta; beste batzuek, aldiz, bide berriak ireki dituela diote, ikuspegi positiboarekin (% 41,5). Heren bati, gainera, praktikoa gertatu zaio, aurrez aurreko harremanekin osatu duela adierazi baitu.

Eremuka aztertuta ere, antzeko datuak agertzen zaizkigu. Nabarmentzekoa da, birtualtasunak presentzialtasuna ordezkatu duela dioen iritziari dagokionez, Euskalgintzari lotutako taldeek proportzio txikiagoan adierazi izana hori, eta beste alde batetik, harremanak erabat aldatu direla dioen iritziari dagokionez, Feminismoak eta AMKk proportzio handiagoan adierazi izana hori.

Pandemiak aldaketa asko ekarri ditu taldeek komunikatzeko eta harremanetarako zituzten moduetan. Aurrez aurreko bilerak espazio publikoetan edota lokaleetan egiteko ohitura gutxitu da, eta online bilerak/asanbladak egiteko plataformen erabilera igo da gehien, mugikorretako mezularitza-aplikazioekin batera.

Bestalde, aurrez aurreko harremanei dagokienez, taldeen erdiek baino gehiagok asko mugatu dituzte, horietako askok birtualtasuna lehenetsiz. Ia herenak bestelako aurrez aurreko harremanak sortu ditu, eta ia beste heren batek lehen bezala mantendu ditu gune presentzialak.

Presentzialtasunari hainbat egokitzapen eginda, garrantzia eman zaiola iradokitzen dute emaitzek. Hain zuzen, gehienek ustez, birtualtasunak ez du presentzialtasuna ordezkatu, nahiz eta birtualtasun horrek eraldaketak ekarri dituela pentsatu. Areago, batzuen ustez harremantzeko moduak erabat aldatu ditu, eta beste batzuen esanetan, harremantzeko bide berriak ere ireki ditu. Aurrez aurreko harremanei dagokienez, gehienek asko mugatu direla uste duten arren, herenak dio aurrez aurreko bestelako harreman berriak ere sortu dituela.

4.5. Pandemiaren eragina taldeen kanpo-komunikazioan

Ikusten ari garenez, pandemiak taldeetan eta taldeen arteko komunikazioan eragin du. Baina ez bakarrik horretan, kanpora begirako komunikazioan ere izan du islarik. Galdera zehatzak egin genizkien taldeei hainbat kontu argitzeko asmoz, eta hurrengo grafikoetan erantzunak xehatuko ditugu (63-68. grafikoak).


Emaitzei begiratuta, argi dago, oro har, komunikazio-kanal berriak gehiago erabiltzen direla. Oso nabaria da Telegram-en edo WhatsApp-en kasuan: lehenago asko erabiltzen ziren, baina orain gehiago edo askoz gehiago (hala dio % 53,5ek), eta neurri txikiagoan, gainerakoak ere (Facebook, Twitter, Instagram). Gutxi aldatu da egoera, ordea, webgune edo blogei dagokienez (zerbait handitu da horien erabilera), zailtasun handiagoa daukatelako, agian. Ohiko hedabideetan (komunikabide handiak edo tokikoak), hor ez dago aldaketa nabarmenik. Eta jaitsiera nabarmena dago kaleko espazio publikoen erabileran (% 52).

63-68. grafikoak

Pandemiaren eragina komunikazioaren hainbat arlotan


63. grafikoa

Telegram edo WhatsApp-eko taldeak




64. grafikoa

Komunikazioa espazio publikoan (pankartak, kartelak, agerraldiak, elkarretaratzeak...)




65. grafikoa

Sare sozialak (Facebook, Twitter, Instagram...)




66. grafikoa

Webgunea/bloga




67. grafikoa

Komunikabide handiak (iritzi-artikuluak, albisteak...)



68. grafikoa

Tokiko komunikabideak (herri-aldizkariak, tokiko irratiak eta telebistak...)




Iturria: guk egina. Galdera: nolako eragina izan du pandemiak erabiltzen dituzuen komunikazio-kanaletan?

Azkenik, komunikazioari dagokionez, taldeen aldarrikapenen ikusgarritasunaz galdetu diegu. Izan ere, mugimenduak saiatu dira pandemiak sortutako testuinguruan eztabaidak sus-tatzen, eta jakin nahi genuen zenbaterainoko aukera izan duten agenda politikoetan eragiteko edota beren kezkek ikusgarri egiteko (69. grafikoa). Jasotako erantzunei erreparatuz antzema-ten da haien aldarrikapenen ikusgarritasuna *gutxitu* edo *asko gutxitu* dela (guztira % 52). Tal-deen laurden batentzat (% 26), aldiz, *handitu* edo *asko handitu* da, eta beste zenbaitentzat (% 21,5), ez da aldaketarik izan.

69. grafikoa

Taldeen edo mugimenduen aldarrikapenek eta jarduerak pandemia garaian esfera publikoan izan duten ikusgarritasuna




Iturria: guk egina. Galdera: pandemia garaian, zure taldearen edo mugimenduaren aldarrikapenak eta jar-duerak esfera publikoan (kalea, sare sozialak, komunikabideak, politika...) eduki duen ikusgarritasuna. Nor-banakoek inkesta.

Taldeek gizarteari mezuak eta ekimenak helarazteko erabiltzen dituzten komuni-kazio-kanaletan ere eragin du pandemiak: sare sozialak eta komunikaziorako apli-kazioak (bereziki Telegram eta WhatsApp) gehiago erabili dira, eta ohiko hedabi-deak (bereziki kaleko jarduerak) nabarmen gutxiago.

Kolektibo hauek saiatu dira pandemiak sortutako testuinguruan eztabaidak sor-tzen, eragiten eta ikusgarri egiten, baina erdiak baino gehiagok uste du beren ikusgarritasuna gutxitu dela. Kontrara, beste laurden batek dio handitu egin dela.

4.6. Pandemia garaian euskarak komunikazioan izan duen presentzia

Komunikazioarekin jarraituko dugu, baina galdera espezifikoko batzuekin orain¹⁶: euskararekin lotutako galderak, alegia. Helburua pandemia garaian euskararen presentzia eta erabileraz aztertzea zen, eta horretarako ondoko bi galderak ikusiko ditugu (norbanakoen inkestatik ateratako datuak).



Iturria: guk egina. Galdera: euskararen presentzia kalean, karteletan, publizitatean, oharretan, sare sozialetan edo komunikabideetan aldatu egin da koronabirusaren eraginez? Norbanakoen inkesta.

70. grafikoa ikusten dugunez, pandemiak kalte egin dio euskararen presentziari: inkestatuen erdiak euskararen presentzia publikoa *gutxitu* edo *asko gutxitu* dela uste du. Hala ere, beste erdiak ez du uste egoera aldatu denik (galdera horretan esanguratsua da, bestalde, batzuek ez dutela jakin zer erantzun).


Zer aurkitzen dugu eremuka aztertuta? Espero izatekoa zenez (71. grafikoa), Euskalgintzan aritzen diren kideek presentzia *gutxitu* (edo *asko gutxitu*) dela azpimarratzen dute. Gainerakoek, aldiz, gehiago uste dute ez dela aldatu. Zalantza sortzen zaigu datu horiekin: Euskalgintzako taldeetan gehiegizko arduraz dago gaiarekiko, eta gainerakoek ez dute arazo berezirik ikusten, ala gainerakoek urrutitik ikusten dute arazoa eta ez dira jabetzen horren dimentsioaz eta ñabardurez? Ezin dugu ahaztu norbanakoen inkesta honi erantzun dioten gehienak euskaldunak izan direla.

Beste galdera bat egin genuen, konpromiso handiagokoa: ea pertsonalki zenbat erabili duten euskara pandemia garaian (72. grafikoa). Kasu gehienetan, gure inkestatuek esan dute euskarazko komunikabideak erabili dituztela pandemiaren inguruko informazioa jasotzeko, neurri batean gaztelaniarekin eta frantsesarekin batera.

¹⁶ Gogoratu, eremu batzuk hobeto aztertzeko, galdera espezifikoak egin ditugula batzuetan. Kasu honetan, Euskalgintza aztertu nahi genuen, baina galderak inkestatutako kide guztiei bideratu genizkien. Galdera espezifikoak testuan sakabanatuta daude, gaiaren arabera, baina gehienak 5. eta 6. ataletan sartu ditugu.

71. grafikoa


Euskararen presentzia komunikazioan pandemia garaian, eremuka



Iturria: guk egina. Galdera: euskararen presentzia kalean, karteletan, publizitatean, oharretan, sare sozialetan edo komunikabideetan aldatu egin da koronabirusaren eraginez? Norbanakoen inkesta.

72. grafikoa

Komunikazioaren arloan eta pandemia garaian, euskararen erabilera aktibisten partetik



Iturria: guk egina. Galdera: zer neurritan erabili dituzu euskarazko komunikabideak/sare sozialak COVID-19ari buruzko informazioa jasotzeko? Norbanakoen inkesta.

Pandemia garaian komunikazioan euskarak izan duen lekuari dagokionez ez da toz bat taldeetako inkestatuak: askorentzat, presentzia hori antzekoa izan da, eta beste askorentzat, aldiz, txikiagoa; Euskalgintzan ari diren kideentzat batez ere. Nolanahi ere, inkestatuen artean nagusi dira euskarazko komunikabideak erabili dituztenak. Norbanakoen inkestatik ateratako datu horietan nolabait islatzen da, batetik, aktibisten konpromisoa, eta, bestetik, euskarari dagokionez gizartean sumatu duten alboratzea.

4.7. Pandemiarekin batera sortutako finantziario-arazoak eta irtenbideak


Oro har, baliabide ekonomikoak ezinbestekoak dira edozein taldetan helburu kolektiboak lortzeko. 2020ko martxoaren erditik aurrera pandemiak osasun-egoera larria eragiteaz gain, hainbat arlo kaltetu ditu gure egunerokotasunean, aurreko puntuetan ikusi dugunez. Azterketa osoa egiteko, garrantzitsua iruditu zaigu ekonomikoki nola eragin duen ere jakitea. Zer motatako arazoak ekarri dizkie aztertzen ari garen lau herri-mugimenduei, zer kalte ekonomiko, eta horien aurrean zer irtenbide bilatu dute? Segidan, jasotako erantzunak azalduko ditugu.

Galderak formulatzerakoan, jakin nahi genuen, batetik, nolako eragina izan duen COVID-19aren etorrerak taldeen baliabide ekonomikoetan. Bestetik, interesatzen zaigu egoera berrian agertu diren zailtasunei aurre egiteko zer-nolako erantzunak artikulatu diren. Inkestak lagundu digu ikusten zeintzuk izan diren gure lau mugimenduen (Euskalgintza, Feminismoa, Ekologismoa, eta Antiarrazakeria–Migrazioak-Kulturartekotasuna) diru-iturri nagusiak, eta aldaketa garaia etorri denean, non egon diren arazoak, eta zer konponbide proposatu den. Azter ditzagun galderak eta erantzunak.


Galdera orokor batekin hasi ginen, ea COVID-19ak eraginik izan duen taldeen finantziario-bideetan (73. grafikoa). Aurreikus zitekeen bezala, pandemiak negatiboki eragin du, hala dio taldeen erdiak (% 49k), baina kontuan hartzekoa da multzo handi batek (% 43,5ek) eraginik ez duela izan aitortu duela.

Datu horiek bai geografikoki (herrialdez herrialde) bai eremuka (Euskalgintza, Feminismoa, Ekologismoa, AMK) gurutzatu ditugunean, ez dugu desberdintasun nabarmenik aurkitu. Oro har, datuak antzerakoak dira esparru eta eremu guztietan. Salbuespen edo datu esanguratsuren bat aipatzearen, esan dezagun Euskalgintzako taldeek besteek baino balorazioa negatiboagoa egin dutela, eta AMKko kolektiboek ez dutela aldaketa handirik sumatu (74. grafikoa).

73. grafikoa
Taldeen finantziazio-bideak. COVID-19aren eragina




74. grafikoa
Taldeen finantziazio-bideak. COVID-19aren eragina, eremuka



Iturria: guk egina. Galdera: COVID-19aren aurrean hartu diren neurriek taldearen finantziazio-bideetan eragin dute?

Egoera horren aurrean, zer egin dute aztertu ditugun taldeek? Nola erantzun dute? (75. grafikoa). Aurretik, deigarria da batzuek —bostetik batek— ez dakitela edo ez dutela erantzun nahi adieraztea. Gai delikatua delako agian, edo erantzuleak ez zeukalako nahikoa informazio gaiaren inguruan. Erantzun dutenen artean ahal izan dena egin dela ikusten da: ia bi herenek (% 63,5ek), mugak aitortuta, ohiko bideei eutsi nahi izan diete, berrikuntza gehiagorik gabe; berrikuntzen bidean saiatu da, ordea, laurden bat (% 27). Aukera gehiago izan ditzutelako, edo egoera larriagoa zelako, agian?


75. grafikoa
Taldeen finantziazio-bideak. Arazoen aurreko jarrera



Iturria: guk egina. Galdera: eta nola egin diozue aurre?

Osatu dezagun informazioa datuak eremuka aztertuta (76. grafikoa). Ikusten denez, ez dago desberdintasun handirik eremuen artean. Zerbait azpimarratzekotan, Ekologismoak eta Feminismoak gehiago eutsi diete ohiko finantziazio-bideei, eta AMKk eta bereziki Euskalgintzak joera handiagoa erakutsi dute bide berrietara jotzeko.

76. grafikoa
Taldeen finantziazio bideak. Arazoen aurreko jarrera, eremuka



Iturria: guk egina. Galdera: eta nola egin diozue aurre?

Zergatik izan dira berrikuntzak kasu batzuetan, eta beste batzuetan ez? Aukera desberdinak daude. Oro har, kontuan har dezagun pandemia-egoerak nola eragin duen ekintzen jaitzieran (ik. gorago aztertu dugun 4.2. atala). Ikusi dugunez, talde gehienek ekintza gutxiago antolatu dute, eta hainbatek ez du inolako ekintzarik antolatu. Are gehiago, norbanakoen inkestan ageri da nola pandemia garaian aktibisten parte-hartzea jaitzi den inkestari erantzun diotenen bi herenen arabera. Hala eta guztiz ere, batzuek ekintzak eta parte-hartzea bera areagotu dituztela ikusi dugu. Ba ote dauka horrek guztiak harremanik finantziatorako bide berriak jorratzearekin edo ez jorratzearekin? Bi bide horiekin jarraituko dugu hurrengo lerrootan.

Hel diezaiegun taldeek lehen baliatzen zituzten ohiko finantziario-bideei, pandemia garaian nola aldatu diren ikusteko (77. grafikoa). Galdetegiaren erantzunei erreparatuz, datu interesgarria ateratzen da lehenik eta behin: aztertu ditugun talde gehienek finantziario edo diru-iturri bat baino gehiago daukate, eta hori bermea da egoera ekonomiko larri edo kas-karretan jarduerak sostengatu ahal izateko. Instituzioen diru-laguntzak dira garrantzitsuenak, baina horrekin batera materialen salmentak, kuotak eta dohaintzak ere agertzen dira.

Zehaztapenetan sartuta, gure taldeek instituzio publikoetan daukate iturri nagusietako bat, eta taldeen % 45ek aitortzen du bide hori mugatuta geratu dela, egin eta justifikatu beharreko ekintzei edo proiektuei lotua zegoelako agian. Horrez gain, grafikoan zerrenda luzea ikus daiteke, proportzio desberdinetan, kaltetuta geratu diren finantza-bideekin.

Eta zer gertatu da finantziarioan bilatu diren bide berriekin? Ikusi dugunez, hori da ikerketako taldeen laurden baten kasua. Bide berriak urratu behar izan dituzte finantziarioa lortzeko ahaleginean, eta agian ez soilik diru-bilketa handitzeko, baizik eta aktibismoa eta gizartearekiko harremanak mantentzeko eta indartzeko ere, kalean eta espazio publikoetan topatzen baitituzte finantziario-iturriak modu nabarmenean.


78. grafikoan pandemiaren ondorioak jasotzen dituen egoera ikus daiteke. Utz dezagun alde batera alde handiz bigarren postuan dagoen ohiko finantziario-bidea, eta errepara diezaiegun hortik aurrera daudenei. Noski, lehenago ikusi dugunez, pandemiak iturri guztiak kaltetu ditu, baina egoera berrian, kalean egiten diren jarduerak (txosnak, jaiak, boletoen salmenta, manifestazioetan dirua eskatzea...) nabarmen jaitzi dira, eta grafikoaren zerrendan beheko aldean agertzen dira. Aldiz, online kudeatu daitezkeen finantziario-modu berriek hobeto eutsi diote egoerari eta grafikoaren goiko aldean agertzen dira (materialen salmentak, kuotak, crowdfunding-ak, diru-laguntzak eta abar). Kalean eta espazio publikoan ekitaldirik ezin egiteak norabide desberdinak aztertzea ekarri du, bai eta egoerari irtenbidea emateko formula berriak ere.

Aztertu ditugun lau eremuek diru-iturri bat baino gehiago erabiltzen zuten beren ekonomia bermatzeko, eta hori onuragarria suertatu zaie pandemia garaian: taldeen erdiak pandemiak eragin diela dio, eta ia beste erdiak, berriz, ezetz. Proportzioan, Euskalgintzari gehiago eragin dio. Finantziario biderik kaltetuenak kalekoak izan dira, eta online kudeatu zitezkeenek, aldiz, hobeto eutsi diote larrialdiari.

Egoera berriaren aurrean, aurreko bideei eusten saiatu dira taldeak, baina laurden batek bide berriei heldu die, agian horrekin batera, aktibismoa bera mantentzeko helburuz.

77. grafikoa


Taldeen finantziazio-bideak. Ohiko bideen erabilera pandemia garaian



Iturria: guk egina. Galdera: honako finantziazio-bide hauek izan dira nagusi gure taldean, eta hartutako neurrien ondorioz mugatu zaizkigu... Erantzun aukera anitza.

78. grafikoa

Taldeen finantziazio-bideak. Finantziazio-bide berrien erabilera pandemia garaian



Iturria: guk egina. Galdera: bestelako finantziazio-bideak landu dituzue edo lehen erabiltzen ez zenituzte-nak erabili dituzue? Zeintzuk? Erantzun aukera anitza.


4.8. Pandemia garaian Administrazioak hartutako neurrien aurreko jarrerak

Hasi aurretik, onar dezagun *Administrazioa* oso kontzeptu zabala dela: udal mailatik hasi eta Nazio Batuen Erakundera edo Munduko Osasun Erakundera heltzen da, eta barnean hartzen ditu, orobat, Europar Batasuna, Espainiako eta Frantziako gobernuak, ministerioak, kontseiluak eta gobernu autonomikoak. Instituzio horiek guztiak pandemia garaian hartu dituzten neurriak *Administrazioarenak* izan dira. Berdin gerta daiteke *bertsio ofiziala* adierarekin.

Atal honetan, Administrazio Publikoak pandemia garaian hartutako neurriak baloratu zituzten gizarte-mugimenduek. Gaiak duen konplexutasunari aurre egiteko gutxiegi izan badaiteke ere, lau galdera egin genizkien taldeei. Erantzunetan, taldeen barruan izan zituzten eztabaidak eta hartutako neurri propioak ebaluatu zituzten, eskubideei dagokienez gertatu diren murrizketak baloratu, eta, azkenik, birusaren existentziaren *bertsio ofiziala* ukatu duten taldeekin izandako harremanez ere beren iritzia eman ziguten.


79. grafikoa

Taldeen jarrera Administrazioak pandemia garaian hartu dituen neurrien aurrean



80. grafikoa

Taldeen jarrera Administrazioak pandemia garaian hartu dituen neurrien aurrean, eremuka



Iturria: guk egina. Galdera: zer jarrera erakutsi du zure taldeak Administrazioak hartu dituen neurrien aurrean? Erantzun aukera anitza.


Lehenengo galderan Administrazio Publikoak pandemia garaian hartu dituen neurrien aurreko jarrera baloratzea eskatu genien taldeei (79. grafikoa). Oro har, errespetuzko jarrera nagusitu dela esan daiteke: ia bi herenek (% 60k) *jarrera ulerkorra* izan dute, edo *ontzat hartu ditu* neurriak. Taldeen ia beste heren bat (% 30,5), ordea, hartutako neurrien kontra agertu da, eskubide asko kolokan geratu dira eta.

Galdera bera nola baloratu dute aztertutako lau eremuetan? Ez dago alde handirik, eta babesa nagusitu da gehienetan (proportzioan, apur bat gehiago Euskalgintzan). Feminismoa salbuespena da. Kasu honetan nahiko parekatuta agertzen dira jarrera nagusi biak, baina gehiago egon dira kontra, eskubide asko urratzen zirelakoan (80. grafikoa).

Bigarren galderan, Administrazioak hartutako neurriak baloratzeaz gain, neurri propioak hartzeko gai izan ote ziren ere galdetu genuen (81. grafikoa). Erantzunei erreparatuz, nabaria da gaiaren garrantzia, talde gehienetan (hiru laurdenetan) aitortzen baita lekua egin zaiola eztabaidari. Horrez gain, eztabaidatu edo ez, % 45ek zuzenean neurriak bete ditu. Gaiarekin jarraituta, talde askok, (% 42,5ek) eztabaidatu, eta neurri propioak hartzea adostu du (aintzat hartzekoa da beste % 5,5ek, eztabaidatu arren, ez duela neurririk adostu). Informazioa osatzeko, talde gutxi batzuek (% 6,5ek) ez dute horretaz eztabaidatu, ezta neurriak bete ere. Ikusten dugunez, gaiaren aurrean iritzi eta jarrera desberdinak azaldu dira. Eremuka aztertuta, ez dago aldaketa agerikorik, baina aipatzekoa da azken aukera (*ez dute eztabaidatu, ezta bete ere*) neurri handiagoan jarraitu dela Euskalgintzan eta Feminismoan.

81. grafikoa

Administrazioak pandemia garaian hartu dituen neurrien balorazioa, eta taldeek landu dituzten neurri propioak




Iturria: guk egina. Galdera: zuen taldean, Administrazioek jarritako neurriak eztabaidagai izan dituzue, eta zuen artean neurri propioak adostu dituzue? Erantzun aukera anitza.

Hirugarren galderak gatazka sortu duen gai bat azaldu nahi zuen: pandemiari lotutako neurriak eta eskubide zibilen urraketa, alegia. Gaia agerikoa izan da gizarte-mugimenduetan, eta eztabaida piztu du. Era horretan, taldeen erdiak dio gaia landu duela, eta beste erdiak ez duela landu (82. grafikoa). Hala ere, lanketaren gauzaperari helduta, gaia aintzat dutenen artean, erdiak baino gehiagok ez du praktkarik bideratu. Hau da, talde guztietatik % 30ek dio eztabaidatu bai, baina praktikan ez duela neurririk proposatu; eta % 22k (talde guztiak aintzat hartuta, bostetik batek) gaia landu, eta praktika desobedientea proposatu du.


82. grafikoa

Taldeen jarrera Administrazioak pandemia garaian hartu dituen neurrien aurrean. Eskubide zibilen urraketaren gaia



83. grafikoa

Taldeen jarrera Administrazioak pandemia garaian hartu dituen neurrien aurrean. Eskubide zibilen urraketaren gaia, eremuka




Iturria: guk egina. Galdera: eskubide zibilak mugatzen dituzten neurriei aurre egiteko bideak landu dituzue?

Nola bizi izan da eztabaida hori eremuka? 83. grafikoa ikusten dugunez, Feminismoan eta AMKn landu da gehien, eta oso gutxi, aldiz, Euskalgintzan (eta ez gehiegi Ekologismoan). Praktika desobedientearen proposamena, azkenik, indartsua izan da AMKn, eta maila apalagoan Feminismoan.

Atal honekin bukatzeko, laugarren galdera bat egin genuen, birusaren existentziari buruzko zalantzen aurrean taldeek zeukaten jarrera ezagutzeko asmoz (84. grafikoa). Gai gatazkatsua izan da, baina erantzunek argi diote inkestan parte hartu duten taldeek ez diotela tarte berezirik eskaini: taldeen hiru laurdenek hala esaten dute. Taldeen % 11k bakarrik hartu du aintzat (eta beste % 15,5ek ere, baina espazio informaletan landu dute).

84. grafikoa
Taldeen jarrera pandemia garaian. Birusaren existentziari buruzko zalantzak



Iturria: guk egina. Galdera: pandemia garaian birusaren existentziari buruzko bertsio ofiziala kolokan jar-tzen duten taldeak eta mobilizazioak antolatu dira, eta zuen jardunean...

Pandemia garaian Administrazio Publikoek hartutako neurrien aurrean onespengradu altua adierazi dute mugimenduek (bi heren). Feminismoko taldeek kontraktasun handiagoa erakutsi dute.

Talde gehienetan, hiru laurdenetan, eztabaidatu egin da neurrien gainean, eta askotan neurri propioak hartu dira. Taldeen erdiak, bestalde, beste eztabaida bat ere landu du, eskubide zibilen mugaketarena. Gehienek ez dute praktkarik bideratu, baina batzuek (talde guztietatik % 22k) gaia landu eta praktika desobedientea proposatu dute.

5

Mugimenduak elkarri eraginez

Julen Zabalo Bilbao eta Iñaki Barcena Hinojal

Taldeak ez daude bakaturik, ez dira haien arloaz bakarrik arduratzen. Halaber, gizartean zabaltzen diren pentsaerek eragina dute haietan, neurri desberdinean bada ere. Are gehiago, ikusi dugunez, gizarte-mugimenduetako ekintzaileak talde eta/edo mugimendu batean baino gehiagotan aritzen dira, eta ezinbestean elkarren eragina jasotzen dute. Gure lanean bertan ikusi dugu nola azken hamarkadan, eta pandemian bertan, sortzen ari den talde bat baino gehiago ez den mugatzen eremu bakar batera. Eta ezagunak dira, bestalde, joera berriak: ekofeminismoa, euskara ezinbesteko elementu gisa hartzea, eta abar. Zer puntutaraino gertatzen da hori? Berdin zabaltzen dira mugimendu guztietako ideiak?

Horretaz guztiaz jardun nahi izan dugu atal honetan. Zehazki, Feminismoak, Ekologismoak eta Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasunak aztertzen ari garen lau eremuetan zer eragin duten neurtu nahi izan dugu¹⁷. Eragina maila desberdinetan ager daiteke, jakina, eta horregatik hainbat arloren inguruan galdetu diegu inkestatuei: batzuetan maila teorikoa goa daukate —ideien esparrua—, eta beste batzuetan, berriz, praktikoagoa: jokatzeko moduak. Eta ikerketa honetan, ezinbestean, pandemiaren aurreko eta osteko egoerak erkatu ditugu batzuetan.

5.1. Feminismoaren eragina gizarte-mugimenduetan

Gaur egun ikuspegi feministak eragina du gizarte-gaietan, eta eragin are nabariagoa gizarte-mugimenduetan. Klean presente dago etengabe: berdintasunaren aldeko jarduerak, indarkeria matxistaren kontrako salaketak eta mobilizazioak, zaintza beste modu batera antolatu beharra, eta abar. Eta gizarte-mugimenduek bat egiten dute pentsaera horrekin, baita garatu ere, ekarpen propioak landuta. Izan ere, ez da zehatza gainerako mugimenduetako ekintzaileek feminismoaren eragina jasotzen dutela esatea, ekintzaile horiek berak feministak baitira maiz. Ezin argiago geratu da hori AMKren kasuan, taldeen erdiak beren burua feministatzat jotzen dute eta, esan dugunez. Datuetan nabaria izango da hurbiltasun hori.


¹⁷ Ez dugu zuzenean galdetu Euskalgintzak duen eraginaz; bai, ordea, pandemia-garaiko komunikazioari lotuta, adibidez (ik. 4.6. atala).

Nola eragiten du feminismoak aztertu ditugun eremuetan? Taldeen jardueraren lau arlo bereizi, eta horietan zer eragin zuen aztertu genuen. Honako hauek dira aztertutako arloak: diskurtsoak eta aldarrikapenak, kanpo-komunikazioa, beste taldeekiko harremanak eta taldea antolatze moduak.

Har dezagun ideia orokor bat inkestatu guztien erantzunak batera bilduta, eremuka bereizi aurretik (85-88. grafikoak). Desberdintasunak hobeto atzemateko, lau galderak batera ikusiko ditugu.

85-88. grafikoak

Ikuspegi feministaren eragina taldeen jardueran



Iturria: guk egina. Galdera: nolako eragina du ikuspegi feministak... ?


Oro har, eragin handia duela ikusten da arlo guztietan. Izan ere, *eragin handia* eta *erabat zentrala* aukerak batzen baditugu, kasu guztietan erdia baino gehiago dira, eta bi kasutan (taldearen diskurtso eta aldarrikapenak, % 63,5; eta kanpoko komunikazio moduetan, % 65) bi heren hartzen dituzte.

Beste alde batetik, eragin handia aitortuta ere, taldea antolatze moduetan eraginik txikiena adierazten da (% 18k eraginik ez duela dio), izaera teknikoagoa daukalako agian. Erdian, *eragin ertaina* (% 30,5) aitortzen zaio ikuspegi feministari taldeen arteko harremanetan.

Ikuspegi orokorra aztertuta, eremuka hartuko ditugu orain emaitzak. Pentsa dezakeguenez, ikuspegi feministak Feminismoaren eremuan edukiko du eraginik handiena. Baina besteetan? Zer esan daiteke hurrengo grafikoei erreparatuta? (89-92. grafikoak).

Talde feministek, batez ere, baina baita AMKkoek ere eragin *handia edo erabatekoa* aitorzen diote Feminismoari, oro har. Talde ekologistek eta Euskalgintzakoek, aldiz, zerbait gutxiago baloratzen dute, eta eragin *handia edo ertaina* aitorzen diote, oro har. Denak hartuta, eraginik apalena taldea antolatzeko moduetan agertzen da, kontu praktikoagoak direlakoan, agian.

89-92. grafikoak
Ikuspegi feministaren eragina, laburbilduz



Iturria: guk egina. Galdera: nolako eragina du ikuspegi feministak zure... ?

Ora in, laburbildu dezagun informazio guztia, eremuka. Hasieran esan dugu, datu guztiak batura, ikuspegi feministak eragin handia zuela aztertutako lau eremuetan. Eragin hori zentrala da Feminismoan, zer esanik ez, eta ñabardura gehiago dauzka gainerako hiru eremuetan (93-95. grafikoak). Kasu hauetan graduazio bat nabaritzen da, aurreko lau galderetan ikusi ahal izan dugunez.


Oro har, eragin handia du hiru eremuetan, baina nabariagoa AMKn, eragin handia edo erabat zentrala aitortzen diote eta. Euskaingintzan, berriz, eragin handia edo ertaina nagusitzen dira. Eta Ekologismoan ere eragin handia edo ertaina aitortzen diote, baina eragin txikia ere presente dago.

93-95. grafikoak

Ikuspegi feministaren eragina taldeen jardunean, eremuka laburbildurik


93. grafikoa

Euskaingintzan




94. grafikoa

Ekologismoaren eremuan



95. grafikoa

Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasunaren eremuan



■ Erabat zentrala da ■ Eragin handia du ■ Eragin ertaina du ■ Eragin txikia du ■ Ez du eraginik

Iturria: guk egina. Galdera: nolako eragina du ikuspegi feministak zure...

5.1.1. *Feminismoaren eragina pandemia garaian*

Pandemia-egoerak baldintzatu ote du ikuspegi feministaren eragina? Galdera horren bidez, aurreko puntuetan azaldutako gaietan zenbateraino eragin duen neurtu nahi izan dugu (96-99. grafikoak).

96-99. grafikoak

Aldaketak ikuspegi feministaren eraginean pandemia garaian, eremuka



Iturria: guk egina. Galdera: pandemia garaiak aldaketak ekarri ditu, besteak beste, denboraren eta espazioen kudeaketari dagokionez. Aldaketa horiek baldintzatu al dute ikuspegi feministak zure taldearen jardunean duen eragina?

Talde gehienek, eremu guztiak aintzat hartuta, ez dute aldaketarik sumatu: antzeko erantzunak errepikatzen dira lau galderetan. Hori da, alde handiz, erantzun nagusia. Ondoren, eta askoz gutxiago izan arren, batzuek diote ikuspegi horrek eragin handiagoa duela orain, Femenismoan eta AMKn batez ere.

Nola eragiten du ikuspegi feministak oinarritzat hartu ditugun lau eremuetan? Oro har, *eragin handia* aitortzen diote lau eremuek. Banaka hartuta, talde feministentzat zentrala da ikuspegi feministaren eragina, pentsazekoa zenez. Gainerako hiru eremuetan eragin handia du, Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasunean ari diren taldeetan batez ere. Euskalgintzan eta Ekologismoan zerbait apalagoa omen da eragina: *handia* edo *ertaina*, oro har.

Pandemiak nola eragin duen galdetuta, talde gehienek, eremu guztietan, aldaketarik ez dutela somatu diote.

5.2. Ekologismoaren eragina gizarte-mugimenduetan


Gaur egun, gertaera eta inplikazio askoren poderioz hurbiltzen dira herritarrak ekologismoaren eremura: klima-aldaketa, energia-iturrien inguruko zalantzak, elikadura eta kontsumo-ohiturak, besteak beste. Gai horien gainean ekologismoak egiten dituen interpretazioak eta jakinarazpenak asko zabaldu dira azken urteotan, gaiak munduko agendan duen garrantziaren seinale. Gizarte-mugimenduetan ere nabaritzen da eragina. Ekologismoaren lehengo ildo klasikoa eguneratuta, talde berriak ugaltu dira, eta feminismoan gertatzen den bezala, eremu batean baino gehiagotan sailka daitezke talde horiek.

Ikuspegi ekologistaren eragina aztertzeko —eta feminismoarekin egin antzera—, taldeen jardueraren lau arlo bereizi genituen: diskurtsoak eta aldarrikapenak, taldearen lan-jarduna, taldeak beste batzuekin dituen harremanak eta barne-mailako helburu zehatzak.

Idea orokor bat izateko, galdera bakoitzeko erantzun guztiak batuko ditugu, eremuka bereizi gabe (100-104. grafikoak).

100-103. grafikoa

Ikuspegi ekologistaren eragina taldeen jardueran




Iturria: guk egina. Galdera: pandemia aurretik zer-nolako eragina zuen ikuspegi ekologistak zuen lan-jardunean? Barne-mailako helburu zehatzetan.

Oro har, eragin handia duela ikusten da, arlo guztietan. Zehatzago, hiru zati egin litezke, gutxi gorabehera. Lehenengo multzoan *eragin handia* eta *oso handia*: biak batuta, % 40tik gora beti (*Barne mailako helburu zehatzetan* batez ere: erdia baino gehiago baita). Bigarren multzoan, aldiz, *eragin ertaina* aitortzen diotenen kopurua ere esanguratsua da, % 30 ingurukoa (*Barne mailako helburu zehatzetan* gutxiago). Eta hirugarren multzoan, azkenik, *eragin txikia* edo *oso txikiaren* pisua % 20tik gorakoa da (% 30era heltzen da *Beste batzuekiko harremanetan*).


Ikuspegi orokorraren ostean, jarrai dezagun orain eremuka nola erantzun duten aztertzen (104-107. grafikoa). Graduazio bat ikus daiteke: Ekologismoan argia da erantzuna: *oso handia* eta *handia* (% 80ra heltzen dira); AMKn eragin *ertaina* eta *handia* dira nagusi; Feminismoak eta Euskalgintzak, azkenik, antzeko soslaiak erakusten dute: *eragin ertaina* da nagusi, eta ondoren *eragin handia* eta batzuetan *eragin txikia* datoz. Datu modura, barne-mailako helburu zehatzetan besteetan baino eragin handiagoa nabaritzen da. 104-107 batera

104-107. grafikoak
Ikuspegi ekologistaren eragina...


104. grafikoa
Taldeen diskurtso eta aldarrikapenetan, eremuka




105. grafikoa
Taldearen lan-jardunean, eremuka



106. grafikoa
Beste taldeekiko harremanetan, eremuka



107. grafikoa
Barne-mailako helburu zehatzetan, eremuka



■ Oso txikia ■ Txikia ■ Ertaina ■ Handia ■ Oso handia

Iturria: guk egina. Galdera: pandemia aurretik zer-nolako eragina zuen ikuspegi ekologistak zuen lan-jardunean? Barne-mailako helburu zehatzetan.


Berrikus dezagun, laburtzeko asmoz, eremuen arabera zer erantzun izan den aurkeztutako lau gaietan (108-110. grafikoak). Ekologismoa alde batera utziko dugu oraingoan, bere jarduerari aitortzen dion eragin handia gogoratuta. Zer gertatzen da, ordea, gainerako hiru eremuetan?

Oro har, eragin ertaina/handia duela esan dezakegu: Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasunean nabariagoa da eragina (*Barne-mailako helburu zehatzetan* batez ere), eta Feminismoan eta Euskalgintzan, aldiz, argiagoa da eragin ertaina, batez ere *Taldearen lan-jardunean*.


108-110. grafikoak

Ikuspegi ekologistaren eragina taldeen jardunean, eremuka laburbildurik


108. grafikoa
Euskalgintzan



109. grafikoa
Feminismoaren eremuan



110. grafikoa
Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasunaren eremuan




■ Oso txikia ■ Txikia ■ Ertaina ■ Handia ■ Oso handia

Iturria: guk egina. Galdera: pandemia aurretik zer-nolako eragina zuen ikuspegi ekologistak zuen...

Zer gertatu da pandemian? Azken urteetan ekologismotik datozen gai batzuekiko kezka handitzen ari da gizartean (elikadura-burujabetza edo trantsizio ekologikoa, adibidez), eta esan liteke pandemia garaian areagotu egin dela joera hori. Nola erantzun dute gizarte-mugimenduek? Ikuspegi ekologistaren presentzia mantendu da, ala zerbait aldatu da? Ikus dezagun 111. grafikoa.

Talde ekologistetan gai horien presentzia nabaria da, zer esanik ez. Gainerako taldeetan, berriro ere, AMK arloko taldeak nabarmentzen dira gai ekologistekiko hurbiltasunari dagokionez. % 35ek, adibidez, aitortzen du *Bileretan eta lan-jardunean* presentzia izan dutela (beste horrenbestek *Zeharka landu* dutela dio). Euskalgintzako taldeetan tarterik eskaini ez dieten multzorik handiena dago (% 36,5), baina baiezkoan dagoen multzoa ere handia da, eta txikia, aldiz, zeharka landu dutenen kopurua. Talde feministen kasuan, aldiz, *Zeharka landu* dutenen kopurua handia da (% 31), eta berdina *Tarterik eskaini* ez dietenena.

111. grafikoa
Gai ekologisten presentzia taldeen jardunean, eremuka




Iturria: guk egina. *Galdera:* pandemia hasi denetik krisi ekologikoarekin zerikusia duten gaiak (trantsizio ekologikoa, bioaniztasunaren galera, elikadura-burujabetza eta abar) presentzia izan dute gure jardunean. Erantzun aukera anitza.

Amaitzeko, pandemia garaiarekin jarraituz, mugimendu ekologistarekin izandako harremanetan nola eragin duen aztertu dugu halaber. Ekologismoarekin lotutako gaiak protagonismo gehiago hartzen ari badira, aldatu eta areagotu egin al dira gizarte-mugimenduek talde ekologistekin dituzten harremanak? 112. grafikoan ikusten denez, ekologismoak gero eta gehiago eragiten du gainerako mugimenduetan, eta horrek beren arteko loturak sendotzea ekarri du. Era horretan, aztertutako mugimenduen % 40,5ek pandemiaren aurretik ere bazuen loturarik talde ekologistekin, baina orain erdia baino gehiago da kopurua, aurrekoari *harreman berri asko* eta *harreman berri batzuk* batuta (% 59 guztira). Gainerako taldeek (% 40,5ek) aurretik ez zeukaten harremanik, eta berdin jarraitzen dutela diote.


112. grafikoa

Mugimendu ekologistarekiko harremana pandemia garaitik aurrera



113. grafikoa

Mugimendu ekologistarekiko harremana pandemia garaitik aurrera, eremuka (%)



Iturria: guk egina. Galdera: pandemiaren garaian mugimendu ekologistarekin harremana nola aldatu da, zure ustez?

Nola ulertzen da hori eremuka aztertuta? (113. grafikoa) Talde ekologisten artean nabaria da aldaketa: % 42,5ek *harreman berriak* (batzuk edo asko, biak batuta) egin dituztela diote (eta % 57k aurretik bazituen eta mantendu egin ditu). Gainerakoen artean ere handitu egin da harremana. Feminismoan eta Euskalgintzan aurretik harreman txikia zegoen eta horrela jarrai-

tzen dute askok, baina harreman berriak ere sortu dira (% 17 talde feministetan; % 15 Euskalgintzakoetan), gehi aurretik sortu eta mantendu direnak. AMKn, azkenik, aurretik harreman gehiago zegoen Feminismoan eta Euskalgintzan baino, eta horrela mantendu dira. Baina, horrez gain, % 21,5ek dio harreman berriak landu direla.

Zer eragin aitortzen diote ikuspegi ekologistari bereizi ditugun lau eremuek? Oro har, eragin *handia* eta batzuetan *ertaina* duela diote. Banaka hartzen baditugu, eragina *oso handia* da talde ekologistentzat; *handia* edo *ertaina* Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasun taldeentzat; eta *ertaina* Euskalgintzako eta Feminismoko taldeentzat.

Pandemia garaian, gai ekologisten inguruan galdeturik, talde ekologistek presente izan dituzte gai horiek eta modu aktiboan erantzun dutela esan dute; gainerakoetan, aldiz, presentzia ertaina egon dela esan daiteke (gehiago Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasun taldeetan). Pandemian talde ekologistekin izandako harremanei buruz galdeturik, areagotu egin direla diote lau eremuek, aurretik zeudenez gain, harreman berriak landu dira eta.

5.3. Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasunaren eragina gizarte-mugimenduetan

Jendea etengabe aldatzen eta mugitzen ari den mundu honetan lehenago ere agertzen ziren hainbat dinamika biderkatu egin dira orain. Migrazioak beti existitu dira, eta batzuetan bestelako arazorik gabe gertatu dira, baina beste batzuetan gatazka-iturri izan dira. Gatazka horiek gai konplexu asko ipintzen dituzte mahai gaineen: taldearen egonkortasuna eta xenofobia, elkartasuna, egokitzapena, edo kultur eskubideak, esaterako. Gai horien inguruko sare solidarioak aspalditik existitzen dira gizarte-mugimenduetan, baina gaiak garrantzi gehiago hartu ahala, taldeak ere ugaltu dira.


Edonola ere, zaila da eremua definitzea. Ekologismoarekin eta Feminismoarekin alderatuta, ez dauka ardatz nagusi modura eragiten duen aztergai zentral bat. Jarri diogun izenak berak interes aniztasuna erakusten digu, gaurkotasan handia duen arren, eta lantzen diren gai horiek garrantzi handia dutela igartzen da, esan dugun moduan. Beraz, Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekoasunaren eragina aztertzeko, atal desberdinei erreparatuko diegu, egoniko galderen arabera.

Bost galdera izan ziren kasu honetan, bost arlotan sakontzeko asmotan: Diskurtsoak eta aldarrikapenak, Taldearen lan-jarduna, Taldeak beste batzuekin dituen harremanak, Kanpokomunikazioa, eta Barne-mailako helburu zehatzak

Hasteko, eta ideia orokor bat izateko asmoz, galdera eta taldeen erantzun guztiak ikusiko ditugu, eremuka bereizi gabe (114-118. grafikoak). Oro har, eragin *ertaina* islatzen da (kasu guztietan gailentzen da aukera hori). Eta horrekin batera, bi kasutan maila berean agertzen da eragin *txikia* (*Taldearen lan-jardunean*, eta *Taldeak beste talde batzuekin dituen harremanetan*); eta beste batean eragin *handia* (*Taldeak sortzen dituen diskurtso eta aldarrikapenetan*). Beste eremuetan ez bezala, gutxi dira erabat zentrala aukera hobesten dutenak.

114-118. grafikoak

Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasunaren ikuspegiaren eragina taldeen jardunean




Iturria: guk egina. Galdera: nolako eragina du arrazismoaren aurkako ikuspegiak zure taldearen edo ekimenaren jardunean gaur egun? Taldearen lan-jardunean.


Galdera bakoitzari eremuka nola erantzun zaion aztertuko dugu orain (119-123. grafikoak). Graduazio bat ikus daiteke: AMKko taldeetan eragina *Erabat zentrala edo handia* da; ondoren, Feminismoan eragin *ertaina* aitortzen diote, batzuetan *handia* ere; eta azkenik, Ekologismoan eta Euskalgintzan ere *eragin ertaina* aitortzen diote, baina batzuetan *eragin txikia* edo *eraginik ez*.

119-123. grafikoak
Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasunaren ikuspegiaren eragina...


119. grafikoa
 Taldeen diskurtso eta aldarrikapenetan, eremuka




120. grafikoa
 Barne-helburu zehatzetan, eremuka




121. grafikoa
 Taldearen lan-jardunean, eremuka



122. grafikoa
 Kanpo-komunikazioan, eremuka



123. grafikoa
 Beste talde batzuekiko harremanetan, eremuka



- Erabat zentrala da
- Eragin handia du
- Eragina du
- Eragin gutxi du
- Ez du eraginik

Iturria: guk egina. *Galdera:* nolako eragina du arrazismoaren aurkako ikuspegiak zure taldearen edo ekimenaren jardunean gaur egun?


Berrikus dezagun orain eremuen erantzuna aurkeztutako bost gaietan, laburturik (124-126. grafikoak). AMK ez dugu landuko, baina gogoratu dezagun kasu guztietan *eragin handia* edo *erabat zentrala* izan dela. Gainerako eremuetan zentratuko gara. Zer mailako eragina dago? Oro har, eragin ertaina/txikia dagoela esan daiteke, baina Feminismoan, batzuetan, *eragin handia* du, eta baita *zentrala* ere. Euskaingintzan eta Ekologismoan, aldiz, nabariagoa da *eragin txikia*, eta, behin baino gehiagotan, *eraginik* ez, Ekologismoan batez ere.

124-126. grafikoak

Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasunaren ikuspegiaren eragina taldeen jardunean, eremuka laburbildurik


124. grafikoa

Euskaingintzan




125. grafikoa

Feminismoaren eremuan



126. grafikoa

Ekologismoaren eremuan



■ Erabat zentrala da ■ Eragin handia du ■ Eragina du ■ Eragin gubxi du ■ Ez du eraginik

Iturria: guk egina. Galderak: nolako eragina du arrazismoaren aurkako ikuspegiak zure taldearen edo ekimenaren jardunean gaur egun...

Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasunaren ikuspegiak eragina du aztertu ditugun taldeetan. Oro har, eragin ertaina aitortzen diote taldeek (oso handia AMKko taldeek berek). Eraginik handiena diskurtso eta aldarrikapenetan agertzen da.

5.4. Mugimenduak elkarri eraginez

Feminista izateko ekologista izan behar da? Antiarrazakerian aritzeko feminista? Horrela esanda, baldintza modura, argi dago ezetz, noski. Baina beti egon dira lotura ideologiko argiak mugimenduen artean, nahiz eta ez diren neurtu, eta pertzepzio hori ondo islaturik geratu da aurreko hiru ataletan ikusi ditugun datuetan.

Datu horiei erreparatu baino lehenago, gainera, bi ohar garrantzitsu egin nahi ditugu. Alde batetik, ekintzaile asko mugimendu batean baino gehiagotan ari da. Eta bestetik, batzuetan ez da erraza izan talde bat eremu zehatz bati atxikitzea, taldeak berak ez zeukalako guztiz argi, hain estua izanik eremuen arteko lotura.

Horregatik besterik ez bada ere, argi geratu beharko litzateke elkarren arteko eraginaren garrantzia, baina gure datuek ere nabarmen erakutsi dute eragin ideologikoa eta praktikoa. Ez da berdina, ordea, eremu guztietan. Ikus ditzagun, laburturik, joera batzuk.

1. Nolabaiteko graduazioa egin daiteke eragin-mailari dagokionez:
 - Feminismoak eragin handia du gainerako mugimenduetan.
 - Ekologismoak eragin ertain/handia.
 - Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasunak eragin ertaina.
2. Halaber, interesgarria izan daiteke aztertzea zer mugimendu geratzen den hurbilen besteetatik:
 - Guk aztertu ditugun taldeetan AMKko eremukoek hartzen dute eragin gehien bai feminismitik, baita ekologismitik ere.
 - AMKko taldeen eta Feminismoko taldeen artean sintonia berezia igartzen da: AMKkoak dira Feminismitik eragin gehien hartzen dutenak; eta Feminismoko taldeak dira AMKren eragin gehien jasotzen dutenak.
 - Ekologismoaren eta Euskalgintzaren eremuek besteek baino eragin apur bat guxtiago aitortzen dute (txikiagoa Ekologismoan), eragina ertain/handia bada ere.
3. Eragina nabariagoa da maila diskurtsiboan praktikoan baino. Ondo islaturik geratzen da hori *Taldeen diskurtsoetan eta aldarrikapenetan, Kanpo-komunikazioan, Barne-mailako helburu zehatzetan*, eta abar. Txikiagoa da, ordea, maila praktikoagoan landu behar denean: *Taldea antolatzeke moduan*, adibidez.

Oro har, gai hauetan pandemiak eragin txikia eduki duela diote talde guztiek.

6

Pandemiaren ostea eta etorkizuna hizpide, eremuka

Edorta Arana Arrieta eta Julen Zabalo Bilbao

Azken atal honetan aurrera begirako perspektiban jarri nahi dugu arreta bereziki. Kasu batzuetan zuzenki horrela galdetuta, eta beste batzuetan, berriz, mugimenduen ustez pandemiak ekarri dituen ondorioak aztertuta. Pandemiak luze hitz egin dugu lan osoan, 4. atalean batez ere, baina hemen etorkizunera begira ipiniko gara, aurreko ataletan esandakoa osatu asmoz.

Hasi aurretik, ohar modura, gogora ditzagun gure galdera-sorten ezaugarri batzuk, atal honetan jatorri desberdineko erantzunak jasoko ditugu eta. 2.3. atalean azaldu dugunez, lau eremu edo mugimendu aukeratu ditugu, eta horiek aztertzeko, galdetegi bat taldeek erantzun dute, eta bestea, aldiz, norbanakoek. Horrez gain, galdera batzuk, gehienak, talde guztiei pasatu zaizkie, baina apur batzuk eremu bati bakarrik. Argi zehaztuko dugu kasu bakoitzean zer galdera-motaz ari garen, eta zeini egin genien.

6.1. Talde feministen jardueran sakonduz

Azpiatal honetan feminismoaren intereseko gaiak landuko ditugu. Lehenengo eta behin, inkestatutako talde feministei bakarrik egindako galderekin hasiko gara. Izan ere, zazpi ekimen zehatzek talde hauetan izan duten pisua neurtu nahi genuen, ondoren pandemiak horriengan nola eragin duen ere aztertzeko. Argiago ikusteko, galdera guztien grafikoak batera aurkeztuko ditugu, erantzunen arteko aldeak hobeto atzemateko.

Konparazio-puntua zehazteko, ezkerreko zutabearen aurkeztutako zazpi ekimenei talde feministek oro har nolako garrantzia eman izan dieten ikusiko dugu lehendabizi (127-133. grafikoak).

Zazpi ekimenen artean, argi ageri da hiru gaik garrantzi handiagoa hartu dutela orain arte (*pisu handia* edo *erabat zentrala* aukerak batuta, erantzun guztien % 60 baino gehiago dira eta). Gaiak *Martxoaren 8ko antolaketa*, *Zaintzari buruzko eztabaida* eta *Eraso matxisten aurkako kudeaketa* dira.

Ondoren, beste hiru gai ere aipa daitezke, *pisu handia* dutenak, baina aurrekoak baino gutxiago, eta batzuetan *pisu ertaina* ere aitortzen diete (bi aukerak batuta, erantzunen % 50etik gora beti). Hona gaiak: *Dekolonitatearekin lotutako gaiak*, *LGTBI+ aferak* eta *Adin zehatzekin lotutako gaiak*.

Azkenik, soslai desberdina erakusten duen gaia: *Prostituzioari buruzko eztabaidak*. Kasu horretan, orain arte *pisu ertaina* edo *txikia* izan duela esaten da (% 45,5 aukera biak batuta), eta baita *presente ez dela egon* ere (% 36,5).

Talde feministek orain arte eman dieten garrantziaren berri izan ostean, ikus dezagun zer balorazio egiten duten pandemiaren ostean, gai berberak oinarri hartuta (134-140. grafikoak eskuineko zutabea). Kontuan hartu behar da bigarren galdera-sorta honetan pandemiaren ondorengo egoeraz, eraginaz, galdetu dela, eta ez gaiak duen pisuz, lehenengo galdera-sortan bezala. Hau da, zer eta zenbat aldatu den galdetu da, modu erlatiboan eta ez absolutuan, orain arte zeukan pisuari erreparatuta, alegia.

Oro har, talde feminista gehienek ez omen dute aldaketarik sumatu egoera berrian. Izaitekotan, orain garrantzi handiagoa ematen diete gai batzuei, eta hor, ezinbestean, *Zaintzari buruzko eztabaida* sartzen da, hori baita pandemiaren ondorioz gehien aldatu dena, nabarmen gainera. Izan ere, hamarretik zazpi pandemiaren ostean *garrantzi handiagoa* (edo *askoz handiagoa*) aitortzen dio. Multzo horretan beste gai bat sartuko dugu: *Adin zehatzekin lotutako gaiak*. Ez da heltzen aurrekoaren mailara, baina hamarretik lauk *garrantzi handiagoa* ematen dio orain.

Gainerakoetan, joera orokor gisa ere nabarmendu dugunez, iritzi nagusia bera da beti: ez dela aldaketarik sumatu. Pentsa dezagun normalean gai horiek pisu handia edo oso handia zutela, eta beraz, ez dela ezer aldatu esatean, pisu handi hori ez dela jaitsi adierazten dutela. Horrela gertatu da *Martxoaren 8ko antolaketarekin*, *Eraso matxisten kudeaketarekin*, *Dekolonitateari lotutako gaiekin*, eta *LGTBI+ aferekin*, nahiz eta batzuek *lehen baino garrantzi handiagoa* aitortzen dioten orain (% 20tik gora beti).


Hirugarren multzo bat osa genezake *Prostituzioari buruzko eztabaidarekin*. Aurretik pisurik txikiena gai horrek zeukan, eta pandemiaren eragina gutxien jasan duena izan da orobat: % 75ek dio ez dela aldaketarik sumatu.

127-133. grafikoak. **Zenbait ekimenek talde feministetan duten pisua**


134-140. grafikoak. **Pandemiaren eragina talde feministentzat garrantzitsuak diren zenbait gaitan**

(ezkerreko zutabeen 127-133 grafikoak ikusiko dira, ekimen bakoitzak talde feministetan duen pisua neurtuz; eta eskuineko zutabeen, 134-140 grafikoak agertuko dira, pandemiak ekimen horietan izan duen eragina ikusteko).


127. grafikoa
Martxoaren 8ko antolaketa




134. grafikoa
Martxoaren 8ko antolaketa




128. grafikoa
Zaintzari buruzko eztabaidak




135. grafikoa
Zaintzari buruzko eztabaidak




129. grafikoa
Eraso matxisten kudeaketa




136. grafikoa
Eraso matxisten kudeaketa




130. grafikoa
Dekolonitateari lotutako gaiak




137. grafikoa
Dekolonitateari lotutako gaiak




131. grafikoa
Prostituzioari buruzko eztabaidak




138. grafikoa
Prostituzioari buruzko eztabaida




132. grafikoa
LGTBI+ aferak




139. grafikoa
LGTBI+ aferak



133. grafikoa
Adin zehatzekin lotutako gaiak



140. grafikoa
Adin zehatzekin lotutako gaiak



Iturria: guk egina. Galdera: azken urteetan feminismoaren baitan ekimen, eztabaida eta erronka ezberdinak gauzatu dira. Zure taldean, nolako pisua izan dute gai hauek? Talde feministei bakarrik egina.


Iturria: guk egina. Galdera: ekimen, eztabaida eta erronka horiek zure taldean duten garrantziari dagokionean, nola eragin du pandemiak? Talde feministei bakarrik egina.

6.1.1. Zaintzaz arduratzeko ordua

Zaintza gai zentrala bihurtu da pandemiaren harira; hala, berez aurreko urteetan feminismitik batez ere egiten ari zen aldarrikapenetako bat azpimarratu da. Hori dela eta, feminismoari lotutako atal honetan, gai horri buruzko galdera bat sartu dugu. Alta, kasu honetan inkestatu guztiek erantzun dute, ez ekintzaile feministek bakarrik (datuak norbanakoen inkestatik datoz).

141. grafikoan ikusiko dugu zer zaintza-motari ekin dioten ekintzaileek. Pandemia garaian beharrezkoak izan diren bi gai hauetan aritu direla esan digute inkestatutako ekintzaileen erdiak, gutxi gorabehera: *Herri eta auzoetako zaintza-sareetan* (gehiago), eta *Zaintza-arloko etxeko langileak zein bestelako langileak sostengatzeko ekimenean*. Garrantzi handia eman zaio, halaber, *Eraso matxistak kudeatzeko taldeetan* aritzeari, grafikoan gutxiago izanda ere. Azkenik, esanguratsua da *Bizitzak erdigunean koordinadoran* parte hartu dutenen kopurua.

Galderak eremuka aztertuta, antzeko emaitzak agertzen dira. Nabarmentzekoa izan daiteke Feminismoak eta Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasunak garrantzi handiagoa ematen diotela *Eraso matxistak kudeatzeko taldeetan* aritzeari, proportzionalki, beste bi eremuek baino. Eta AMKn garrantzirik handiena *Zaintza-arloko etxeko langileak zein bestelako langileak sostengatzeko ekimenei* eman diote.



Iturria: guk egina. Galdera: pandemia garaian zaintza erdigunean leloarekin lotuta dauden ekimenak abiatu dira: horietako batean parte hartu al duzu? Erantzun aukera anitza. Norbanakoen inkesta.

Talde feministei bakarrik galdetuta, guk proposatutako gaietatik, hiru hauei eman diete garrantzirik handiena: *Martxoaren 8ko antolaketa, Zaintzari buruzko eztabaida*, eta *Eraso matxisten aurkako kudeaketa*. Apur bat gutxiago aitortu zaie *Dekolonitatearekin lotutako gaiei, LGBTI* aferei*, eta *Adin zehatzekin lotutako gaiei*. Prostituzioari buruzko eztabaidak, berriz, arreta txikiagoa jaso du.

Pandemiak gai horietan nola eragin duen galdetuta, talde feminista gehienek ez dute aldaketa handirik sumatu egoera berrian, eta izatekotan, orain garrantzi handiagoa ematen zaie. Adibiderik nabarmenena Zaintzan ikusten dute, baita Adin zehatzekin lotutako gaietan ere

Zaintzaz hitz egitean, non hartu duten parte galdetu dugu zehatzago (norbanakoen inkestan eta eremu guztietako partaideei). Ekintzaileen erdia, gutxi gorabehera, *Herri eta auzoetako zaintza sareetan* eta *Zaintza-arloko etxeko langileak zein bestelako langileak sostengatzeko ekimenetan* aritu da. Halaber, Feminismoan eta Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasunean garrantzitsua izan da *Eraso matxistak kudeatzeko taldeetan* aritzea.

6.2. Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasun gaien eragina pandemia garaian

Azpiatal honetan Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasunaren eremuaren intereseko galdera batzuk agerraraziko ditugu, batzuetan inkestatu guztiek erantzun dituztenak (norbanakoen inkesta), eta, beste batzuetan berriz, eremukoek bakarrik (talde-inkesta). Izan ere, pandemiak hainbat zalantza, eztabaida eta galdera jarri ditu mahai gainean, lehenago ere bazeudenak, baina orain indar handiagoz azaleratu direnak. Gai horietako asko partekatu ditugu inkestatuekin, eta hona hemen erantzun horiei buruzko zertzelada labur batzuk.

6.2.1. Arrazakeriaren inguruan. Pandemiaren aurretik zetozen joerak

Pandemia hasi aurretik, zenbait mugimendu eta aldaketa gertatzen ari zen Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasunaren eremuan. Beraz, pandemiaren eragina neurtu aurretik, azken bi urteotan (2019tik 2021era, 2021eko udaberri-udan zabaldu baikenuen inkesta) eremu horretan gertatutakoen berri jaso nahi genuen, gerora pandemiak horiengan izan duen eragina aztertzeko, baita pandemiaren eragina bera aztertzerakoan aldaketa edo joera batzuk lehenagotik zetozela kontuan hartu ahal izateko ere. Horri begira, sei galdera helarazi genizkien norbanakoen inkesta bete zutenei, pandemia gertatu zen garaian eremu horretan gertatzen ari ziren zenbait dinamika eta joeren gainean duten iritzia jasotzeko (142-147. grafikoak).

Gai horiei begira jarrita, inkestatuek ez dute erabateko aldaketarik nabaritu, bai ordea zerbait aldatu dela gai batzuetan, batzuetan onerako, haien ustez, eta beste batzuetan txarrerako. Onerako da *Haien taldeetan arrazakeriaren inguruko kezka areagotu* izana. Orobat, balorazio positiboa egiten dute beste puntu batzuetan, zerbait hazi omen delako: *Arrazakeriarekiko kezka mugimendu sozialetan, Arrazakeriaren kontrako elkartasuna gizartean* eta *Atzeritartasun-legeari buruzko ikuspegi kritikoa*. Balorazio negatiboa, aldiz, *Biolentzia poli-*


ziala ikusgarriagoa dela esaterakoan, eta Memoriaren berrikuspen kritikoa eta antiarrazista. Eremuka aztertuta, Euskalgintzan jarrera ezkorragoa daukate. Eta adostasun-mailari dagokionez, handia da Biolentzia poliziala ikusgarriagoa dela esaterakoan.

142-147. grafikoak

Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekoasun eremuarekin lotuta azken bi urteetan gertatu diren aldaketei dagokienez...


142. grafikoa

Nire taldean arrazakeriarekiko kezka areagotu da




143. grafikoa

Arrazakeriarekiko kezka areagotu da mugimendu sozialetan




144. grafikoa

Arrazakeriaren kontrako elkartasuna areagotu da gizartean




145. grafikoa

Memoriaren berrikuspen kritikoa eta antiarrazista areagotu da



146. grafikoa

Biolentzia poliziala ikusgarriago egin da



147. grafikoa

Atzerritartasun-legeari buruzko ikuspegi kritikoa areagotu da



Iturria: guk egina. Galdera: azken bi urteetan gertatu diren aldaketei dagokienez... Norbanakoen inkesta.

6.2.2. Arrazakeriaren inguruan. Aldaketak pandemiaren testuinguruan


Norbanakoen inkestarekin jarraituta, pandemia garaian atzemandako balizko aldaketen inguruko iritzia ere eskatu genien inkestatuei. Bost gai aurkeztu genizkien. eta, aurrekoan bezala, zerbait aldatu dela atzematen da, erabateko aldaketa izan gabe (148-152. grafikoak).

148-152. grafikoak

Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasun gaien eragina, pandemiaren testuinguruan...


148. grafikoa

Harrera- eta laguntza-sareak areagotu dira




149. grafikoa

Arrazakeria estrukturala ikusgarriagoa egin da




150. grafikoa

Arrazakeria estrukturala ukatzeko joera areagotzen ari da




151. grafikoa

Zaintzaren garrantzia ikusarazi da, eta zaintza-lanetan pertsona arrazializatuak duten zeregina ikusgarriagoa bilakatu da



152. grafikoa

Papergabeen mugimenduak kontrolatzeko eta mugatzeko mekanismoak indartu dira



Iturria: guk egina. Galdera: pandemiaren testuinguruan... Norbanakoen inkesta.





— Arlo positiboan, zerbait areagotu dira, *Harrera- eta laguntza-sareak* eta *Zaintzaren garrantzia eta zaintza lanetan pertsona arrazializatuek duten zeregina* (bi kasuetan, AMKn asko areagotu dela diote). Arlo negatiboan, aldiz, *Arrazakeria estrukturala ikusgarriagoa egin da*, eta *Arrazakeria estrukturala ukatzeko joera areagotzen ari da* (Asko areagotu da Euskalgintzan eta, batez ere, AMKn). Azkenik, adostasun-maila nahiko handia dago gai honi dagokionez: *Pa-pergabeen mugimenduak kontrolatzeko eta mugatzeko mekanismoak* asko indartu dira.

6.2.3. *Arrazakeriaren inguruan. Pandemiaren testuinguruan hartu diren neurrien eragina*

Askotan eztabaida-iturri izan dira pandemia garaian hartutako neurriak. Guk lau gairi buruzko balorazioa eskatu genien inkestatuei (norbanakoen inkesta). 153-156. grafikoetan agertzen den galdera orokorrarekin hasiz, (COVID-19aren ondoriozko neurriek izan duten eragina: mugak ixtea, etxeratze-aginduak, mugitzeko zailtasunak, kontrolak areagotzea eta bestelako neurriak), batzuetan balorazio negatiboa egiten da, eta beste batzuetan, berriz, positiboa. Baina ñabardura garrantzitsu batekin bigarren kasu honetan: positiboa denean, *zerbait* eragin duela aipatzen da, eta negatiboa denean, aldiz, *asko* eragin duela.

Hortaz, inkestatuek diote zerbait areagotu direla *Elkartasuna eta Arrazakeriaren kontrako salaketa-ekimenak*, baina *Jarrera arrazistak eta Kontrol arrazistak*, aldiz, asko areagotu direla (bi kasuetan AMKn gehiago).


153-156. grafikoak
Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasunaren arloan COVID-19 egoeraren ondoriozko neurriek izan duten eragina



Iturria: guk egina. Galdera: COVID-19aren ondoriozko neurriek izan duten eragina... Norbanakoen inkesta.

6.2.4. Arrazakeriaren inguruan. Pertsona migratuak eta herritartasun-eskubidea


Azken galdera bat egin genien Arrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasunaren inguruan norbanako gisa erantzun zuten inkestatuei: ea pandemiaren osteko giroan herritartasun-eskubidea kaltetu ote den. 157. grafikoan ikus daitekeen bezala, erantzuna argia bezain negatiboa da: gehienek uste dute egoerak okerrera egingo duela. Askoz gutxiago dira gauzek antzera jarraituko dutela uste dutenak, eta oso gutxi dira, azkenik, irakurketa positiboa egiten dutenak. Eremuka, AMKn badira gauzek antzera jarraituko dutela uste dutenak, eta Ekologismoan aukera nagusia da.



Iturria: guk egina. Galdera: immigrazioari eta herritartasunari begira, pandemiaren ostean, zer uste duzu. Norbanakoen inkesta.

6.2.5. Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasun taldeen aliantzak pandemia garaian

4.3. atalean harremanei buruz galdetu diegu taldeei. Baina AMKko taldeei, pandemia garaian ondorioez hitz egitean, modu espezifikoa galdetu genien ea aliantzak areagotu dituzten. Baiezkoa nagusitu da. Hori aitortzen du hiru taldetik bik: beste eremuetako taldeekiko harremanak zabaldu dituzte gehienek, eta AMKko taldeen laurden batek dio haien arteko aliantzak areagotu direla (158. grafikoa).



Iturria: guk egina. *Galdera:* pandemia garaian beste eragile batzuekiko aliantzak areagotu dituzue... Erantzun aukera anitza.

Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasun gaien inguruan galdetuta, inkestatuek (norbanakoen inkesta) ez dute erabateko aldaketarik sumatzen pandemiaren ostean, baina zerbait aldatu dela diote askotan, inoiz onerako eta maiz txarrerako.

Positiboa iruditzen zaie, oro har, arrazakeriaren gaineko kezka eta haren kontrako elkartasuna, atzeritartasun-legeari buruzko ikuspegi kritikoa, edo harrera- eta laguntza-sareak areagotu izana. Gainera, zaintzaren garrantzia eta arlo horretan pertsona arrazializatuak duten zeregina ikusgarriagoa egin da, haien ustez.

Beste gai batzuei dagokienez, aldiz, sentrazio negatiboa, edo oso negatiboa, areagotu da. Besteak beste, honako gai hauekin lotuta: biolentzia poliziala, arrazakeria eta papergabeen mugimenduak kontrolatzeko eta mugatzeko mekanismoak. Etorkizunean, gainera, egoerak okerrera egingo duela uste da, eta jarrera xenofobo eta arrazistak areagotu egingo direla adierazi dute inkestatuek.

Bestalde, pandemia garaian AMKko taldeek aliantzak indartu dituzte, beste eremuetako taldeekin batez ere.


6.3. Nola irudikatzen dute gizarte-mugimenduek etorkizuna?

Azkenik, eremu guztietako taldeei galdetu diegu etorkizunaz, beti galdera berdina izan ez bada ere. Aintzat hartu behar da norbanakoen inkestan parte hartu dutenei bakarrik galdetu diegula, ez taldeei. Edonola ere, baliagarria izan daiteke orainaldia eta etorkizun hurbila nola irudikatzen duten jakiteko.

6.3.1. Feminismoa etorkizun hurbilean

Inkestatuek eman dituzten erantzunei so (159. grafikoa), bi multzo nagusi zehaztu daitezke. Alde batetik, uste dute lau gai hauek garrantzitsuak izango direla: *Zaintzaren gaia*, *Dekolonitatearen diskurtsoa*, *Indarkeria matxistaren aurkako ekimenak* eta *Gazte feministen aldarriak*. Inkestatuek beste gaien gainetik nabarmentzen dituzte.

Balorazio positibo hori ondo osaturik geratzen da bigarren multzoarekin; ikuspegi ezkorragoa duten bi gaiak gutxiago hautatu dira, eta etorkizunean horrenbesteko garrantzirik ez dutela edukiko adierazi dute: *Feministen arteko eztabaidak* eta *Diskurtso feministak zalantzan jartzen dituzten erreakzioen ondorioz, zatikatuta*.




Iturria: guk egina. Galdera: nola irudikatzen duzu feminismoaren eremua etorkizun hurbilean? Hautatu hiru gai nagusiak. Norbanakoen inkesta.

Interesgarria da galdera horiek eremuka aztertzea, Feminismoak eta gainerako mugimenduek modu desberdinean ikusten dituzte eta. Izan ere, Feminismotik datozen kideek Zaintzari eta Dekolonialitateari ematen diete garrantzirik handiena, gaur egun dauden eztabaiden erakusle. Baina gainerako eremuetako kideek gorago aipatutako lau gaiak antzeko mailan hartzen dituzte, modu orokorragoan, alegia.

6.3.2. Euskalgintza etorkizun hurbilean

Euskararen presentziak gizarte-mugimenduetan gora egingo ote duen galdetuta, ziurtasun-gabezia nagusitzen da (160. grafikoa). Izan ere, heren batek ez daki ondo zer erantzun (ez dago ados, ezta desados ere), beste heren bat ados dago, eta laurden bat desados. Deigarria da, eremuka aztertuta, Euskalgintzan bertan iritziak sakabanatuta egotea, inkestatuak erreferentzia desberdinetan pentsatzen ari zirelako agian (euskara gizartean eta euskara gizarte-mugimenduetan). Gogora dezagun, azkenik, galdera honi erantzun zioten asko euskal hiztunak zirela (norbanakoen inkesta).




Iturria: guk egina. Galdera: esan, mesedez, noraino zauden ados esaldi honekin: etorkizun hurbilean, euskararen presentziak gora egingo du mugimendu sozialen jarduera zein ekintza publikoetan. Norbanakoen inkesta.

6.3.3. Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasuna etorkizun hurbilean

Etorkizunean eremu honetako arazo nagusiak zeintzuk izango diren galdetuta, bi gai agertzen dira indar handiz arazo garrantzitsu modura: *Arrazakeria estrukturala* eta *Muturreko eskuineko diskurtsoen eta politiken gorakada* (161. grafikoa). Arrazakeriaren kontrako mugimendua behar bezala gara dadin, beste arazo batzuk ere atzematen dira: *Atzerritartasun Legea* eta *Indarkeria poliziala*. Eremuka ere, antzera erantzuten dute denek.

161. grafikoa


Etorkizun hurbileko arazoak Antiarrazakeria–Migrazioak–Kulturartekotasun mugimenduan



Iturria: guk egina. Galdera: etorkizun hurbilari begira, zeintzuk dira, zure ustez, arazorik handienak arrazakeriaren kontrako bidean aurrera egiteko? Hautatu hiru arazo nagusiak. Norbanakoen inkesta.

6.3.4. Ekologismoa etorkizun hurbilean

Ekologismotik datozen aldarrikapenek gizarte-mugimenduan edukiko duten presentzia galdetuta (162. grafikoa), oro har, erantzun baikorra jaso dugu: gero eta garrantzi handiagoa hartuko duen gaia da, inkestatuen arabera. Eremuka, erantzuna argia da Ekologismotik datozen kideen aldetik, eta antzekoa esan liteke beste hiru eremuei dagokienez, neurri apur bat apalagoan.



Iturria: guk egina. Galdera: etorkizun hurbilean ekologismotik datozen aldarrikapenak (trantsizio ekologikoa, elikadura-buru-jabetza, bizimodu iraunkorra) herri-mugimenduen lan-jardunean izango duten presentzia. Norbanakoen inkesta.

7

Gizarte-mugimenduen eszenatoki berriak pandemiaren garaian: ikerketaren azken gogoetak

Miren Guilló Arakistain eta Marta Luxán Serrano

2018an abiatu genuen *Solidary* ikerketa: hasiera batean, metodologia kualitatibo desberdinetan oinarritu genuen (elkarrizketa sakonak, behaketak, talde-eztabaidak, sareen mapak...). Hastapenetan, eta bereziki pandemia hasi aurretik, ez genuen diseinu kuantitatiborik aurreikusi, ez genuen beharrezkotzat jo. Pandemia iritsi zen, ordea, eta egoeraren berezitasunak bultzatu gintuen ondorengo inkesta diseinatzerara eta hedatzera. Diseinu-prozesu horren oinarrian, ezinbestean, aintzat hartu da aurretik egindako analisi guztia: esperientzia horretan oinarrituz eraiki, erabaki eta ardaztu ditugu inkesta honek jasotzen dituen galdera eta edukiak, alegia. Era berean, inkesta hau beste mugarri bat izan da, eta, emaitzetan oinarritutako gogoetei buruz zein sortutako galderei buruz sakonago jarduteko, disenu kualitatibora joko dugu berriz ere. Hala, iruditzen zaigu liburu hau tresna erabilgarria izango dela ikerketan planteatu ditugun edukietan sakondu duenarentzat.

Hain zuzen, dokumentuaren azken atal honetan, *Euskal Herriko gizarte-mugimenduak pandemia garaian: egoeraren ondorioak, egokitzapenak eta eszenatoki berriak* inkestaren emaitzek sortu dizkiguten gogoetak jasotzeaz gain, loturak eraiki ditugu aurretik egindako lan kualitatiboarekiko, baita etorkizunera begira zenbait galdera eta balizko ikerketa-ildo plaza-ratu ere.

Egia da gauzak asko aldatu direla inkesta egitea bururatu zitzaigun une disruptibo hartatik gaurdaino, eta ez da erraza hurrengo urteetako bilakaera nolakoa izango den aurreikustea. Alegia, pandemiak herrigintzan izandako eraginak ez dira estatikoak, eta hementxe jasotako datuek une historiko zein lurralde zehatz bati egiten diote erreferentzia, baina horrek ere balioa duelakoan gaude.

Arestian aipatu dugunez, askotariko arrazoiak direla medio, *Euskal Herriko gizarte-mugimenduak pandemia garaian: egoeraren ondorioak, egokitzapenak eta eszenatoki berriak* oso eragiketa garrantzitsua dela uste dugu. Alde batetik, COVID-19ak eta pandemiari aurre egiteko ezarritako neurriek herri-mugimenduen dinamiketan eta parte-hartze soziopolitikoan izan

duten eragina aztertzen duelako eta, bestetik, norbanakoen aktibismoaren gainean izan duen efektua jasotzen duelako orobat. Horrez gain, taldeen ezaugarriekin lotutako informazio garrantzitsua biltzen du, eta gure intereseko lau eremuei buruzko datu bereziak eta berriak helarazten dizkigu.

Aurrera egin baino lehen, galdetegiak 2021eko maiatzetik irailera bitartean hedatu genituela gogoratu nahi dugu. Hau da, une horretan, espazioei eta kaleari lotutako neurri erregulatzailerik asko martxan egonda ere, txertaketa-fasea garatu gabe zegoen oraindik, ez zegoen kutsatze-maila handirik eta COVID pasaporteak ez zen existitzen oraindik. Beraz, inkestaren emaitzak testuinguru horretan kokatu eta horren arabera aztertu behar ditugu, ziurtzat jotzen baitugu, eragiketa bera gaur egun garatuz gero, iritziei zein pertzepzioei buruz jasotako datuak bestelakoak izango lirakekeela.

Era berean, inkesta hau gure ikerketa-eremuetan gertatu dena eta gertatzen ari dena irudikatzen ahalmen handiko euskarria bada ere, emaitzak herrigintza osora zabaltzea ez litzaiteke egokia izango.

Irakurketa errazte aldera, azken hausnarketa hauek sei azpiataletan antolatu ditugu: 1) *gogoeta metodologikoak*; 2) *parte-hartzearen nondik norakoak*; 3) *ekintza, jarduera eta praktikak, mugak*. *Egokitzeko gaitasunak eta aukera berriak*; 4) *diskurtsoak eta praktikak eremu bakoitzaren baitan: zer aldatu da?*; 5) *mugimenduak elkarri eraginez: harremanak eta elkarrelikatzeak*; eta, 6) *aurrera begira*.

Gogoeta metodologikoak

Jakin badakigu errealitate soziala aldakorra dela eta mudakortasuna herrigintzaren ezaugarrietako bat dela. Beraz, definitzeko erraza ez den unibertso bati erreparatzeaz gain, gure abiapuntuetako bat aldakortasuna izan dela azpimarratu behar dugu. Denboraren joan-etorriak taldeen ezaugarriak eta egiteko moduak zein aktibisten iritzia eta pertzepzioak eraldatzen dituela kontuan hartuta, gauza bera gertatzen da lurraldetasunaren, lan-eremuaren edota talde-motaren arabera. Hortaz, dagoeneko agertu dugunez, herri-mugimenduekin lan egitea erronkaz betetako abentura izan ohi da. Eta bidaia horretan askotariko ikaspenak garatu ditugu.

Gure unibertsoa partikularra izan da, ikerketaren planteamendua ere berritzailea. Hasteko, mapaketan eta *elur-bola* teknikan oinarritutako kontaktazio-estrategia emankorra izan delakoan gaude eta, beraz, aurrera begira errepikatzen modukoa. Eta gauza bera berreszten dugu kontaktu pertsonalen erabilerari dagokionez. Finean, enpresen bitartez gauzatutako kontaktazio-prozesuetan baino alborapen gehiago edota larriagoak izan ez direla egiaztatu, eta ondorioz, egindakoa ontzat eta baliagarritzat jotzen dugu.

Hori dela eta, herri-mugimenduei buruz ikertzeko herrigintzan aktiboki aritzea gakoa izan dela azpimarratu nahi genuke. Nahiz eta horrek ez duen desagerrarazten talde batzuek unibertsitatearekiko duten mesfidantza eta elkarlanerako gogorik eza, beste askorentzat konfiantzazko interlokutoreak bilakatu gara gure parte-hartzearen ondorioz, eta horrexegatik erantzun dituzte galdera-sortak. Nolanahi ere, ez dugu guztiz argi ea talde emergente askorengana gerturatzea lortu ote dugun, eta gai hori birpentsatu beharra dago etorkizuneko ikerketei begira.

Lantaldean luze eztabaidatu genuen gaietako bat izan zen ea galdetegi bat edo bi hedatu behar genituen. Jakin bagenekien askotariko inkestetan galdera-sorta bat baino gehiago zabaltzen dela, baina ez genuen era horretako esperientziarik ezagutzen mugimendu sozialen esparruan. Gure kasuan, metodologikoki talde batentzat bideragarriak ez diren gaiak (hala nola, iritziak eta pertzepzioak) jasotzeko zein gehiegizko luzera ekiditeko estrategia izan da. Dena dela, norbanakoen inkestaren erantzun urriak ikusita, uste dugu tentuz eta sakontasunez aztertu beharreko erabakia dela, etorkizuneko balizko ikerketei begira.

Gogoeta metodologikoak egiterakoan, lantalde barruko dinamikei eta egiteko moduei ez zaie askotan erreparatzen eta, garrantzitsuak izateaz gain, emaitzetan eragiten dutela berretsi nahi genuke. Ildo horretatik, gure lantaldearen eta ikerketa-subjektuaren artean paralelismo bat baino gehiago dagoela azpimarratzen dugu. Alde batetik, gizarte-mugimenduetan gertatu moduan, pandemiak gure egiteko moduak baldintzatu ditu: hilabete luzez, lan-saio guztiak birtualak izan dira, halabeharrez. Horren ondorioz asko hausnartu dugu birtualtasunaren eta presentzialtasunaren mugez, aukerez eta esanahaiez. Bestetik, horizontalki aritzeko apustua egin dugu, bai taldekideen artean baita ikerketa proiektuan parte hartzen duten beste kideekiko ere. Erabaki horrek eztabaida batzuk luzatzea eta ikerketako azpi-taldeekin kontraste-saio dezente egitea ekarri du, prozesua aberastuz, noski, baina baita zailduz eta denboran atzeratuz ere. Halaber, inkesta hau osatu dugun lantaldeko kideetako bakoitza, ikerketa beraren baitan elkarrekin aritu arren, azpitalde desberdinetako kidea da, eta mugimendu desberdinetan jarri izan dugu begirada (nahiz eta horiek modu orokorrean ikertu). Zentzu horretan, elkarriketa asko eduki ditugu, eta, prozesua moteldu arren, denon artean ikuspegi holistikoagoa izatea bermatu du, eta uste dugu hori indargune bat izan dela.

Amaitzeko, emaitzei begira, sorpresez eta ñabardurez gain, jakintzat jo ditzakegun emaitzen garrantziaz ohartarazi nahi genuke, inkesta honen bitartez joera horiek frogatu ditugu eta. Era berean, zenbait aferari dagokionez bestelako ikerketak egin beharko lirakeke, eta etorkizun hurbilean gauzatuko ditugun elkarrizketen eta behaketen bitartez sakonduko dugu horietan.

Edonola ere, iruditzen zaigu ezen, lantaldean zein *Aztikerreko* lagunekin batera izandako eztabaidak eta gogoeten bitartez, guretzat, mugimenduentzat zein herrigintza aztertzen dabilen edozeinentzat interesgarriak zein baliagarriak izan daitezkeen hausnarketak jorratu ditugula.

Parte-hartze politikoaren nondik norakoak

Sarreran azpimarratu dugunez, aztertu ditugun lau eremuetan —Euskaingintza, Feminismoa, Ekologismoa eta Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasuna— gertatzen denari erreparatzen dio hurrengo ataletako edukiak.

Baina nolakoak dira eta nola aritzen dira talde hauek? Aurreko ikerketa kualitatiboan agertutako zenbait joera eta portaera berretsi ditugu hemen. Esaterako, talde asko eremu batean baino gehiagotan aritzen dira (bereziki, talde feministak eta AMKkoak), taldeak ez daude bakarturik, elkarren artean aritu eta eragiten dute, eta norbanakoen posizio anizkoitzek eta askotariko parte-hartzeek ere kontrahegemoniarako aliantzak sustatzen dituzte (Esteban *et al.*, 2020).

Era berean, eta lan-esparruari dagokionez, gertutasun fisikoa dugu aipagai; hots, talde askok auzoa, herria edo hiria dute beraien jardunaren markoa. Ideia hau erraz lotu dezakegu berriki esandakoarekin eta, baita ere, lan etnografikotik eratorritako beste gogoeta batekin: elkar ezagutza dugu elkarrekin jarduteko gakoetako bat eta, gaur egun harago ere joango ginateke, gertutasunak elkar ezagutza errazten duela esanez. Bestalde, uste dugu, taldeen arteko gertutasunaz gain, pertsona batek talde desberdinetan izan ditzakeen posizio anizkoitzek erraztu egiten dutela talde bakoitzaren praktika intersektionalagoa egitea.

Horretaz gain, *Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik* (Esteban et al., 2020) liburuan, mugimendu sozialak bi geruzetan antolatuta daudela ondorioztatu genuen: oso aktiboa den talde eragilea eta zabalagoa eta inplikazio gutxiagokoa duen bigarren geruza bat. Inkestaren emaitzek geruzen ideia hori berresten badute ere, ezinbestekoa dugu ñabardura bat egitea: ez dira soilik bi geruza; beraz, egokiagoa da geruzei buruz pluralean hitz egitea, hiruzpalau irudikatu ditzakegulako. Bestalde, aurreko argitalpenean (*op. cit.*) antolaketa-mota hori sortzen den egitate bat edo estrategia bat izan zitekeela aipatzen genuen, eta, oraingoan, geruzen eraketa parte-hartzeekin zein posizio anizkoitzekin ere lotuta legoikeela azalerratu nahi dugu.

Baina parte-hartzearen ezaugarri horiek guztiak berriak dira —egungo koiunturak bultzatutako egoerak edo koiuntura horri aurre egiteko estrategiak—, edo aspalditik datozen jorak? Nahiz eta lan-hipotesi hori baieztatzeko nahiko daturik ez dugun, gure ustez, portaera berriak ez diren arren, denboran zehar aldatu eta egokitu diren antolatzeke eta eragiteke moduak lirateke. Badugu, beraz, aurrera begirako beste ikerketa-ildo bat.

Komunikazioa ere aztertu dugu, eta pandemia garaian ikusgarritasuna arazotsua bilakatu dela ondorioztatu. Horrez gain, barne-komunikazioari dagokionez, birtualtasunak ekarritako eraldaketak eta, aldi berean, presentzialtasunaren politizazioa nabarmenduko genituzke. Era berean, barne-komunikazioa kidetasunarekin estu lotuta dagoela uste dugu; izan ere, birtualtasunak, taldekide izateko ate berriak irekitzeaz gain, aktibazioaren ulermena eraldatu baitu. Halaber, barne- eta kanpo-komunikazioaren arteko mugak lausotu ditu, sare sozialen erabile-raren bitartez taldeek beren jarduna publikoa egiteaz gain, barne-deialdiak edota kidetasun berriak landu eta sortzen baitituzte.

Jakin arren barne- eta kanpo-komunikazioa elkarren arteko continuum bat dela, bigarrenarekin lotutako ideia bat ekarri nahi genuke lerro hauetara: herrigintzak ez duela harreman ona hedabide *mainstream*ekin eta, afera hori oso nabarmena izan dela pandemia garaian, emaitzetan ikusi den bezala.

Bukatzeke, norbanakoen parte-hartzearen gaineko zenbait ohar eta gogoeta. Arestian aipatu dugunez, gure inkestari erantzun diotenen gehiengoak unibertsitate-ikasketak dituzten emakume euskaldunak dira. Ezaugarri horiek estu lotuta daude kontaktazio-prozesuaren izaerarekin, eta jasotako emaitzak baldintzatu dituzte.

Pandemiaren eraginari dagokionez, ez da norabide bakarrekoa izan, desaktibazioa bezala aktibazioa ere bultzatu baititu. Era berean, aipagarria da pandemiak ondorio positiboak izan dituela taldearen diskurtsoarekiko adostasunean zein lotura emozionalean, biak handitu baitira. Nola irakur genezake gertaera hau? Zertan datza diskurtsoekiko adostasuna eta lotura emozionalaren arteko harremana? Jakin badakigu politizazio-prozesuetan emozioen eta pro-

zesu afektiboen garrantzia funtsezkoa dela, eta pandemia bezalako une disruptiboetan atxikimendu afektiboa azaleratu egiten dela ikusi dugu.

Gainera, pandemiak euskararen erabilera gutxitu duen arren, hizkuntzarekiko konpromisoa mantentzeko ahalegina egin dute aktibistek. Datu hori laginaren ezaugarriekin lotuta dagoela zalantzan jarri gabe, herrigintzan euskara erabiltzearen aldeko apustua badagoela ondoriozta daitekeelakoan gaude; hori bai, oso intentsitate ezberdinekin gauzatzen da eremuen zein lurraldetasunaren arabera.

Ekintzak, jarduerak, praktikak. Mugak, egokitzeko gaitasunak eta aukera berriak

Ukaezina da pandemiak askotariko eraginak izan dituela herrigintzan. Besteak beste, talde gehienek ekintza eta jarduera gutxiago antolatu dituzte eta taldeen erdiek finantzazio-arazoak izan dituzte. Nolanahi ere, nabarmentzekoa iruditzen zaigu egokitzeko gaitasuna, hala nola urteko ekintzarik garrantzitsuena aurrera ateratzeko garaian edo finantzazio-bideak moldatzeari begira. Dena dela, berriz ere inkestaren hedapen-unea ekarri nahi dugu gogora, zenbait aferei begira une bereziki baikorra izan zelakoan baikaude.

Logikoa denez, kalean edo espazio publikoan garatzen diren ekintzak murriztu dira gehien, eta, ondorioz, asko hitz egin da kalearen galerari buruz. Baina, pandemiak ekarri du galera hori, ala aspalditik zetorren joera areagotu da? Eta zertaz ari gara kalearen balizko berreskurapenaz hitz egiten dugunean: kale bete pankartez eta kartekez ala beste zerbaitetaz? Gure ustez, herrigintzaren presentziaren galera kaleetan ez da pandemiak sortutako zerbait, aspalditik datorren gertaera baizik. Hori bai, pandemiak fenomeno hori biziagotzeaz gain, ikusgarriagoa bilakatu du, galera kolekibo baten sentrazioa esplizitatu du, eta balizko berreskurapena mintzagai bihurtu.

Azken horri lotuta, gauzak asko aldatu direlakoan gaude: kalearekin harreman zuzena ez duten gero eta jarduera gehiago dago, eta, ondorioz, gaur egun kalea ez da beti herrigintzaren plaza nagusia. Zentzu horretan, interesgarria izango da datozen hamarkadetan pandemiaren eraginak mugimenduen kale-bizitzan nola eragingo duen ikustea. Eta horra hor beste ikerketa-ildo posible bat aurrera begira: epe luzera, nolako izango da pandemiaren eragina ekintzen (ber)ezaugarritzean? Nola gauzatuko da politizazio-prozesuen eta birtualtasunaren arteko harremana? Eta horrek guztiak nolako ondorioak izango ditu artikulazio-prozesuetan eta -moduetan?

Era berean, Administrazioak proposatutako neurriek nolabaiteko onespina izan dutela jaso dugu. Hau da, mugimendu sozial gehienek ez dute ezbaian jarri itxialdian eta itxialdiaren ostean kalea galtzea, ez behintzat modu kolektibo eta esplizitu batean; eta hori ere gertaera berria dugu. Dena dela, baieztapen horiek tentuz plazaratzen ditugu, ez baita erraza muturreko jarrerak izan ez dituzten taldeen diskurtsoen nondik norakoak eta ñabardurak jasotzea. Alegia, baliteke neurriei buruz gogoeta egin izana, baina horren kontrako praktika kolektibo espliziturik gauzatu ez izana. Horretaz gain, inkesta hedatu genuenetik aldaketa nabariak gertatu direlakoan gaude. Hala eta guztiz ere, ezin dugu ahaztu talde askok neurrien inguruko eztabaidak izan dituztela, baita neurri propioak ezarri ere. Nola irakurri daitezke datu horiek? Zein izan da diskurtso eta praktiken arteko jauzia? Esan genezake desobedientzia, nagusiki, praktika indibiduala izan dela?

Amaitzeko, eta finantzazioari dagokionez, gogoeta pare bat. Gehien murriztu den finantzazio-bidea diru-laguntza publikoena izan da; diru-laguntzak eskatzen eta jasotzen dituzten taldeak irudikatzerakoan, egitura sendoa eta egonkortasuna datozkigu burura. Horrek eraman gaitzake pentsatzera halako taldeentzat pandemiaren eragina gogorragoa izan dela maila finantzarioan.

Bestalde, historikoki, espazio publikoa eta, bereziki, jai herrikoiak herrigintzaren diru-iturri oso garrantzitsuak izan dira. Jasotako datuen arabera, bide horiek apaldu badira ere, ez dirudi izugarritzko galera gertatu denik. Beste ikerketa batzuen arabera (Guilló, 2016), kalearen erabilera publikoaren zailtasun instituzionalek etengabe eragiten die jai herrikoien ereduari eta, ondorioz, bide horien ahultzea pandemia aurreko gertakaria izango litzateke. Beraz, aipatzen diren finantzazio-bide berriak pandemiak eragindako eraldaketaren ondorio lirateke ala, kalearen galera gogoan, aurretik zetorren joera baten areagotzea besterik ez?

Diskurtsoak eta praktikak eremu bakoitzaren baitan. Zer aldatu da?

Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasuna izendatu dugun eremua berria ez bada ere —eta besteak beste, hori islatu nahi izan dugu kontzeptualizazioarekin ere—, talde hauek lantzen dituzten zenbait gai indarra hartzen ari dira azken urteetan, eta, nahiz eta praktikan beste eremuen gainean eragin gutxien duena izan, datuek islatzen dute emergenteak direla antiarrazakeriarekin, poliziaren jazarpenarekin zein atzeritartasun-legearekin lotutako kezka (erregularizazio-kanpaina oso esanguratsua gauzatzen ari da hitz hauek idazten ditugun bitartean). Alegia, dimentsio antiarrazista gainontzeko taldeen eguneroko praktikan oraindik islatzen ez bada ere, kezka horiek plano diskurtsiboan eta sortzen dituzten harremanetan azaleratzen ari direla sumatzen dugu. Azpimarragarritzat jotzen dugu pandemiak berriki aipatutako gai horien zein pertsona arrazializatuek zaintza lanetan duten zereginaren ikusgarritasunaren areagotzea ekarri duela.

Etorkizunari begira, bizirik mantenduko al dira pandemia garaian AMK eremuaren eta beste batzuen artean sortu diren aliantzak? Aliantza horietan nola eragingo luke gizartearen jarrera xenofobo eta arrazisten areagotzeak —norbanako askok aurreikusten dute halako zer-bait gertatuko dela—? Ikerketa kualitatiboan identifikatu ditugun beste aliantza esanguratsu batzuk okupazio-mugimenduekin eta LGTBI+ mugimenduekin jorratutakoak izan dira. Zer-nolako bilakaera izango dute horiek?

Nabarmentzekoa da mugimendu feministak beste mugimenduen gainean duen eragina. Horretaz gain, konbergentzia gehienetan talde feministek hartzen dute parte, eta, elkarren arteko harremanak lantzerakoan aipatuko dugunez, gertaera hori mugimenduak landu dituen gaien zeharkakotasunarekin lotuta duelakoan gaude. Era berean, oso ohikoa da aktibista feministek bestelako taldeetan parte hartzea eta horrek ere ondorioak izango lituzke. Esaterako, eguneroko praktikan ikuspegi interseksionalago bat garatzearen kezkan. Zentzu horretan, noraino hitz egin genezake partekatutako diskurtsoei buruz? Nolako izan da praktika feministen eragina beste eremuetan eta horrek zer ondorio izan ditu lan-eremuan bertan? Eta zer rol izan du zaintzen aferak horretan guztian? Edonola ere, ezin dugu alboratu taldeek zein norbanakoek joera dutela diskurtso politikoki zuzenak bereganatzeko .

Ekologismoaren garrantzia areagotu da pandemia garaian, diskurtsiboki zein taldeak eratzeari dagokienez; era berean, are pluralagoa bilakatu da lehendik ere aniztasun handia zuen

eremu hori. Ildo horri jarraituz, eta aurrera begira, nolako bilakaera izango dute gazteen artean azken aldian loratutako taldeek eta ekintzek? Eta zein izango da propositiboagoak diren talde eta ekimenen eragina lan-eremu osoaren garapenean? Denboraren igaroak lagunduko digu galdera horiei erantzuten.

Horrez gain, arrazakeriaren aurkako diskurtsoekin gertatu den bezala —intentsitate handiagoarekin, gainera—, ikusi dugu pandemia garaian modu orokorrean handitu direla talde ekologistekin egindako aliantzak eta harreman berriak zein eremu honetan lantzen diren edukien presentzia. Pandemiaren lehen unean antolatutako ekintzei dagokienez, geldialdi handi bat gertatu zela ikusi dugu, agian horietako asko aurretik kalean egiten zirelako. Dena den, lehenagotik zetorren joera hauspotuz, pandemiak modu nabarmenean azalera dituzten irakurketa eta auzi sozioekologikoak. Azken urteetan eremu horren baitako taldeak gero eta plurlagoak ziren eta pandemia garaia gehiago dibertsifikatu du jarduna. Interesgarria izango da talde horien garapena, aliantzak, estrategia politikoak eta eraginak aztertzea etorkizunean.

Azkenik, Euskalgintza aztertzerakoan, eremu oso kontsolidatua dela kontuan hartu behar dugu eta, aurrerago sakonduko dugunez, hizkuntz praktiketan eragin nahi duena. Nabarmen-tzekoa da, euskararen erabilera publikoa lausotu egin den arren pandemia garaian —hedabideetan, esaterako—, norbanakoek mantendu egin dutela euskararekiko duten konpromisoa, eta, ondorioz, herrigintzan euskararen aldeko apustua egiten dela berretsi dugula. Beraz, euskalgintzak proposatutako hizkuntz praktikak beste eremuak busti dituelakoan gaude; jaso egin dira, nahiz eta eraginaren intentsitatea oso aldakorra izan lurraldearen zein lan-eremuaren arabera. Amaitzeko, gerora landuko dugun aurrera begirako ezkortasuna ekarri nahi genuke lerro hauetara, euskara-elkarteak oso kezkatuta baitaude etorkizunarekin.

Mugimenduak elkarri eraginez. Harremanak eta elkarrelikatzeak

Dagoeneko agerian geratu da herrigintzaren baitan askotariko harremanak gauzatzen direla, talde gehienak era ezberdinetako kolektiboekin erlazionatzen direla, geografikoki zein lan eremura. Datuen arabera, pandemiak ez ditu harreman horiek eten eta, harreman batzuen intentsitatea moteldu badu, lotura berriak ere sortu direla baieztatu dugu.

Gertaera hori ikerketa kualitatiboan agertutakoa berrestera dator, hots, elkarrekin aritzearen garrantzia. Zenbait elkarreketaren arabera, elkartze hori gero eta gehiago gertatzen ari da, eta gauza pozgarria ez ezik ezinbestekoa iruditzen zaie. Adibide gisa, hona hemen Hernanin egindako landa-lanean parte hartu zuen Federen hitzak, «*te quiero decir que la única forma que tienes de salir a la calle y de que se te vea es juntándose con otra gente. Todos en la misma mani (...), porque si no...*» (Guilló, Esteban eta Luxán, 2020).

Esku artean ditugun datuekin ezin dugu baieztatu joera hori areagotzen ari denik; are gehiago, elkarrekin aritzea eta harremanen garrantzia herrigintzaren ezaugarrietako bat delakoan gaude, nahiz eta ziurtzat jo erlazio horien oinarria edo ezaugarritzea denborarekin eraldatu dela. Beste lurralde batzuetan egindako zenbait ikerketek (Alga, 2018; Feinberg, 2021) ondo islatu dute mugimenduen arteko aliantzek nolako garrantzia izan duten XX. mendean, eta, zentzu horretan, gure hipotesiarekin bat egingo lukete.

Inkestaren bitartez ez dugu sortu diren harreman horien nondik norakoan sakondu: zenbatu ditugun arren, ez dugu harreman horien izaera eta intentsitatean sakondu. Ezta pan-

demia garaian gorpuztutako erlazioen oinarrian dauden gakoetan ere. Dena dela, harremanen dimentsio kuantitatiboak ere informazio interesgarria eskaini digulakoan gaude. Horretaz gain, zein da taldeen eta posizio anizkoitza duten norbanakoen pisua lotura horien eraikuntzan? Talde-estrategia bat da, edo norbanakoen arteko harremanen ondorioa?

Buelta gaitzen diskurtsoetara eta saia gaitzen zubiak eraikitzen harremanen eta pandemia garaian indarra hartu duten gai batzuen artean. Jakin badakigu pandemiak positiboki eragin duela norbanakoek taldeen diskurtsoekiko duten adostasun-mailan. Era berean, gai batzuekiko zeharkako kezka areagotu dela egiaztatu dugu, hala nola krisi ekologikoarekiko, zaintzarekiko eta euskararen galerarekiko. Baliteke zeharkako larritasun horiek bidea eman izana harreman berriak eraikitzeari, batzuk ikusgarriagoak, eta beste batzuk, agian, ez horrenbeste. Zer-nolako zeregina izan dute tokian tokiko zaintza-sareek erlazio berrien gauzapean? Eta presentzialtasunak? Presentzialtasunaren ezinak eta grinak? Badugu, beraz, aurrera begira zer ikertu.

Jo dezagun gure lau lan-eremuetara. Azken urteetan Euskal Herriko mugimendu feministaren baitan interseksionalitatearen gaiak leku zentrala izan du eta, ondorioz, gure ikerketa-eremuak zeharkatzen dituzten lanketa eta gogoeta bereziak jorratu dira: besteak beste, feminismoaren eta euskalduntasunaren arteko harremanaren inguruko hausnarketa, edo nola gorpuztu dekoloniala izango den feminismoa. Edonola ere, proposamen diskurtsibo interseksionalek aurrera egingo dutelakoan gaude.

Amaitzeko, dagoeneko aipatu dugunez, euskalgintzaren eremuan jaso dugu etorkizunarekiko begiradarik kezkatuena eta, gure iritziz, ezkortasun hori lan-eremuaren nolakotasunarekin lotuta legoke. Euskalgintzaren alorrean hizkuntz praktika batzuen aldeko apustua egiten da: praktika da zentroan dagoena, eta praktikak ez dira aise eraldatzen.

Aurrera begira

Solidary ikerketa diseinatu eta aurkezterakoan, krisia aipatu dugu, askotariko erpinak dituen krisia hain zuzen. Azterketa horretan murgilduta geundela, COVID-19 heldu zen eta krisiaren bereizgarri batzuk areagotu zituen, hala nola desberdinkeria sozialen sakontzea eta osasun-arreta unibertsala eta zaintzak bermatzeko zailtasunak.

Liburu honetan testuinguru eta une zehatz batean jasotako informazioa aztertu dugu, etorkizuna irudikatzeko lagungarria eta horietan sakontzeko eta gehiago arakatzeko tresna izan daitekeena. Argazki zehatz bat egin dugu, kolore bereziak dituen argazkia, eta gertatzen ari diren aldaketak ulertzeko pizgarria bilakatu daitekeena, mugimenduei buruzkoa, eta horren bitartez, euskal gizartean gertatzen ari diren aldaketen berri ere ematen diguna. Urrats bat baino ez da; etorkizuna aurreikustea ez da lantegi erraza, eta inkesta hau ez da tresna magikoa.

Hori bai, gure iritziz, pandemiak herrigintzari gogoetarako atea zabaldu dio, eta txosten hau hausnarketa horretan sakontzeko akuilua izatea desio genuke. Izan ere, aztertu ditugun joera asko ez dira berriak, herri-mugimenduen baitan aspalditik sumatzen eta aipatzen diren gertaerak baizik. Beraz, pandemiatik harago doan eta beharrezkotzat jotzen dugun gogoetaz ari gara.

Ikerketaren ikuspuntutik, herrigintzari buruzko ikerketa kuantitatibo ez-estraktibista egin daitekeela aldarrikatu nahi dugu; are gehiago, guretzat ikerketa ez-estraktibista litza-teke mugimendu sozialen esparruan azterketak egiteko bide zilegi bakarra. Era berean, une disruptiboak eta horien ondorioak arakatzeari begira, ikerketa kuantitatiboa tresna egokia dela berretsi dugu, eta, ondorioz, baliagarria izango dela etorkizunean ere. Zentzu horretan, oso interesgarritzat joko genuke aurrerantzean garatuko diren balizko ikerketa horiek beste eremu batzuetara zabaltzea: guk aztertu ez ditugun talde eta kolektiboen errealitatea jasotzea, alegia.

Mila esker abentura honetan bidaide izan zaituztegun aktibista guztiei!

Aipamenak

- Alga, Maria Livia (2018). *Etnografía Terrona de Sujetos Excéntricos*. Bartzelona: Bellaterra.
- Esteban, Mari Luz et al. (2020). *Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik*. Bilbo: UPV/EHUko argitalpen zerbitzua.
- Esteban, Mari Luz (2015). «La reformulación de la política, el activismo y la etnografía. Esbozo de una antropología somática y vulnerable». *Ankulegi*, 19: 75-93.
- Feinberg, Leslie (2021). *Borrokalaria transfeministak*. Iruñea: Katakarak.
- Gaindegia (2016). *Des-herria. Hausturak eta etenak Euskal Herrian*. Andoain: Gaindegia/Ipar Hegoa.
- Gálvez, Lina (2013). «Una lectura feminista del austericidio». *Revista de Economía Crítica*, 15 (1): 80-110.
- Guilló Arakistain, Miren (ed.) (2016). *Festak, genero-harremanak eta feminismoa. Begirada teoriko eta antropologikoak, praktika sortzaileak eta plazeraren kudeaketa kolektiboak*. Bilbo: UEU.
- Guilló-Arakistain, Miren; Esteban, Mari Luz; Luxán Serrano, Marta (2020). «Le case delle donne nei Paesi Baschi: dibattiti, processi e alleanze», in Cima, Rosanna eta Alga, Maria Livia (ed.) *Allargare il cerchio. La cura e l'apprendimento come pratiche politiche*, MeTis International journal, Orr: 25-41. ISSN 2240-9580
- Herrero, Yayo (2016). «Economía feminista y economía ecológica, el diálogo necesario y urgente». *Revista de Economía Crítica*, 22: 144-161.
- Luxán, Marta; Ormazabal, Andere; Txurruka, Unai; eta Olatz Dañobeitia (2014). «Metamilitantzia. Herri mugimenduen baitatik gogoeta». *Jakin*, 203: 93-107.
- Martínez Palacios, Jone (koord.) (2017). *Participar desde los feminismos. Ausencias, expulsiones y resistencias*. Bartzelona: Icaria.
- Santos, Boaventura de Sousa (2004). *Democratizar la democracia. Los caminos de la democracia participativa*. Mexiko D.F: FCE.
- Subirats, Joan (2006). «Democracia, participación y transformación social» in Alguacil, Julio (ed.) *Poder local y participación democrática*. Madril: El Viejo Topo.
- Touraine, Alain (2005.) *Un nuevo paradigma para comprender el mundo de hoy*. Bartzelona: Paidós.

Laburpena

Sarrera

Azken hamarkadetan, gurea bezalako mendebaldeko gizarteetan, aldaketa garrantzitsuak gertatzen ari dira alor guztietan. Herri-mugimenduetan eta haien jardueran ere halaxe izaten ari da. Liburu honetan aztergai dugu zer-nolako lankidetzaprozesuak, ekimenak eta elkarlanerako guneak sortzen edo garatzen ari diren herri-mugimenduen baitan eta beren artean. Ikerketa hau egiteko, Euskalgintzaren, Feminismoaren, Ekologismoaren, eta Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasunaren eremuetan lanean ari diren eragile sozialetan zentratu gara.

COVID-19aren eraginpean burutu dugun azterketa honen helburuak dira, besteak beste, ikustea noraino baldintzatu dituen pandemiak taldeen dinamikak eta, nola ez, taldeetako ki-deen parte-hartze soziopolitikoa.

2021ean egindako lan honetan, besteak beste, kolektiboen lanari, antolakuntzari, finantziazioari eta jarduerari erreparatu diogu. Inkesta bidezko ikerketa honetan, gainera, talde eta kolektiboen harremanetan eta eraikitzen dituzten sareetan nahiz aliantzetan sakondu dugu. Gainera, eragile sozial horiek komunikazioari zer-nolako garrantzia ematen dioten aztertu dugu, barne- zein kanpo-komunikazioa aintzat hartuz. Esandakoaz gain, kolektiboek pandemia garaian eraikitako diskurtso eta praktikei erreparatu diegu, eta, ikergai gisa definitu ditugun lau eremuekin lotutako informazioa jaso dugu. Berariaz sortutako galdera-sortaren bidez, taldeen ezaugarriak aztertu ditugu: noiz sortu ziren, zenbat kidek osatzen dituzten eta nolako ezaugarriak dituzten (besteak beste, generoa, adina, jatorria eta hizkuntzen erabilera).

Dokumentu hau sei multzo nagusitan antolatuta dago. Sarrera honetaz gainera, hurrengo ataltxoan, metodologiaren aipamen laburra egin dugu. Ondoren, aztergai izandako taldeen ezaugarriak aletu ditugu. Laugarrenean, ikusi dugu COVID-19ak nolako inpaktua izan duen talde edo kolektibo hauetan. Gainera, taldeek elkarri nola eragiten dioten aztertu dugu beste atal batean. Halaber, interesgarria iruditu zaigu taldeek etorkizuna nola ikusten duten zehaztea. Amaierako atalean, ondorio gisa, hausnarketarako hainbat ideia proposatu dira.

Metodologia

Euskal Herrian eta aipatutako lau lan-eremuetan ari diren taldeetako kideengan arreta jarrita egin dugu ikerketa hau.

Inkestarako bi galdera-sorta prestatu genituen. Bata lan-eremu bakoitzean diharduten kolektiboetara bidali genien, eta bestea, berriz, talde horietako partaideei.

Nahita aukeratu genituen eremuetako 100 kolektibo inkestatu ditugu, horretarako berriaz diseinaturiko galdera-sortaren bidez; 2021eko maiatzetik eta irailera bitartean egin dugu landa-lana. Gaur-gaurkoz Euskal Herrian dauden talde guztien isla izateko asmorik ez duen arren, inkestaren bidez lortutako erantzunen kopuruak aukera ematen digu kolektibo hauen izaeraren eta zereginaren ezaugarri nagusiak zeintzuk diren jakiteko. Taldeei zuzendutako inkestak, besteak beste, kolektibo horien ezaugarriak, pandemiak izandako eragina eta beste kolektiboekin dituzten harremanak zehazten ditu.

Gainera, esan bezala, kolektiboetan parte hartzen duten norbanakoei bideratutako inkesta ere erabili dugu lan hau osatzeko. Horretarako, lau eremuetako 94 kideren erantzunak jaso ditugu, eta inkesta horren bidez jakin ahal izan ditugu kide horien izaerari eta parte-hartzeari buruzko zertzeladak, edo nola bizi izan duten COVID-19aren eragina. Norbanakoen inkestaren emaitzak zuhurtziaz kudeatzea komeni da, lagina txikia delako kuantitatiboki, eta, beraz, ordezkagarritasun estatistikoa mugatua da. Edonola ere, bidea ematen digu informazio hori kolektiboen emaitzekin gurutzatzeko eta, horrela, azterketan sakontzeko.

Mugimenduak ezaugarritzen. Taldeak eta norbanakoak

<i>Inkestatutako taldeak eremuka</i>	Ikerketarako definitutako eremuetan (Euskalgintza, Feminismoa, Ekologismoa eta Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasuna) kokatzen dira aztergai izan ditugun 100 kolektiboak, baina interesgarria da honako faktore honi erreparatzea: taldeen % 58, zehatz-mehatz, eremuetako batean soilik jardun arren, beste % 42 bizpahiru eremutan dabil. Horrek erakusten du noraino dagoen zabaldua eragile sozial hauen arteko erlazioa, eremuen arteko uztarketa eta elkarlanerako ahalmena.
<i>Kolektiboak herrialdeka</i>	Euskal Herriko zonaldeek daukaten pisu demografikoari erreparatuta, gure inkesta erantzun dutenetatik Euskal Autonomia Erkidegokoak dira gehiago, Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak batez ere.
<i>Taldeen antzintasuna</i>	Aztertutako kolektiboen artean, hamarretik zazpi mende berrian jaiotakoak dira eta, horien artean, handixeagoa Ekologismoa eta Feminismoa lantzen dutenen kopurua. XX. mendean sortutakoen artean zerbait gehiago dira Euskalgintzan eta Antiarrazakeria-Migrazioa-Kulturartekotasunean aritzen direnak.
<i>Kolektiboetako kide-kopurua</i>	Taldeen osarari eta parte-hartzeari dagokionez, aztertzen ari garen kolektiboetan, ohikoa da inplikazio-geruza bat baino gehiago agertzea. Batetik, partaide-kopuru txiki baina aktibo batek osaturiko geruza. Bigarrenik, inplikazio lausoagoa daukatenean geruza zabalagoa, kide asko biltzera hel daitekeena. Bada beste multzo bat ere, puntualki eta jarduera zehatzetan parte hartzen dutenena. Gure lau eremuetan errepikatzen den ereduan, talde txikian hamar partaide egoten dira, asko jota hogeit hamar. Aldiz, saretutako kide zenbakia handiagoa izaten da.
<i>Kide aktiboen izaera</i>	Taldeetan, partaide aktiboagoen geruzan emakume gehiago dago. Adinari dagokionez, bereziki azpimarragarria da 30-49 urtekoen multzoa. Eta taldeetan parte hartzen duten kide aktiboen jatorriari/sorlekuari dagokionez, gehienak Euskal Herrian jaiotakoak dira, oro har.
<i>Taldeen jarduera-esparrua</i>	Herrian, hirian, herrialdean eta oro har gertuko esparruetan aritzen dira aztergai ditugun kolektiboak. Beren egunerokoa, hurbiltasuna elementu garrantzitsua da komunitatean txertatzeko eta ekintzak egin ahal izateko. Talde hauen ia erdiarentzat herria da erreferentzia, edo, gehienez, herrialdea. Gertutasun hori markatuxeagoa da Feminismoan, eta Euskalgintzan, aldiz, Euskal Herrikoa da argien definitzen den esparrua.
<i>Hizkuntzen erabilerak</i>	Aztertu ditugun taldeetan hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen da, eta ez soilik ohikoenak —euskara, gaztelania eta frantsesa—. Euskarari dagokionez, taldeen bi herenek beti edo askotan erabiltzen dutela diote. Euskararen pisua handiagoa da, jakina, Euskalgintzan, baina baita Feminismoan ere.

Pandemiaren eragina parte-hartzean

Pandemiaren eragina taldeen egituran eta tamainan

COVID-19ak taldeen tamainan eta taldekideen parte hartzeko moduetan ere eragin du. Lau eremuetan aritzen diren kolektiboen tamainari dagokionez, gorabeheratsua izan da eragina: taldeen erdia antzerako kopuruetan mantendu bada ere, laurden baten kasuan kide-kopurua txikitu egin da, eta bosten baten kasuan, aldiz, handitu. Azken hori nabarmentzeko modukoa da. Bestetik, pandemiak aldatu egin du kolektibo hauetan aritzearen gainean norbanako gehienek duten ikuspegia (% 69): zenbaiten kasuan, aktibismoa gutxitu egin da nabarmen (% 43); beste batzuen kasuan (% 26), ostera, areagotu egin da. Ia heren batek (% 31) adierazi du pandemiak ez duela eraginik izan. Era berean, ikusi dugu parte hartzeko modua bera moldatu dela, gehienek arabera modu negatiboan, bereziki «erlazionatzeko eta komunikatzeko moduan» eta «parte hartzeko energian». Hala ere, zenbaiten aburuz, eragin positiboa ere izan du taldearekiko atxikimendu emozionalean eta ideologikoan.

Pandemiaren eragina taldeek antolatzen dituzten ekintzetan eta jardueretan

Begi-bistakoa da pandemiak bere marka ezarri duela taldeen ibilbidean. Aurreikusi genezakeen bezala, talde gehienek (% 61) ekintza gutxiago antolatu dituzte, eta hainbatek (% 6) ez du inolako jarduerarik antolatu. % 12,5ek ekintza-kopuru berbera mantendu du, ohiko maiztasunarekin. Azkenik, % 11k dio jarduera gehiago antolatu duela. Bestalde, taldeen esanetan, urteko jarduerarik garrantzitsuenari eusteko modua egin dute kasurik gehienetan (% 79). Gehiengoak (% 59) egoera berrietara egokitu ditu ekintza nagusiak. Azkenik, % 21ek ez du edo ezin izan du berentzat garrantzitsuena den jarduera nagusi hori egin pandemiaren eraginez. Nabarmentzekoa da egoerarik zailenetan izanda ere ekitaldi nagusiak mantentzeko egin den ahalegina eta lortutako emaitzak. Horietako hainbat aztertuz, ikusi dugu jarduera ia guztiei eragin diela pandemiak maiztasuna murriztuz, bereziki kalean egindakoen kasuan. Alta, *online* komunikatu eta aritzeko baliabideen erabilerak gora egin du, nolabait ere aurre eginez koronabirusak sortutako mugei.

Taldeen arteko harremanak

COVID-19ak ez du eragin nabarmenik izan aztergai ditugun taldeek aurretik zituzten harremanetan, eta mantendu egin dira kasurik gehienetan, bai esparru geografiko bereko beste taldeekiko harremanak zein taldearen eremu politiko berean ari direnekikoak. Hori bai, «intentsitate baxuagoarekin» eutsi zaie taldeen arteko harreman horiei. Pandemia eta guzti, badira harreman berriak sortzeko aukera garatu duten taldeak, aztertutako lau eremuetan.

*Taldearen
barne-antolaketa-
komunikazioa*

Pandemiak askotariko aldaketak ekarri ditu taldeen baitako komunikazio-moduetan eta, beraz, kideen arteko harremanetan. Aurrez aurreko bilerak espazio publikoetan edo lokaletan egiteko ohitura jaitsi egin da eta online bilerak/asanbladak egiteko baliabide digitalen erabilerak gora egin du, mugikorretako mezularitza-aplikazioekin batera. Bestalde, taldeen erdiak baino zertxobait gehiagok (% 56) murriztu egin ditu aurrez aurreko harremanak, horietako asko online egin dituzte (% 42,5). Ia herenak bestelako aurrez aurreko harremanak sortu ditu, eta ia beste horrenbestek lehen bezala lortu du gune presentzialak mantentzea. Inkestaren emaitzek iradokitzen dute garrantzia eman zaiola presentzialtasunari, betiere egoera berrietara egokituz. Hain zuzen ere, gehienen ustez birtualtasunak ez du ordezkatu presentzialtasuna, nahiz eta birtualtasunaren eragina handia izan taldeen barne-antolaketa eta komunikatzeko moduetan. Kolektibo batzuen ustez pandemiak harremantzeko moduak erabat aldatu ditu, eta beste batzuen iritziz, harremantzeko bide berriak ere ireki ditu. Aurrez aurreko harremanei dagokienez, inkestatu ditugun talde gehienek uste dute asko mugatu direla, baina beste heren batek (% 35,5) dio aurrez aurreko bestelako harreman berriak ere sortzeko balio izan duela.

*Pandemiaren
eragina taldeen
kanpo-komunikazioan*

Taldeek gizarteari mezuak eta ekimenak helarazteko erabiltzen dituzten baliabideetan eragin du pandemiak. Gora egin dute mezularitza-aplikazioek (Telegram eta WhatsApp bereziki) eta sare sozialek; nabarmentzekoak dira Twitter, Facebook eta Instagram. Eta behera egin dute ohiko komunikabideek. Oro har, talde asko saiatu da pandemiari aurre eginez eztabaidak sortzen, eragiten eta beren jarduna ikusgarri egiten, baina emaitzek erakusten dutenez kolektibo hauek esfera publikoan leku gutxiago izan dute eta erdia pasatxok uste du ikusgarritasuna galdu duela (% 51,5). Taldeen laurdenari (% 26) kontrakoa iruditu zaio: uste dute handitu edo asko handitu dela beren agerpen-maila.

*Pandemiaren garaiko
komunikazioan
euskarak izan duen
presentzia*

Taldeak ez datoz bat pandemiak euskarazko komunikazioan izandako eraginari dagokionez. «Lehenago lepotik burua» uste dute batzuek; beste askok, ordea, baldintza zailagoak izan dituela aipatzen dute, euskararen eremuan ari diren taldeetako kideek, batez ere. Dena den, inkestatutakoek euskarazko komunikabideak erabili dituzte neurri handi batean. Norbanakoen galdera-sortatik ateratako datu horietan nolabait islatzen da aktibisten konpromisoa, batetik, eta euskarari dagokionez gizartean sumatu duten ahultzea, bestetik.

*Finantziazioa.
Pandemiarekin
sortutako arazo
ekonomikoak
eta konponbideak*

Taldeen finantziabideetan ere eragina izan du COVID-19ak. Esaterako, Euskal Herriko kolektiboen artean, erdiak erantzun du antzeko egoera ekonomikoa bizi izan duela pandemiak iraun bitartean; beste % 49k, berriz, modu negatiboan eragin diola dio. Inkestari erreparatuz ondorioztatu daiteke, gainera, bide desberdinetatik dirua lortzen duten kolektiboek hobeto erantzun diotela krisiari, iturri bakarretik edaten dutenek baino. Bestetik, pandemiaren eraginez taldeek kalean duten presentzia murriztu denean, kolektiboen lana zaildu da, baina, aldi berean, finantziazio-iturri berriak lortzeko ahaleginak balio izan die jendearekin harremana mantentzeko eta baita zabaltzeko ere.

*Pandemia garaian
administrazioak
hartutako neurriak,
taldeen baitako
eztabaidak eta jarrerak*

COVID-19a dela eta, Administrazio Publikoek hartutako neurrien aurrean onespren-gradu altua erakutsi du kolektibo ugarik. Kontraktasuna handiagoa da Feminismoaren eremuan. Hala ere, ez dira gutxi izan krisiari aurre egiteko politika propioak eztabaidatu eta aztertu dituzten taldeak. Hala ere, inkestatuen erantzunetan antzematen da ekimen gutxi bideratu direla eskubide zibilei mugak jartzeko zizkieten neurrien kontra.

Mugimenduak elkarri eraginez

Feminismoaren eragina gizarte-mugimenduetan

Aztergai ditugun eremu guztietan, Feminismoak «*eragin handia*» duela aitortzen dute taldeek. Feminismoan aritzen direnen kasuan, noski, zentrala da, baina gainerako hiru eremuetan ere eragin nabarmena aitortzen diote. Handia da, batez ere, Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasunean ari diren taldeetan. Euskalgintzan eta Ekologismoan zerbait apalagoa da, oro har.

Pertzepzio hau pandemiaren aurretik eta bitartean antzerakoa izan dela aitortzen dute inkestatutako taldeek.

Ekologismoaren eragina gizarte-mugimenduetan

Zer eragin aitortzen diote lau eremuetako taldeek ikuspegi ekologistari? Oro har, «*eragina handia*» eta batzuetan «*ertaina*» dela diote kolektibo hauek. Banaka hartzen baditugu, eragina «*oso handia*» da ekologistentzat, espero izatekoa denez; «*handia*» edo «*ertaina*» Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasunean aritzen diren taldeentzat; eta «*ertaina*», berriz, Euskalgintzan eta Feminismoan lan egiten dutenen artean.

Pandemia garaian, ekologismoaren garrantziaz galdeturik, talde ekologisten gai zerrendan nagusi izan dela eta modu aktiboan erantzun dutela adierazi dute. Gainerakoetan presentzia «*ertaina*» izan duela esan daiteke (gehiago AMK taldeetan). Pandemia garaian, talde ekologistekin izandako harremanei buruz galdeturik, areagotu egin direla diote lau eremuetako kolektiboek, harreman berriak landu baitituzte, aurretik zeudenez gain.

Antiarrazakeria- Migrazioak- Kulturartekotasunaren eragina gizarte-mugimenduetan

Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasunaren eremuan ari diren kolektiboen ikuspegiek badute itzalik aztergai ditugun talde guztietan. Oro har, eragin hori maila ertainekoa dela diote talde ia guztiek, baina pentsatzekoa denez, «*oso handia*» da AMKko eremuan mugitzen direnen artean. Eraginik handiena diskurtsoetan eta aldarrikapenetan gauzatzen dela aitortu dute kolektibo ugariak.

Pandemiaren ostea eta etorkizuna hizpide

Talde feministen jardueran sakonduz

Talde feministei soilik eginiko galderetan, gai-zerrenda bat proposatu genien. eta garrantzitsuenak adierazteko eskatu. Hona erantzunak: Martxoaren 8aren inguruko jardueren antolaketa, Zaintzari buruzko eztabaida, eta Eraso matxisten aurkako erantzunen kudeaketa. Pisu apur bat gutxiago aitortzen zaie Dekolonitatearekin lotutako gaiei, LGTBI* aferei eta Adin zehatzekin lotutako gaiei. Prostituzioari buruzko eztabaidak, berriz, arreta txikiagoa jasotzen du Feminismoan aritzen diren kolektiboen agendan.

Pandemian gai horiei eskainitako arretari dagokionez, talde feminista gehienek ez dute aldaketa handirik sumatu, eta izatekotan, aipatutakoei garrantzi handiagoa emanez izan da.

Zaintzen gaian murgilduz, jardueraren batean parte hartu ote duten galdetu diegu (norbanakoen inkesta). Jasotako erantzunetan ikusten da aktibisten erdia baino gehiago «Herri eta auzoetako zaintza sareetan» aritu dela, eta asko jardun direla, halaber, «Zaintza arloko etxeko zein bestelako langileak sostengatzeko ekimeneetan». Feminismoan eta Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasunean garrantzitsua izan da, orobat, «Eraso matxistak kudeatzeko taldeetan» aritzea.

Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasunaren eragina pandemia garaian

Norbanakoen galdetegiari erantzun diotenek Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekotasunaren eremuan ez dute erabateko aldaketarik sumatu pandemia dela eta, baina askoren iritziz antzerako proportzioan izan da eragina onerako eta txarrerako.

Aldekotasuna sumatzen dute, oro har, arrazismoaren gaineko kezkan, eta haren kontrako elkartasunean. Baita atzerritartasunaren legearen ikuspegi kritikoan ere, eta harrera- eta laguntza-sareak areagotu izana aipatu dute. Gainera, uste dute ikusgarriagoa egin dela zaintzaren garrantzia eta arlo horretan pertsona arrazializatuak duten zeregina.

Dena den, gai batzuetan ikuspegi ezkorragoa agertzen da, esaterako bortizkeria polizialean, arrazakerian eta papergabeen mugimenduak kontrolatzeko eta mugatzeko mekanismoetan. Etorkizunera begira, egoerak okerrera egingo duela uste da orokorrean, eta jarrera xenofoboak eta arrazistak ugarituko direla pentsatzen du askok.

Hala ere, AMKko taldeek aliantzak indartu dituzte, beste eremuetako taldeekin batez ere.

*Nola irudikatzen dute
gizarte-mugimenduek
etorkizuna?*

Kolektiboetan ari diren norbanakoei zuzendutako galderen bidez, etorkizunaren gaineko pertzepzioaz gehiago jakin nahi izan dugu.

Feminismoan engaiatzen diren norbanakoen irudiz, gai batzuk oso presente egongo dira biharko egunean ere: Zaintzaren afera, Dekolonialitatea, Indarkeriaren aurkako ekintzak eta Gazte feministen aldarriak.

Euskaingintzan lan egiten duten militanteen artean, euskararen sustapenak etorkizunean izango duen pisuaz galdetuta, ziurgabetasuna nagusitzen da. Erantzunak sakabanatuta agertzen dira eta, beraz, gai horrek etorkizuneko agenda sozialean izango duen lekuaz ez dago erabateko adostasunik.

Antiarrazakeria-Migrazioak-Kulturartekosunean dabiltzan pertsonen artean, Arrazakeria estrukturalak eta Esquin muturreko diskursuen gorakadak, gaur bezala bihar, arazo-iturri izaten jarraituko dutela uste dutenak nagusitzen dira.

Amaitzeko, Ekologismoan aritzen diren pertsonen ustez, eremu horrek gero eta garrantzi handiagoa izango du gizartean eta herri-tarrak kezkatuko ditu aurrerantzean ere.

IKERTUZ

Ikerketa lanak
Trabajos de investigación

INFORMAZIOA ETA ESKARIAK • INFORMACIÓN Y PEDIDOS

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua • Servicio Editorial de la UPV/EHU
argialetxea@ehu.eus • editorial@ehu.eus
1397 Posta Kutxatila - 48080 Bilbo • Apartado 1397 - 48080 Bilbao
Tfn.: 94 601 2227 • www.ehu.eus/argitalpenak

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea